

ttipi-ttapa



ERAIKUNTZA gehigarria / 25



Auxtin ZAMORA | Senpereko olerkaria

«POESIA EZ DA ASKI BALORATUA»


Olerkari eta euskaltzale nekaezina. Haurtzaroan ezagutu zuen libertatearekin han eta hemen aritzea gustatzen zaiona.

Azken 20 urteotan bultzada handia eman dio euskal olerkigintzari. / 8

TTIPI-TTAPA

10 mugarrietako bat izendatu dute Ttipi-Ttapa

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren epaimahaiarentzat euskal kazetaritzako hamar mugarrietako bat da Ttipi-Ttapa / 59



Bertako balioak biltzen dituen marka sortu dute Baztanen / 10



Lesakako feriak azaroaren 21ean eta 22an ospatuko dituzte / 14



Goizuetako Feri Eguna azaroaren 24an izanen dute / 62


SINADURAK

MAITE BIDARTE SOTA / 3

AITOR AROTZENA ALBIZU / 3

PELO APEZETXEA ZUBIRI / 4

MAIALEN SOBRINO LOPEZ / 4



ZOKKETA / 80



EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra



IZEN-EMATEA

www.euskaraldia.eus



NIRE TXANDA

MAITE BIDARTE SOTA

Ikastolen aldeko festak

Donostiako Udalak debekatu egin du San Tomas Egunetan ikastetxeek jartzen duten postuetan alkohola saltzea. Ni ados nago. Eta zera gehitu nahiko nuke: ez al da iritsi ikastolek bultzatutako festa-eredua aldatzeko momentua? Ez naiz sartuko festa hauek egin behar diren edo egin behar ez diren eztabaidan, norberak erabaki dezala parte hartu edo ez. Baina hezkuntzak bultzatutako festa batean, diru-iturri nagusietako bat alkohola izateak zer pentsatua ematen dit, batez ere, arratsaldeetako panorama ikusita.

Eta bai, egia da gure kulturaren dena ospatzen dugula topa eginez eta alkohola beti presente dagoela, baina hezkuntzaz ari gara. Herri honek erakutsi du sormena baduela eta eraldatzeko gaitasuna, egonen da beste formularik, ezta?

«EZ AL DA IRITSI IKASTOLEN FESTA-EREDUA ALDATZEKO UNEA?»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBITZU

Zaurietan ozpina

Onenari txarrena atera nahizik zaurietan musu eman ordez ozpina botatzera etorri dira erromerian *Naranjito* eta lagunak Al-Zhazuko *yihadistei* aurre egitera. Beraien kolonia usain garestia gorotz-lurrinarekin apaldu zaie, mikrofonoz eta kameraz ongi hornitutako mendeku eta gorroto garrasiak su-ezkilek itzali dizkiete. Minari aurpegia, gezurrari egia.

NABARMENTZEKOAK



JOSU GOIA
HILBERRIA



MARITXU LARRETXEA
GAZTAGILEA

Ezker abertzaleko kide historikoa eta Berako alkate izandakoa, musika, literatura eta eskulturaren munduan ezagun izan zen Josu Goia Etxeberrria azaroaren 3an hil zen 71 urterekin.

Maritxu Larretxea arantzarrak egindako gaztak irabazi zuen Arantzako Baserritarren Egunaren barne egin zen gazta lehiaketa. Urte saila daramazki gaztak egiten eta epaimahaiak berea aukeratu zuen.

ATZERA BEGIRA



2008-11-13 · TTIPI-TTAPA · 482 zk.

Gazteen Eguna Saran

Mugak hautsiz, gaztedia aitzinera lelopean Ipar eta Hego Euskal Herriko hainbat gazte asanblada eta gaztetxek Gazte Eguna antolatu zuten duela hamar urte Saran. Horren harira, Mattin Oronoz Sarako Gaztetxeko lehendakaria elkarrizketatu zuen TTIPI-TTAPAK eta topaketaren helburuez mintzatu zen: «helbururik nagusia gure hesien gainetik gazteen arteko harremanak lotzea da, elkar ezagutu eta anaitasun bat sortzea gure artean». Horrekin batera, «mugaren oztupoa gainditu» nahi zutela adierazi zuen: «hau Euskal Herria dela ulertarazi nahi diogu jendeari. Elkartasunaren bidez independietziaren alde aitzinera egin nahi dugu».



erran.
Mendialdeko Albiesteak



Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Markel Lizasoain,
Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Aranbxa Iturralde, Aranbxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabaló, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi, Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerreka Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdi Akelarre elkarte

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€





KOLABORAZIOAK

PELLO APEZETXEA ZUBIRI

Nor gara, bada, gu?

Jendeak izaera berezia du, baina desberdina batetik bertzera, ezberdinak baitira jende bat eta bertzea; ezberdinak diren bezala herri deitzen ditugun jende taldeak. Izaera berezi eta desberdin hori adierazteko nortasun solasa ere erabiltzen dugu. Nortasun anitza da jende artean, eta nortasun anitza herri artean.

Zertan ageri da pertsonaren edo herriaren nortasun desberdina? Zein dira desberdin izatearen ezaugarriak? Izaera fisikoa, noski, gorputzaren forma eta zentzumenen gaitasuna.

Baina aunitzez gehiago ere bai: Pentsatzeko eta sentitzeko ahalmena, eta pentsatu eta sentitutakoa adierazteko mintzaira edo hizkuntza.

Adierazteko bertze moduak ere baditu jendeak, artea, errate baterako. Dena den, hizkuntza da jendeak gehien erabiltzen duen adieraz bidea. Aski maiz erraten da, hizkuntza dela gizakiaren eta herriaren izaeraren ezaugarri nagusia.

**«TALDE BATZUEK
BERTZE ZENBAIT
MENEAN HARTU
IZAN DITUZTE»**

Horren inguruan, ordea, aspalditik sortu da, eta egun sortzen da arazo franko. Estatu deitzen ditugun herrialde aunitzetan arraza eta hizkuntza bat baino gehiagoko herritarrak bizi dira; eta talde batzuk

bertze zenbait menean hartu izan dituzte, eta gaur egun ere hala dauzkate, hainbat lege eta hizkuntza erabiltzera derrigortuz, ttikiak errespetatu gabe.

Horren araberakoak dira, aginte politikoa duten batzuen mintzaira eta jokaera burugabea. Errate baterako, kargudun espainol zenbaitek euskara Nafarroako hizkuntza ez dela erratea; edo Nafarroako bertako batzuek euskararen kontrako manifestazioa plantatzea. Horrela gure izaera, nafar-euskal izaera, desagerrazi nahi dutela iduri du, gure guraso eta aitzinekoengandik hartutako izaeraren alderdia ezabatu, eta kanpotar bihurtu.

Horiek ez dute ikasi, edo ez dute gogoratu nahi, duela 800 urte Nafarroako erregeak adierazitakoa, euskara nafarren hizkuntza zela, alegia?

Aunitz ixtorio dira, aspalditik euskara Nafarroako hizkuntza zela erakusten dutenak. Bertze bat, bederen, bururatu nahi dut, duela 400 urtekoa. Antonio Venegas Iruñeko apezpikuak kultur ekitaldi batzuk plantatu, eta hiru hizkuntzatan egin zituen: latin, gaztelania eta euskaraz. Eta honela mintzatu zen: «Euskara da Nafar Erreinuko lehenbiziko hizkuntza». Eta oroitu behar dugu, apezpiku hura madrildarra zela. Hara begirunea bertako hizkuntzari!



MAIALEN SOBRINO LOPEZ

Hizkuntzak eta generoa ez daude aparte, sekula

Urriaren 19an antolatutako genituen Garabiden *Ahalduntzen: hizkuntza eta generoa* jardunaldiak Mondragon Unibertsitateko Bilbao Berrikuntza Faktorian. Goizeko lansaioek eta arratsaldeko mahai-inguruak aurreikuspenak bete zituzten eta hizkuntzaren aldeko aktibismoa eta emakumeen ahalduntzea lotzeko dinamika iraunkor baten abiapuntu izatea espero dugu. Lerro hauetara mahai-inguruan landutako gai batzuk ekarri ditugu.

Artikuluari izenburua ematen dion esaldiarekin akitu zuen Lorea Agirrek bere hitzartzea eta ederki laburbiltzen ditu mahai-inguruan plazaratutako bizipen eta iritziak. Iraitz Agirrek gidatuta bildu ziren mahaiaren bueltan lau hizlari, hiru kontinentetako hizkuntza komunitateen ordezkari: Suna Altun aktibista kurdua, Yazmin Novelo Mexikoko yukatango maia hizkuntzaren aldeko aktibista eta euskaldunen artean Txerra Rodriguez soziolinguista eta Lorea Agirre antropologo eta

kazetaria. Munduko zenbait txokotan hizkuntza gutxituen biziberritzearen alde lanean ari diren emakumeen egoerara hurbiltzeko aukera izan genuen, guttitan pasatzen den bezala, beraien ahotik entzun baikenuen non eta nola gurutzatzen diren generoaren eta hizkuntzaren

**«HIZKUNTZA
LANKIDETZA
EGITASMOEKIN
JARRAITUKO DUGU»**

zapalkuntza.

Suna Altun aktibistak, hasteko, kurduen artean arras ezaguna den Jin, Jîyan, Azadî leloa bota ondoren hitz bat gehitu eta lelo bat osatu zuen Jin, Jîyan, Azadî û Ziman, euskaraz *Emakumea, Bizitza, Askatasuna eta Hizkuntza*. Turkiaren menpeko emakume kurduen egoera eta boteretze guneak izan zituen ardatz. Mexikora salto egin eta yukatango maia hiztun den Yazmin Novelok komunitateko 22 emakumerekin egindako tailerretako hausnarketen berri eman zigun. Noveloren hitzetan, gizarteko botere harreman desorekatuen ondorioz, emakumeek eta hizkuntza gutxituek zapalkuntzak partekatzen ditugun heinean ikasi behar dugu horiei batera aitzin egiten.

Euskal Herrira etorrira Txerra Rodriguezek bere hitzartzea datu soziolinguistikoetan oinarritu zuen eta genero ikuspegitik aletu zituen. Lorea Agirrek hartu zuen hitza gero: «Dena batera doa. Nire gorputza da osorik euskalduna eta emakumea: ez erdizka emakume, ez erdizka euskaldun. Honek bertzeak nirekin harremantzeko modua arautzen du, baita nik bertzeekiko ditudan jarreretan eragin ere». Akitzeko, botere harremanak eraikiak diren heinean deseraikiak izaten ahal direla utzi zuen mahai gainean eta horretan kolektiboki lan egitera dei egin zuen. Ezinezkoa da bi orduko saioak eman zuena motzean kontatzea, baina ekintza isolatua izatetik urrun hizkuntza lankidetzaren egitasmoen baitan gaia sakonago lantzeko abiapuntua izan zen Garabiden. Beraz, aitzinera begira arlo honetan ere jarraituko dugu elkar ezagutzeko, elkarri entzuteko eta esperientziak trukatzeko espazioak irekitzen.

11 GALDERA LABUR

JOANES ECHEVESTE SARAKO GAZTEA

«Haurren aurpegietan irriak ikustean poza sentitzen dut»

Aurkeztu zure burua.

Ameslaria naiz eta pailazo izan nahi nuke. Ikusgarriak antolatzen ditut nire pailazoarekin; Pontx pailazoa da nire pertsonaia.

Zer zaletasun duzu?

Nire zaletasuna antzerkia da eta egunerokoan ikusgarriak antolatzen ditut, nire kabuz prestatzen ditut.

Non jantzi zenuen sudur gorria lehendabizikoz?

Nire logelan jantzi nuen lehendabizikoz, familiakoen edo telebistaren aitzinean euskal pailazoak –Pirritx, Porrotx eta Marimotots– imitatzeko. Hasieran pailazo ezagunen antzerkiak egiten nituen, nire hitzekin edo aldaketa ttipiekin. Jolas moduan hartzen nuen.

Zer ezkutatzen da sudur gorriaren gibelean?

Hamahiru urteko mutila, pailazo izatea amets duena. Niretzat plazerra da egiten dudana.

Jendeari pailazoa zarela erraten diezunean... zer erraten dizute?

Aunitzek ez dakite, sekretu bat bezala da, trufen beldur naizela. Dakitenek ongi hartzen dute eta galdera ainitz egiten dizkirate. Animatu ere egiten naute.

Zein da lanbide horri ikusten diozun alde onena?

Sormenerako bide emateaz gain, askatasuna eskaintzen dit. Bakarrik ibiltzen naiz, baina taldean ibiltzen direnek sortzeko muga zabalagoak dituzte. Gaur egun nahiko



baloratua den lanbidea dela iruditzen zait baina gehiago baloratzeak ez lioke kalterik egiten.

Non eskainiko zenukeen emanaldiren bat gustura?

Leku guztietara joaten naiz gustura. Momentuz ez dut bertze emanaldirik baina las-ter aterako da.

Haurrak irriz ikustean zer sentitzen duzu?

Poza sentitzen dut, haiek alaitzea lortu dudalako.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Aitzinera noala ikustek eta zaletasun hori jendeari partekatzeak.

Inguruko txokorik politena?

Sarako plaza, herriko bihotza; eta mendiak, horiek dira herriko bi politenak.

Zer du Sarak bertze herriek ez dutena?

Urte osoan alaitasuna eta besta giroa du. Niretzat herri bikaina da eta ez du deus ere falta.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



IRAKURLEAK MINTZO

Etsaikeriak

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Lehiak egunerokoak dira gure bizitzan. Lehen, orain, eta geroan ere izango dira gizakiok barru-barruan, geure izaeran daramagun oinarrizko ezaugarri honek sortzen dituen norgehiagokak. Kirola gizakiaren izaera horretan oinarritzen da. Eta gaur egun kirolak duen garrantzia inoiz baino handiagoa izan arren, gizakiak betidanik praktikatu du. Jadanik K.a. 2. 000 urtean, Egiptoko dokumentuetan azaltzen dira kirol joko batzuk. Baina batez ere greziarren Olinpiadek eman zioten bultzada mundu mailan.

Kirol garrantzitsuenak, tartean diru asko jokatzeko dutenak, antolatutako izaten dira. Batzuk mundu mailan, beste batzuk estatuen artekoan. Baina, maila txikiagoan, herrialdeen eta herrien artekoak ere, kontuan hartzeak izaten dira, lagun artekoak aiantzi gabe.

Norgehiagokak egiten ez gara atzean gelditzen euskaldunak. Gure artean, beti ezagutu ditugu mota guztietako lehiak eta apustuak. Norgehiagokak batez ere baserriarren inguruan nagusi ziren. Auzotarren arteko lehia horiek ezagutu ditugu, baina zorionez, garai horiek ahaztuta daude. Gaurko gazteek ez dute ezagutu eta ez dute jakingo gertatu zirenik ere. Baina borroka horiek gaituta baldin badaude ere eta normaltasuna nagusitzen baldin bada ere, ezin da gauza bera esan beste maila batzuetan gertatzen denaz, nahiz eta gehienetan ez den arazorik izaten.

Kirolaren helburu nagusia, beste askoren artean, ondo pasatzea eta

herritarren arteko harremanak sendotzea da. Baina badago salbuespen garrantzitsu bat, denok ondo ezagutzen duguna, eta zoritxarrez, kasu askotan, kirolaren helburu horren kontra egiten ari dena. Kirol hori futbola da. Komunikabideek, behin eta berriz, ematen dizkigute han eta hemen gertatzen diren iskanbilak. Zer nolako segurtasun neurriak hartu behar izaten dituzten, eta hala eta guztiz ere, zer nolako istiluak sortzen diren. Horrela, eta sarritan, zaleak kirolaz disfrutatuko beharrean, arduraz eta beldurrez ibili behar izaten dute. Euskal Herriko futbol giroa ez omen da hain gaiztoa, baina ez dut uste eredu garenik. Talde bateko eta besteko zaleak elkartu eta hurbildu baino gehiago, urrundu eta etsaitu egiten dituela ikusten ari gara.

Futbola bera, beste edozein kirol bezala, disfrutatzeko eta lagun artean ondo pasatzeko ingelesek asmatutako kirola da. Baina orain ehun urte baino gehiago sortutako kirol horren helburua guztiz aldatu da. Gaur egun, profesionalen arteko futbola negozio handi bat bihurtu da. Bere inguruan dagoen giro hain gaiztoari ez diote asko laguntzen komunikabide batzuk. Alderantziz, badira futbola edo beste edozein gai aitzakiatzat hartuz, tamalez, herritarren arteko probintziakeriak areagotzen ari direnak, XXI. mendean harrigarria bada ere.

BOTA BERTSOA



JULEN ZELAIETA IRIARTE
BERAKO BERTSOLARIA

Ahantzien oroimenez

Doinua: Zulo sakon (Alazne Untxalo, 2017)

*Hogeita hamaseigarrena,
uztailaren akabera:
Matxino ta Erreket(e)k
indarrez hartua Bera.
Abuztuaren hiruan,
eta eguerdi aldera,
herriko ehun bat famili
plazan elkartz, batera,
hiru aukera zituzten
aginduen arabera:
'Gipuzkoara, Frantzira
bertzela, fusilatzer!' (ber)*

*Atxilo hartu ondotik,
iheserako zorian,
ehun ta hogeita hamar lagun
hil zituzten harrobian.
Isildutako kontuak
izan dira, teorian,
historia, ez delako
fijatz, maiz, erorian.
Pasa zena a(ha)ntzi gabe,
har ditzagun memorian,
denek bait dute leku bat
herri honen historian (ber)*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58



Erakutsi eta probextu aukerak!

TTIPI TXARTELA MALERREKA

Alustiza

%10 DESKONTUA
30€tik gorako erosketetan

Nagusia, 12 | DONEZTEBE
T. 948 45 01 13

Amaya Picabea
CASA DE ESTILO E DECOR

%5 DESKONTUA
kosmetikan
%5 DESKONTUA
oparietan 50€tik gora.
Promozioetan ezik

Amezitia | DONEZTEBE
T. 948 45 01 63

ARRATE ESTATIKA ZENTROA

%10 DESKONTUA
Skeyndor Eternal kremetan

Eliza, 18 behea 2 | DONEZTEBE
T. 948 45 02 86

EZ

%10 DESKONTUA
produktuetan

Intzakardi, z/g | DONEZTEBE
T. 948 45 03 64

JUAN J. PICABEA

%10 DESKONTUA
arropa guztietan

Amezitia | DONEZTEBE
T. 948 45 16 70

Kimetz
Belardenda

%5 DESKONTUA
kosmetikan, opari artikuluetan eta haur-eramailetan

T. 948 45 14 73 | DONEZTEBE
info@kimetzbelardenda.com

kukuka

%10 DESKONTUA
pijama eta barruko arropetan

Zazpigurutze, 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 02 52

lorea
Auzoan eta denda bitan

%5 DESKONTUA
elikatze kontzienteko kontsultetan:
elikatze nutrizional, energetiko eta emozionala

T. 948 45 14 73 | DONEZTEBE
lorea@kimetzbelardenda.com

Maita Moda

%5 DESKONTUA
50€ arteko erosketetan
%10 DESKONTUA
50€tik gorako erosketetan
Promozioetan ezik

Nagusia, 4 | DONEZTEBE
T. 948 45 07 27

MALERREKA
KUSTOM

%5 DESKONTUA
30€tik gorako erosketetan

Nagusia, 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 15 71

EL BAOL DE
Maru Cruz

%10 DESKONTUA
30€tik gorako erosketetan

Parrokia, 11 | DONEZTEBE
T. 948 45 01 12

Miguelena

%10 DESKONTUA
erloju eta bitxietan
30€tik gorako erosketetan

Amezitia, 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 09 25

NEKAZARI ZERBITZUAK
Vicente Arcocha Andueza

%5 DESKONTUA
zakur eta katuen pentsuari

Mourges, 20 Nabe 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 18 45

CASA ETXEA
OSTIZ

%10 DESKONTUA
oinetakoetan

Parrokia, 17 | DONEZTEBE
T. 948 45 02 89

TINTORERIA JAIONE

%10 DESKONTUA
12€tik gorako erosketetan

Elizagibela, 7 | DONEZTEBE
T. 948 45 05 21

ttipi-ttapa

%10 DESKONTUA
esketetan

Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58



Auxtin Zamorak azken 20 urteotan bultzada handia eman dio euskal olerkigintzari. TTIPI-TTAPA

«Libertatearen eragina biziki inportantea da ene baitan»

AUXTIN ZAMORA DURRUTI SENPEREKO OLERKARIA

20 urtez 'Hatsaren Poesia' olerki bildumako arduraduna izan da Zamora (Senpere, 1943). Horretaz, haurtzaroko eta gaztaroko oroitzapenez eta olerkigintzaz aritu da TTIPI-TTAPAREKIN

G. PIKABEA SENPERE

Olerkari eta euskaltzale nekazina. Maite duena eginez, isilean aritzea gustuko duena. Haurtzaroen, baserriko familia giroan ezagutu zuen libertate hura miresten du, eta libertate horrek bultzatzen du isilean eta borondatez, han eta hemen aritzera.

Nolako haurtzaroa izan zenuen?

Libroa. Zortzi haurretarik lehen nintzen, banuen premutasunaren eragin hori, eta burusoek gauzak nahi bezala egitera uzten ninduten, libertate osoz. Familian haurtasun urosa izan nuen, baina base-ritarrak ginela, lan ainitz izaten genuen. 11 urterekin barnetegi batera joatera behar-

tua izan nintzen, eta han sartzea arrunt zaila izan zen. Presondegi batean bezala, libertatea moztu zidaten. Beti leihotik begira egoten nintzen. **Zein ikasketa egin zenituen?**

11 urterekin barnetegian sartu nindutelarik hasi nintzen frantsesez ikasketak egiten. Apezetxe bat zen eta kantua erakusten zuten, gero Baionako elizbarrutiko zeremonian kantatzeko. Baina ez nuen batere boz zuzena. Gero Uztaritzeko seminariora joan nintzen, baina hor ere ez nuen luzaz iraun. Ez nuen giroa batera maitatu eta Baionako lizeoan sartu eta Batxilergoa pasatu nuen. Ez naiz unibertsitatean ibili, baina irakaspen

unibertsalak ukan ditut. Ainitz gauza ikasi ditut, bereziki nahi eta maite nituenak, eskolatik baino gehiago barneko askatasunaren bitartez. Euskararen mailan ere berdin. Frantsesez alfabetatuak ginen, eta nire kabuz hasi nintzen euskaraz alfabetatzen, 40 bat urtetan. Algeriako gerla eta Hegoaldekoerrefuxiatuen lekukotasunen analisisiek eragin zidaten eta euskaldunak kolonizatuak ginela ohartu eta nire oinarriak euskararen barnean gehiago sartzea erabaki nuen. Hastapenean, izigarriko zailtasunak izan nituen euskaraz idazteko, baina gero trebetasuna sartu zait. Egia da, 6-7 urte arte etxean beti euskaraz mintzatzen nin-

tzela, baina eskolan sartu bezain laster, urduritzen nintzen, euskaraz hitz egitea debekatu eta mesprexatua zelako. Uztaritzeko seminarioan ere hori nabari zen. Lafitte euskaltzale adituak latina eta grekera eskolak ematen zizkigun, eta ez zigun nehoiz euskaraz egiten. Horra hor ezagutu dudan eskolaren eragin kaltegarria...

Lanbidez zertan aritutakoa zara?

Hastapenean, anai-arrebekin, burasoak laguntzen nituen. Laborantza utzi eta laborantzako tresnak eta ongariak saltzen hasi ziren eta horretan aritu nintzen. Kanadan bi urte pasatu nituen sukaldaritzaz ikasiz. Zonbait urtez arno saltzaile eta gauez zaintzaile ibili nintzen, eta azkenik, 20 urtez, gazteen aterpe batean. **Baiona eta Senpere artean...**

Lana gehienbat Baionan egin dut, baina bizi batez ere Senperen. Zonbait urtez Baionan bizi izan ginen, baina haurrak ukan genituelarik Senpererat etorri ginen. 1970ean, Senperen ikastola hasi zelarik, lehen burasoetarikoak izan ginen. Orduan Senperen Ama Eskola baizik ez zen, eta Lehen Maila egitera Blancpignonera eramaten nituen haurrak. Arratsean, lana bururatzean, etxerat ekartzen nituen. Hori ainitz urtez egin dut.

Ikastola Senperen. Nolako oroitzenak dituzu?

Ez nuen sekula sinetsiko ikastolak segituko zuenik. Urtero hetsiko zutela uste nuen, eta orain ainitz dira bere gelen barnean. Harrigarria da hola-ko hastapen murriztarekin noraino ailegatu den. Gaur egun, Senperen, jendea ez da ainitz mintzatzen euskaraz, baina gatzetxoek badakite euskaraz eta ainitz pozten naiz. Belaunaldi ainitzek ez dute ikasi baina beren haurrak hasi dira. Gizartea aldatzen ari da. **Zure zaletasun haundietako bat olerkigintza izan da.**

Duela 30 urte, hiru lagunek Hatsa Elkarte sortu genuen, bakoitza bere esparruan aritzeko. Nik poesia landu nahi

nuen, eta maite genuena egiteko eta lege aldetik laguntzak ukaiteko elkartearen sortzea beharrezkoa izan zen. Bertzeek utzi zuten, eta araudietan arduraduna beti gu hiruetarik bat izanen zela idatzia genuenez, nik segitu nuen, euskarazko poesiaren ardatzari bide ematen. Nahiz eta olerkigintza populuen mintzaira guzietan baden, garai haietan euskarazko olerkigintza murrizta zela sentitzen nuen eta hortaz hasi nintzen euskara hutsean olerkiak idazten. Hortik deliberatu nuen, 1999an, urtean behin, ahal bezainbat olerkariarekin, liburu baten egitea. Geroztik urtero egin dugu.

Nolako balorazioa eginen zenuke? Lehenbiziko urtean 40 bat lagunek parte hartu zuten liburuan. Jendea animatzeko prentsaren bidez mezu bat igorri nuen eta erantzuna baikorra izan zen. Geroztik berdin egiten dugu, ez da nehor derrigortua izan eta poliki-poliki zabaldu da. Urteotan zazpi herrialdeetako eta Ameriketako bizi diren 340 bat olerkariak parte hartu dute. Halere, poesia ez da aski baloratua, nonbait idazleak berak ere ez duelako bere baitan duen funts poetikoan zinez sinesten. Poesiari bizi gehiago eman behar litzaiokeela uste dut, liburuetan preso atxikiak diren olerkiei airea ere eman. Hatsaren Poesia egunean, bazkaria egiten dugularik, elkarrekin momentuan poesia amankomun bat egiten dugu,

«LIBURUETAN PRESO DIREN OLERKIEI AIREA EMAN BEHAR ZAIE»

«POESIAN EGITEN DENA LEHENAGOKO BERTSOLARITZAREKIN LOTU DAITEKE»

argazki edo bideo bat egituretzen, abestiak sortzen... Denek zer bait freskoa eskaintzen diogu olerkigintzari. Poesiarekin egin daitekeena lehenagoko bertsolaritzaren izpirituarekin lotu daiteke. Orduan ez zen ez dirurik, ez konpetiziorik ere, akatsak onartuak ziren... Garrantzitsuena norberak barnean zuena adieraztea zen. Oraingo bertsolaritzak nonbait bere funtsa aldatu du, bereziki lehiaketan ondorioz. Hautzaroan bertsolariak leihobatetik bertzerara ikusi ditut kantari. Ez zuten dirurik behar, ez elkar neurtu behar ere, ezta bertsolaritza ikasteko azterketa sakonik egin behar ere. Libroki, hitzak zetorzkien bezala kantatzen zituzten. Poesia instintuz egiten zuten.

Beti izan duzu poesiarako joera? Eskolan nire lehen olerkia 11 urterekin idatzi nuen, frantsez. Denak irri egin zidaten, eta irakasleak ere ez zuen preziatu. Horren ondotik, urduria

bilakatu nintzen eta 43 urte egin arte ez nuen gehiago olerkirik idatzi nahi izan. Damudut garai hartan nuen kemen poetikotik ainitz galdu baitut. Baina irakurtzen nituen liburuetan poesiarekiko maitasuna sentitzen nuelako berriz idazten hasi nintzen. Nire baitan zer bait naturala izan da poesia, arnasa hartzea bezala.

Ainitz irakurritakoa zara?

Bai, betitik. Ene amaren amodiozko aldizkariak irakurtzen nituen, literatura frantsesa, euskalliburu batzuk, eleberriak, aitarene e hizako liburuak... Eta orain kasik ez dut irakurtzen, behartua naizelarik edo norbaitek liburu bat oparitzen badit soilik. Irakurtzen dudan guztia sakontzea gustatzen zait, eta ez dut denborarik hartzen, ezta kasik beharrik sentitzen ere. Normahik zernahi idazten duelarik, orokorrean, lehen hitzetarik zer erranen duen ia ulertua dut eta ez diot interesik aurkitzen. Lehen de-

nak behar nituen irentsi eta orain gutirekin aski dut.

20 urteren ondotik, Hatsaren Poesia olerki bildumako arduraz uztea erabaki duzu.

Bai, Ainara Maia Urrozek hartuko du liburuaren arduraz. Nik HatsArte erakusketarekin segituko dut, baita bideo poetikoekin ere. Artearen munduan, ainitz dira idazteaz gain, zer bait artistikoa egiten dutenak, eta beraien obrekin urtean behin erakusketa antolatzen segituko dut. Lau urtez egin dut eta erantzuna beti ona izan da.

Kantu bildumak eta ikerketa lanak ere egin dituzu...

Senpere eta inguruko herrietako gai historikoak lantzeko Lapurdi 1609 elkartearen parte hartzen dut. Azken urteotan, Sara, Etxalar eta Senpereko etxeen datu geografikoak eta izenak bildu ditut, baita Lehen Mundu Gerlan Senpereko hildako, zauritu eta desagertuen izenak ere. Mixel Mendiburuarekin bizpahiru kantu bildumetan parte hartu dut eta zombait ikerketa lan egin ditut.

Ez zinen geldirik egoteko jai...

Instintuak egin beharren bat sentiarazten badit, hori bururaino eraman behar dut... Kasik beti bizi izan naiz herrian eta herri mailako kontu batzuk aztertzea erakargarri egin izan zait. TTIPI-TTAPAN herritar batzuen aipamenak idatzi ditut, Gure Irratian 30 bat urtez Senpereko berriak eman ditut astero, *Herria* aldizkarian artikulua batzuk idatzi ditut... Eta guztia libertate osoan, ordaindua izan gabe. Libertatea ez da ordaintzen, hartzen baizik. Libertatearen eragina biziki inportantea da ene baitan.

Hemendik aitzinera zer?

Orain arte bezala, istantekin instintuarekin batera, erakutsiko dit bihar zer egingen dudana. Gero eta gehiago ari gara iraganaz aztertzen, eta horrek orainaz gozatzeko edo bizitzeko denbora ebasten digu. Beraz, saiatuko naiz, egunez egun, zorionki, abenturaz eta menturaz, etorkizun poetiko baten bidean aitzineratzen.



Auxtin Zamora aurtengo *Hatsaren Poesia* olerki bilduma eskuetan.

Egindako lanaren aitortza

Urte luzez egindako lana aitortuz, hainbat omenaldi eta sari jaso ditu Zamorak, sorterrian zein kanpoan. Tartean, joan den apirilean, «ezustean» Sarako Idazleen Biltzarrak saritu zuen. «Pozik» hartu zuen saria, nahiz eta publikoan agertzea ez zaion «sobera» gustatzen. «Nahiago dut egiten dudana isilean erakutsi». Hilabete berean, Ohorezko Euskaltzain izendatu zuten eta «zinez, ohore handia» dela onartu digu: «ez nuen sekula pentsatuko euskara hain sakonki ikertzen duten Euskaltzaindiako adituek ni, hain xumea naizen pertsona bat, beren artean onarduko nindutenik». Denaren gainera, halere, «ni beti Auxtin Zamora izanen naiz», dio. Bere merezimenduak «euskal arima agertarazi didatenei» zor dizkiela uste du.



Joan den urriaren 4an Arras Baztan marka aurkeztu zutelarik, Oronoz-Mugairin mugarrira erakutsi zuten. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Balioak oinarri, elkarlana tresna

Baztango Udalak sustatuta, Arras Baztan marka sortu dute, bertako hainbat eragile kultural eta sozioekonomikorekin batera. Gisa honetara, Baztango balioetan oinarritutako tokiko garapen sozioekonomikoa indartu nahi dute. Guztia kudeatzeko izen bereko fundazioa sortu dute

G. PIKABEA BAZTAN

«Garenetik eta dagoenetik lan egin nahi dugu, gure barneko indarrak zein diren ezagutu eta horiek bizkortu». Halaxe aitortu digu Joseba Otondo Baztango alkateak, eta horretan ari dira, helburu horiei begira hasitako elkarlanaren emaitza baita Arras Baztan marka, baztandarren nortasuna bildu eta eta herritarrak elkartzeko jaio den tresna. Baztango Udalak sustatu du, bertako hainbat eragile kultural eta sozioekonomikorekin batera eta garbi dute nortasun marka bat dela, lurralde marka bat, tokiko garapen sozioekonomikorako erabili nahi dutena. Proiektuak Europar Batasunaren FEADER/LGENF funtsen eta Nafarroako Gobernuaren finantzazioa izan du.

Herritarrek proposatutako balioak

«Ez dugu Baztan nolana saldu nahi», eta ez da marka komertzial bat. Hori argi dute. Alkatearen hitzetan, «Baztango balioak biltzen dituen marka da» eta balio horiek Labrit Ondareak gidatuta egin den gogoeta prozesu batean ondoz ondoz dituzte: «balio horiek 67 herritarrek parte hartu duten gogoeta mahai horietan errandakoen ondorio dira».

Paisaia jakin bati buruzko atxikimendua, euskara, Baztango «izatearen muinean dauden» auzolana, komunala eta batzarra, paisaia eraikitzen duen nekazaritzari buruzko begirunea... «Balio horietan oinarritzen den eta balio horiekin bateragarria den tokiko garapenerako lankidetzeta estrategia bultzatu nahi dugu bailararen barnean». Gisa ho-

netara, «Baztanen eta kanpora begira nortasun berezia duen eta aitzindaria den eskualde bat sustatu» nahi dutela dio Otondok. Areago, sinetsita daude «lurralde-identitateak eta lurralde-marken eraikuntza kolektiboak onurak dakartzala bai gizarte arlora, bai ekoizpen arlora eta bai komunitatera ere».

Fundazioa

Markaren kudeaketaz ardurtzeko, alkatearendako «arras garrantzitsua den» izen bereko fundazioa sortu dute, «Baztango jarduerari modu antolatuan elkarlanerako espazioa eskaintzen dien entitateak».

Hautsetsi, teknikari eta eragile sozioekonomikoek osatutako patronatu bat arduratuko da fundazioaren egiteko: Baztango alkatea, turismo eta

merkataritzaz zinegotzia, nekazaritza eta abeltzantza zinegotzia, Elizondoko Lanbide Eskolako zuzendaria, Cederna Garalur Elkarteko eskualdeko garapen agentea, Baztango Zaporeak elkarteko ordezkaria, Bertan merkataria eta zerbitzuen elkarteko ordezkaria, Baztango Artisanuak elkarteko ordezkaria, Apopilo Baztango alojamenduen elkarteko ordezkaria eta Prest Baztango zerbitzu turistikoaren elkarteko ordezkaria. Azken bi elkarrekin berriki sortuak dira, Arras Baztan egitasmoaren bueltan. «Baztango ekonomiaren alderdi haundi bat» antolatzea lortu badute ere, «ez dugu baztertzen elkarrekin gehiago sortzea eta horretarako gogoe-ta prozesuak bideratzea». Hala ere, «jakin behar dugu fundazioak marka bat kudeatzen duela eta marka horrek balio jakin batzuk dituela eta guztiak bateragarri izan behar duela».

Urrun ailegatzeko gogotsu

Aspaldikoa zen marka sortzeko nahia eta eman dute urratsa, ez nolana gainera. Alkatearen irudiko «arras garrantzitsua da Baztango ekonomiaren zati haundi bat antolatu izana». Baina urrunago ailegatu nahi dute eta bide horretan, hurrengo hitzorduak azaroan Naroa Jaurregizuria adituarekin egiteko duten markagintzari buruzko lansiaioa eta otsailean Frantziako Estatuko Vallée de la Drôme landa ingurunera egiteko duten irteera izanen dira. Azken horretan, Biovallée lurralde proiektua ezagutu nahi dute. «Beraien printzipioak guretzako erabilgarriak diren ikusi nahi dugu, gure balioei zehaztapena eta sendotasuna emateko», azaldu du alkateak.

Orain arte egindakoarekin kontent daude, eta aitzinera begira gogotsu. Alkateak garbi du «oraindik aunitz» dagoela egiteko eta horretan segitu nahi dute: «poliki ibili nahi dugu urrunerat ailegatu nahi dugulako».

Arras Baztanen inguruan solasean



JOSEBA OTONDO
BAZTANGO ALKATEA

«Sekulako pausoa eman ahal izan dugu»

Bi urtez «gibeletik lan haundia» egin dela aitortu du Otondok, baina kontent dago «jendearen erantzuna positiboa» izan baita. «Oraindik aunitz dago egiteko, baina sekulako pausoa eman ahal izan dugu, eta sozioekonomia Baztanen eta Baztandik bulkatzeko entitate bat sortu dugu». Orain fundazioarekin eta markarekin «estrategia bat garatu nahi dugu epe ertain eta luzera eragileek aktibaturik eta antolatuz segitzeko».



JOSE MARI ARRAZTOA
PREST ELKARTEA

«Urratsez urrats bidea eginen dugu»

Aurtengo udaberrian sortua da Prest elkarte, eta Arraztoaren hitzetan, «hasieratik Arras Baztan markaren sorrera garrantzitsua iruditu zitzaigun. Gure eta bertze sektoreen interesak bateratu ditzake». Hainbat onura ikusten dizkio Arras Baztani eta «oraindik bidea luzea» dela dion arren, «urratsez urrats bidea eginen dugu. Sinetsita gaude gure bizitzeko moduak hobetzen lagunduko duela eta hori arras garrantzitsua da».



MAXUX GOÑI
APOPILO ELKARTEA

«Denok denek beharra dugu»

«Guk hemen bizitzea eta lan egitea aukeratu dugu», eta Goñik argi du horretarako «denok denek beharra» dugula: «alajamendu ederra izaten ahal dugu, baina Baztanek ez badu erakargarritasunik ez da jenderik etorriko. Adibidez, inguru polita izateko baserriarrak behar ditugu, eta baserriarrak segitzeko beren produktuak erosi beharko ditugu. Gauza bera bertze jarduerekin. Denek artean antolatzen bagara hemen segitzen ahalko dugu».



PAKO ALTZUGARAI
BERTAN ELKARTEA

«Baztani balio bat gehituko dio»

«Baztango hainbat eragilerekin lan egiteko aukera» ikusten du Altzugarai eta hortaz, Arras Baztanen aldeko apustua egin dute. «Gureta on» izan daitekeela uste du, «Baztani balio bat gehituko dio eta iturri horretatik denek edanen dugula espero dut». Arras Baztanen etorkizunaz galdetuta, «ona» izanen delakoan dago, eta gaineratu duenez, «denok elkarrekin lan egin beharko dugu onurak ikusteko».



JULIO MOLINUEVO
BAZTANGO ARTISAUAK

«Indartzen lagunduko die sektore guztiei»

Aurten sortu dute Baztango artisauen elkarte eta Molinuevok dionez, Arras Baztan egitasmoak «sektore guztiei indartzen lagunduko die». Gehiago ere kontatu digu: «fundazioan egonda, gure asmoa ez da etekin ekonomikoa edo pertsonala ateratzea. Honetatik ateratzen ahal dugun etekina Baztanen bizi eta lan egiten dugun artisauek guztion lana aitortzea da eta bide batez, Baztango bizimodua pixka bat hobetzen lagunduko dugu».



MAITE ARIZTEGI
LANBIDE ESKOLAKO ZUZENDARIA

«Elkarlanerako aukera da Arras Baztan»

«Arras Baztan elkarlanerako aukera» dela eta «gure lanbide eskola eskualdeko garapen sozioekonomikorako kontuan hartzea garrantzitsua» dela uste du Ariztegi. Horren harira, «proiektu honetatik sortzen diren prestakuntza beharrei erantzuna emateko aukera» aipatu du. «Lanbide formakuntzatik gatoz eta bertze ikuspegi bat eman dezakegu pertsonaren prestakuntzak identitate kontzeptu honetan lagundu dezakeena agertuz».



MARIAN ZESTAU
CEDERNA-GARALUR

«Garapenerako tresna eraginkorra da»

«Arras Baztan lan egiteko luxuzko proiektua da eta Baztango garapen estrategikorako arras tresna eraginkorra izan daiteke». Halaxe dio Zestauk. «Proiektuan sinesten dut» eta aitzinera egiteko «benetako gogo» sumatu du: «horregatik eman dira orain arteko urratsak». Bere irudiko, «fundazioan zonaldeko eragile ekonomiko eta sozial zabala ordezkatuak gaude, eta gure esku ere egonen da epe ertain eta luzerako Baztango garapena».



MIKEL ALTZUART
BAZTANGO ZAPOREAK

«Bizirauteko iniziatibak sortu behar ditugu»

Altzuartaren irudiko, «landa eremuek bizirautea nahi badugu geronek iniziatibak sortu bertze erremediorik ez dugu, gure errealitatea gure ezagutzen dugulako». Bide horretan, Arras Baztan «urratsa» dela dio. «Auzolanaren kultura hartu eta elkarte guztiek zerbait egin behar dugu garapen sozial, kultural eta ekonomikorako». Markaren eta berehalako emaitzen gainera, «lanean segitzearen garrantzia» eta «sortu den egitura, fundazioa» nabarmendu ditu.

1936ko gerrako biktimak omenduko dituzte igandean

11:00etan Argaitzeko harrobian egingen dituzte ekitaldiak eta eguerdian Herriko Etxeko plazan

TTIPI-TTAPA

Aitzineko alean aipatu bezala, igande honetan 1936ko gerrako biktimei omenaldia eskainiko zaie. 11:00etan Argaitzeko harrobian lore eskaintza, murala, musika (Petti) eta informazio panelaren aurkezpena egingen dute. 1936ko irailetik 1937ko urtarrilera 130 lagun baino gehiago fusilatu zituzten harrobian, Nafarroan fusilatu gehien izan ziren lekua toki memorialistiko izendatzea espero du Udalak.

Harrobitik herrira, bidean dauden ikur frankistak kenduz

eginen dute ibilbidea. 12:00etan Herriko Etxeko plazan, Donamariako Mikel Iriartek egingandako oroitarri baten inaugurazioa egingen dute, ohorezko aureskua dantzatuko zaie omenduei eta Berako abesbatzak ere emanaldia eskainiko du. Nafarroako Gobernu eta udaleko ordezkariak hartuko dute hitza, baita errepre-saliatu senideek ere.

Nolabait, bestetako txupinazoan egin zitzaien omenaldiaren segida izanen da igandekoa, baina gehiago ere izanen direla iragarri dute.

Santa Zezilia kontzertua eta azken antzerkiak

Santa Zezilia kontzertua eskainiko du Isidoro Fagoaga Musika Eskolak azaroaren 19an, astelehenean 18:00etan Musika Eskolan. Bertzetik, XX. Kafe-Antzerki Zikloko azken bi emanaldiak izanen dira 23an Xugan (*Irripar Txou*) eta 30ean Errekalden (*Gudua*).

Medicus Mundi elkartearen eskutik bideo-foruma

Medicus Mundiren eskutik, gaur egun heziketa afektibosexualaren eredu eta esparru diren pornografia eta prostituzioa gaiak bideo-forum baten bidez aztertuko dira, baita emakumeen salerosketa ere. Azaroaren 23an, 18:30ean izanen da Beralandetan.



AITOR AROTZENA

Lurraren Eguneko gazta eta sagardo onenak

Gazta lehiaketan Pimitxeneko Eider Pikabeak eraman zuen lehen saria, Igantziko Argatagaraiko Elena Retegik bigarrena eta Garmendiko bordako Sokorro Almandozek hirugarrena. Sagardo lehiaketan, Lesakako Aialdeko Alberto Otxoteko eta Leku-Ederreko Guillermo Perugorria izan ziren saridunak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Azken agur hunkigarria Josu Goiri

Josu Goia Etxeberria hil zen azaroaren 3an, 71 urte zituela. Ezker abertzaleko kide historikoa izan zen eta Herri Batasunaren lehenengo Mahai Nazionalean parte hartu zuen. Herriko alkate eta zinegotzi izandakoa, kulturaren munduan ere aski ezaguna zen, musikan batez ere.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

FRANCOISE
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA URTE OSOAN
okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Eñaut & Nekane
Kanttonberri 12 • BERA
T. /Fax: 948 630 018

JAIONE-GOKOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

LESAKAKO FERIAK

2018

AZAROAK 21-22



Udazkeneko ferietako azken txanpa da eskualdean. Lesakan dute azken geldialdia, azaroaren 22an. Goizean aziendak, artisauek eta bertzelako makinariak ikusi eta erosi ahal izanen dira. Arratsaldean, berriz, urteroko pilota partidez gain, Arkupeak Elkarteak, Udalaren laguntzaz, antolaturiko pala txapelketa egokitua izanen dute. Egun handia ortzegunean izanagatik, asteazkenean ere izanen da mugimendurik: musikariek girotu eta sukaldariek goxatutako arratsaldea izanen dute.

asesoría
Emaitza
AHOLKULARITZA
Kontable · Fiskala · Laborala

ongi
pasa
feriak!

Eltzeta, 20 behea LESAKA | 948 638 077 | amaia@emaitza.eu

Aliprox

Zure eguneroko supermerkatua
Harategia, urdaitegia, arraindegia
frutategia eta behar duzun guztia!

Eltzeta 16 behea. LESAKA. ☎ 948 637 264

Harategia *Ongi pasa feriak!* Urdaitegia

JOXEMI

Eltzeta 16 behea LESAKA | T. 948 637 264 M. 609 068 520

Kantauri

ARRAINDEGIA
LONJAKO
ARRAINA

Ongi pasa feriak!

Eltzeta, 16 · LESAKA · T. 948 637 264 M. 666 212 099

TALLERES FRAIN

LESAKA · Tel.: 948 637 525

Ongi pasa feriak!

TRANSPORTES IRIGOYEN

ONGI PASA FERIAK!

629 592 215 · Biurrana auzoa, 1 · LESAKA

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

(0034) 948 63 54 58
www.kulturkari.com
Koskontako bidea, 7-1.
31770 LESAKA (Nafarroa)

ZOANSA

Ongi pasa feriak!

MARKA GUZTIEN KONPONKETA
MEKANIKA · ELEKTRIZITATEA · TXAPA · PINTURA
Tel.: 948 62 55 55 · Fax: 948 62 55 05
e-mail: zoansa@zoansa.com
Banarta, 2 · Alkaiaga Ind. · 31789 LESAKA (Nafarroa)

PITTIN!

haurrentzako arropa denda

T. 948 627 583 | Arretxea 20, Behea | LESAKA

IÑAKI JANARIDENDA
- ONGI PASA FERIAK -



Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

ONGI PASA FERIEGAN!

bortz zrud

INPRENTA - KOPISTEGIA

948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
Hamisetak / oparitzeko artikuluak

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA

«Ongi pasa feriak!»

Arratzubi Kalea 3 LESAKA
T. 948 63 71 27



XAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBURU EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE



feria alai eta
pozgarriak
izan ditzazuela

Plaza Zaharra • LESAKA • 948 63 72 87



Joseba LASA
Lesakako gaztea (ezkerretik hasita hirugarrena)

«Gurpil-aulkiak nahi izanez gero gauzak egin daitezkeela erakutsi dit»

2014ko urtarrilaren 20an «lanetik bueltan» zetorrela Beran istripua izan zuen Joseba Lasak: «euria ari zuen, egun iluna zen eta errepidean gasoila zegoen. Kotxearen kontrola galdu eta zubitik beheiti erori nintzen. Bakarrik nindoan eta eskerrak». Ordutik gurpil-aulkian ibiltzen da hogeita hamasei urteko lesakar gaztea.

FAMILIAREN ETA LAGUNEN SUSTENGUA

Hasiera bereziki «gogorra» izan zitaion: «zutik jartzeko modurik izanen ez nuela onartzea zaila izan zen, arazo aunitz nituen eta horri guztiari aurre egiteko nahiko lan...». Ez dira gutti izan eman dituen bueltak, ezta gainditu beharreko oztopoak ere. Istripua izan eta «berehala» Donostiako ospitalean izan zen, hortik

«Bilboko Gurutzetara» bidali zuten eta «sei hilabeteren buruan» Ubarminera joan zen: «errehabilitazioa egin nuen eta ordutik bizitza normala egiten dut». Bizimodua errotik aldatu zitaion negu hartan. Izoztuta ditu oroitzapenak, eta «ia bortz urte» pasa badira ere, oraindik «zaila» egiten zaio gibelera egin eta oroitzea; «gogorra» oroituta kontatzea. Bide malkartsu horretan «familia eta lagunak» sustengua ezinbertzekoa izan zaio: «beti hor egon izan dira eta hor egoten segitzen dute. Hori estimatzekoa da»..

NAHI BADA, AHAL DA

Gaur egun, «animotsu eta indartsu» sentitzen da, eta egunerokoan ez du laguntzarik behar: «herria eta ingurua, zorionez, nahiko ongi moldatuta dago gurpil-aulkian ibiltzeko, noski, beti bada hobetzerik baina...». Etxean ere «sukaldea, komuna eta egongela egokitu behar izan zituen eta hasieran izebarekin egiten zituen bidaiak ere bukatu dira: «orain autoa gidatzen dut». Horri esker,

ORTZEGUNA, FERIA EGUNA

Goizean artisauek eta azienak hartuko dituzten plaza bazterrak. Eguerdia arte, Baztango Gaiteroak karrizak karrizka ibiliko dira. 11:00etan herri-kirol erakustaldia izanen dute, plazan. Ondotik, bertsoak izanen dira entzungai. Azienak lehiaketako sariak banatuta, mahai-inguruan bilduko dira herritarrak. 17:00etan pilota partidak izanen dira pilotalekuan. Lau eta erdian Urretabizkaia II.a eta Aranguren; eta Arteaga II.a eta Eskiroz ariko dira aurrez aurre. Berrikuntza gisa, aurten gurgildun aulkikoen arteko pala txapelketa jokatu dute: Asier Nabaridas eta Joseba Lasa Beñat Lizaso eta Jesus Matarranzen aurka ariko dira, Mikel Serrabi entrenatzailea epaile dutela. Eguna borobiltzeko, dantzaldia izanen da Oharkabe taldearen eskutik.



«gauzak bakarrik egiteko gai naiz. Denbora gehiago behar izaten dut, baina egin ditzaket». Areago, etxeko lanak egiteko amaren laguntza izaten badu ere, «bakarrik» bizi da: «ez da gauza bera, baina nahi izanez gero gauzak egin daitezkeela erakutsi dit gurril-aulkiak». Batean «lagunekin gelditzeko» eta bertzean «igeri egiteko edo palan aritzeko» aprobetxatzen ditu tarte libreak. Kirol mundurako urratsa 2016an eman zuen: «Kemen elkartera, pertsona ezinduen kirol elkartera, jo nuen zituzten eskaintzak ezagutzeko». Erreterian palan jokatzeko aukera bazela ikusirik, «izena eman eta probatzeko pausoa ematea» erabaki zuen. Probatu bazuen probatu, «gustura aski» aritzen da gaur egun.

ENTRENAMENDUETATIK TXAPELKETARA

Mindara elkartearen eskutik, «astean hirutan» izaten dituzte entrenamenduak: «astelehenetan Asier Nabaridas sunbildarra eta biek aritzen gara Erreterian; astearte eta ortziraletan, berriz, lauzpabortzizatengara eta Aginagan eta Lasarten biltzen gara, hurrenez hurren». Horrek «deskonektatzeko eta burua bertze gauza batzuetan izateko» bide emateaz gain, «lagun gehiago egiteko eta harremantzeko» aukera ere eskaini dionez, kirola gustuko duen eta ezindua den «edonor» animatuko luke: «probatzeko nire aulkia utziko nioke». Aurtengo udan, «uztailaren 7an eta 8an» jokatu du lehendabiziko txapelketa: «Asteasun egin zen pala egokituko

«Deitzen diguten tokietara joateko prest gaude, gustura aritzen gara eta»

txapelketan izan ginen». Federaziotik deitu ziguten, eta «kontent hartu genuen deia». Guztira «zortzi bikote» elkartu ziren. «Laugarren» sailkatu ziren Lasa eta Nabaridas, baina horren gainera, izandako «esperientzia ederra» nabarmendu nahi izan du: «hagitz polita izan zen, deitzen diguten tokietara joan gara, gustura aritzen gara eta».

AITZINERA EGITEKO GOGOTSU

Udakoaren ondotik, gehiago nahi zutenez, «lau lagun bildu» eta «herrietako pilotalekuetara zabaltzeko ideia» partekatuta, Udaleria jo zuen Lasak. Udaletxean «hasieratik» baiezkoa jaso zuen. Udalak onetsita, «Santi Oartzabalekin, Arkupeakeko presidentearekin solastatu nuen». Horrela bada, baten eta bertzearen laguntzarekin, «aitzineria eramatea» lortu dute. Asier Nabaridasekin bikote eginda, Beñat Lizaso eta Jesus Matarranzen aurka ariko dira.

Guztia ferietako ikuskizunera lerratu gabe, «segida izatea» gustatuko litzaioke lesakar gazteari. Hortaz, harri batez bi kolpe eman nahi izan ditu: «bide batez, Arkupeak elkarteko kirol egunean ere ari gintezkeela proposatu nion». Ordurako kontu batzuk «lotzeke» badaude ere, «asmoa eta gogoia» izan badela argitu digu: «sanferminen aitzineko asteburuan izanen litzateke».



BEZPERAN AJOARRIERO TXAPELKETA

Hitzordu nagusia ortzegunean, azaroaren 22an, badute ere, bezperan ere, izanen dute mugimendurik. Urtero bezala, Beti Gazte elkartearen eskutik, ajoarriero lehiaketa eta dastaketa izanen dute Beheko Plazan (euria ari nadu Alondegiko arkupeetan), 18:00etan. Bikoteka prestatuko dute eta bai bakailoa baita hori prestatzeko beharrezko tresneria ere, parte-hartzaileek eraman beharko dituzte. Dena dela, elkarreak 40na euro emanen dizkie parte hartzen duten bikoteei. Ordu berean herriko trikitilari taldeak girotuko ditu karrikak. Aitzinetik, 17:00etan, Lesakako Musika Eskolak antolatutako kontzertua izanen dute, Harriondoan.

ongi pasa feriak!

IZARRA OKINDEGIA

PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

Dia % Ferietan otordu goxoak prestatzeko

LESAKA LESAKAKO DIA

Plaza Berria, 10 · 948 637 335

urtek
water technologies - uren tratamenduak

POTABILIZAZIOA, DESMINERALIZAZIOA, DESKALTIFIKAZIOA, OSMOSIA, FILTRAZIOA, BERRERABILPENA, DEPURAZIOA, INSTALAZIOEN MANTENUA.

T. 948 638 188 | urtek@urtek.org | www.urtek.org

ITURBENA
ONGI PASA FERIAK
kafetegia

Koskontako bidea 5, behea - LESAKA

kattagorria

BASERRITAR JANTZIEN KOLEKZIO BERRIAN ESKAINTZA HANDIA

FERIETAN EGUN OSOAN ZABALIK

BEHEKO PLAZA 10. LESAKA · 948 627 514
WWW.KATTAGORRIA.COM

f @

Tonbola eta Haurraren Eguna prest astebururako

Lesakako Zerbitzuen Elkarteak eta Irain eskolako eta Tantirumairu ikastolako guraso elkarteek antolatutako ekitaldiak dira

AITOR AROTZENA

Lesakako Zerbitzuen Elkartearen eskutik, Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz tonbola egingen dute azaroaren 17an, larunbatean 19:00etan Plaza Zaharrean. Txartelak elkarteak komertzioetan erosketa egiterakoan eskuratzen ari dira bezeroak eta saria jasotzeko zozketan bertan egon beharko dute.

Igandean, berriz, Irain eskolako eta Tantirumairu ikastolako guraso elkarteek antolatutako Haurraren Eguna ospatuko dute. Goizean puz-



Goxo-goxo saioetako bat ikastolan.

garriak eta jokoak izanen dituzte eta arratsaldean, DJ Porru eta berendua.

Ikastolan, Goxo-goxo saioekin ere ari dira hamabortzero. Azaroaren 27an psikomotrizitatea landuko dute (10:45etik 12:15era).

Musika kontuak Santa Zezilia egunaren inguruan

Santa Zezilia egunaren aitza-kian, Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute azaroaren 21ean, asteazkenean 17:00etan Harriondoan. Hilaren 23an eta 24an, berriz, musika taldeen kontzertuak egingen dituzte, Santa Zezilia Batzordeak antolatuta.

Zinema hileko azken igandetan Harriondoan

Tantirumairu Guraso Elkarteak antolatuta zinema arratsaldeak hasi dira Harriondoa Kultur Etxean, hilabeteko azken igandean. Azaroaren 25ean *Pixi Post* filma eskainiko dute 16:30ean (3-10 urtekoentzat) eta *Egunsentia* 18:00etan (10 urtetik goitikoentzat).



AITOR AROTZENA

San Fermin elkartearen egunean omenduak

San Fermin elkartearen egunean omendu zituzten Bautista Huizi eta Asuncion Lopez (60 urte ezkondurik), Jose Antonio Lorenzo eta Ramonita Apeztegia eta Lucio Sanz eta Maria Santos Ortega (50 urte ezkondurik) eta Jesus Legasa eta Ana Mari Telletxea (85 urte bete dituzte).



UTZITAKO ARGAZKIA

Irain eskolak eTwinning kalitate-zigilua

Nafarroako bertze zortzi ikastetxerekin batera, Irain Eskola Publikoak 2017-2018 ikasturtean burututako eTwinning proiektu bati lotuta kalitate-zigilu europarra jaso du. Proiektuan LHko 5. eta 6. mailako ikasleek parte hartu zuten, ingeleseko bi irakasleekin eta IKTko irakaslearekin batera.

salomon

THE NORTH FACE

LA SPORTIVA

MILLET

Timberland

TERNUA

NIKE

asics

Deskontua %50 1000 artikulu baino gehiagotan

maspormenos
axular

Merkataritza-Parkea | 1. solairua | Dantxarinea
www.maspormenos.net

Beharrean daudenei laguntzeko janari bilketa egingen dute

Aurten diruz ere lagundu daitekeela ohartarazi du Parrokiko juntak, azaroaren 23ra bitarte

IRUNE ELIZAGOIEN

Parrokiako juntak antolatuta, aurten ere janari bilketa egingen da beharrean daudenei laguntzeko. Azaroaren 16tik 23ra bitarte herriko janari dendan utzi daiteke janaria edo azaroaren 22an 18:00etatik 19:00etara eta azaroaren 23an 11:00etatik 12:00etara Elizako atarian entregatu.

Aurten, berrikuntza bezala, nahi duenak diruz ere lagun dezake. Etxeetara gutunazalak banatuko dituzte prozesu hau azalduz eta nahi duenak bertan ekarpena egiteko. Gutu-



Janari-bilketa, duela lau urte.

nazal horiek Erretorenean entregatu behar dira azaroaren 23a baino lehen.

Euskaraldiko tailerra azaroaren 15ean

Etxalarren azaroaren 15ean, ortzegunean 18:00etan kultur etxean izanen da Euskaraldia- ren barruan Ahobizi eta Belarriprest izan behar dutenentzako tailerra. Ordu bateko iraupena izanen du eta ondotik Euskaraldian izena emateko aukera izanen da.

Altzarien zaharberritze ikastaroa

Larraburua elkarteak antolatuta, altzarien zaharberritze ikastaroa izanen da abenduaren 1ean hasita. Tailerra Noék eskainiko du larunbatetan 16:00etatik 19:00etara (8klase). Izena emateko 948 635 166 edo 664 387 343ra deitu behar da (100 euro, materiala barne).



JOSE MARI TELLETXEA

Usategietako sasoia

Azaro hasierarako 60 dozena pasata harrapatuak zituzten Usategietan. Bertze usategiekin konparatuz, laugarren postuan dago sailkapenean (azaroaren 3ra arteko datuak). Bisitari aldetik berriz, 230 bat lagunek egin dute bisita orain arte, eta eskaintako egun guztietan atera da taldea.



IRUNE ELIZAGOIEN

Hilerrria lorez apaindua

Azaroaren 1a Santu Guztien Eguna izanik, urteroko ohitura jarraituz, jendeak hilerrira bisita egin zuen beraien ondotik joandakoak oroitzuz lore eskaintza egitera. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere jende aunitz pasatu zen hilerritik eta lorez apaindua gelditu zen bertze urte batez ere.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

ETXALAR
HOTEL-VENTA

*lagunortu, familia,
kintu besta...*

**OSPAKIZUN GUZTIETARA
EGOKITZEN GARA**

ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

La Villa hartzeko enkantea ireki du berriz Udalak

Heldu den urteko bestak pasatu arte alokatzeko asmoa dute eta azaroaren 19rako aurkeztu behar dira eskariak

TTIPI-TTAPA

La Villa jatetxea eta ostata hartzeko Herriko Etxeak ireki duen enkante berriaren epea akautzeko egun batzuk bertzerik ez dira falta. Alokatzeko saiakera egin zuten irailean, baina lortu ere, baina sanmigel bestak pasatu orduko uztea erabaki zuten errentan hartu zutenek.

Beraz, hutsik dago orain Elizatea eta hartzeko asmoa dutenek azaroaren 19rako aurkeztu beharko dituzte es-



Berriz ere enkantean jarri dute.

kariak Herriko Etxean. Hasiera batean heldu den urteko bestak pasatu arte alokatzeko asmoa daukate.

Biziprest tailerra azaroaren 16an egingen dute, Euskaraldirako trebatzeko

TTIPI-TTAPA

Azken hilabeteotan Euskaraldiarekin goiti eta beheiti ibili ondotik, hurbiltzen ari da asmo hori praktikara eramateko tenorea. Hasteko, Biziprest tailerra eskainiko da Elizatean, azaroaren 16an, ortziralarekin, 18:00etan (ordu bat iraunen du). Tailer horretan Ahobizi edo Biziprest rola aukeratu

dutenek modu praktikoan ikusi ahal izanen dute nola jokatu behar duten.

Izen-ematea zabalik egonen da azaroaren 22ra arte. Tailer hori egingen den egunean ize-na ematen ahalko da, baita euskara batzordeko edozein kiderekin harremanetan jarriz edo internetez ere: izenematea.euskaraldia.eus



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskolako haurren auzolana

Urriaren 24an aritu ziren eskolako LHko ikasleak auzolanean. Trenbide inguruko bazterrak garbitzen aritu ziren, bertako plastikoak eta gaineko zaborra biltzen, Onbordi ingurutik hasi eta Sunbillako mugara bitartean. Haur Hezkuntzakoak, bitartean, herri ingurua txunkunduz pasatu zuten eguna.



OSKAR TXOPERENA

Sutarako egurra eskatzeko garaia

Herriko Etxeak sutarako egur loteak eskatzeko epea ireki du. 2015ean Berrizaun inguruan hasitako suteak hondatutako zuhaitzak botako dituzte, iaz bezalaxe, behean hasi eta Juanjeronimoren bordara arte. Eskaera egiteko azken eguna azaroaren 30a izanen da.

Foto: Pressfoto - Freepik.com

caser
residencial

Zure ondoan,
gehien behar duzunean

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak
- Familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak, 365 egunetan irekita Pirineoko Atlantikoko departamentuarekin hitzartua (APA diru laguntza)
- Babespeko apartamentuak

www.caserresidencial.es



Denetarik produktuak atera zituzten herritarrek frontoira. ESTITXU IPARRAGIRRE

Otsarrako gaztak irabazi du lehenbiziko saria

Zazpi gazta aurkeztu ziren Kultur Egunak borobildu zituen XXIII. Baserritarren Egunean

NEREA ALTZURI

Udazkena ailegatu orduko, kultur ekimenak antolatzen dira herrian eta aldi honetan, urriko hondar asteburuko jarduerak eta azaroaren 1ean izandako Baserritarren Egunak osatu dute kulturaldia. Negu giroa bat-batean ailegatu zen eta barrenean aritzeko ekimenak antolatu zituzten Ekaitzak eta Guraso elkarteak.

Urriaren 27an, partxis eta mus txapelketak izan ziren Ekaitza Elkartean. Partxisean, Enaut San Juan eta Xuban Taberna izan ziren garaile eta txapeldunorde Maddi Leiza eta Larraitz Almandoz. Bi bikoteek Irrisarri Landeko sarre-askuratu zituzten.

Mus txapelketan, Jesus Mitxelena eta Luis Almandozek osaturiko bikoteak irabazi zuen eta oilaskoa eta gazta eraman zituzten; bigarren, Markel Jorajuria eta Andoni Mitxelena izan ziren eta oilaskoa eta ardoa eraman zituzten; hirugarren Imanol Lukanbio eta Unai Iparragirre gelditu ziren eta gazta eta ardoa jaso zituzten.

Urriaren 28an, Guraso Elkarteak antolatuta, merienda

egin zen eta ondotik, Birbira taldearekin, birziklapen tailerra. Guraso eta haur multzoa bildu zen eskolan eta etxetik eramandako kaxa, pote eta bertzelakoekin, eskulan eta jostailu politak egin zituzten.

Baserritarren Eguna

Ekaitza Elkartearren ekimenez, XXIII. Baserritarren Eguna egin zen azaroaren 1ean. Bertze urtez batez, herritarren barazki, fruitu, gozoki, zerriki, talo, eskulan, animalia... denetarik izan zen. Guztira, 20 bat erakusketa eta salmenta postu paratu zituzten.

Gazta lehiaketan, zazpi gazta aurkeztu ziren eta lehenbiziko saria Otsarrako gaztak eraman zuen (60 euro); bigarrena Serorenbordakoa izan zen (40 euro) eta hirugarrena Larau-burukobordako gazta (20 euro). Bertako produktuekin osatutako zarea Joxe Inaxio Ubiriri tokatu zitzaion.

Bertzalde, frontoiko ostatuan, eskolako irakasleak eta gurasoak aritu ziren lanean. Bildutako dirua eskolako patioan jolas batzuk egokitzeko erabiliko dute.

Egunak hurbildu ahala, Euskaraldian izena ematen ari dira herritarrak

N. ALTZURI

Dakizuen bezala, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, *Euskaraldia 11 egun euskaraz* ekimena izanen da Euskal Herrian, euskal hiztunen hizkuntza ohituratan eragin eta haien arteko harreman sareetan euskara gehiago erabiltzeko helburuarekin. Orain izena emateko garaia da eta herritarrak ere ari dira Euskaraldian izena ematen, Ahobizi edo Belarriprest rolak hartuz. Baserritarren Egunean frontoian paratutako mahaian, bulkaldi ederra hartu zuen Euskaraldiak Arantzán, aunitz izan baitziren ekimenaren berri izan eta izena eman zuten herritarrak.

Geroztik aukera gehiago ere izan dira. Joan den astean, erraterako, izena emateko mahaia paratu zituzten eskolako patioan, kooperatiba



Herritarrak Euskaraldian izena ematen.

atarian eta eliz-atarian. Hala ere, oraindik norbaitek izenik eman ez baldin badu, horretarako aukera izanen du: Internet bitartez, *www.euskaraldia.eus* atarian edo papelean, Herriko Etxean, Euskara Zerbitzuan.

Bertzalde, Euskaraldiarekin lotuta, Biziprest tailerra egitekoa zen astearte honetan, Herriko Etxean. Horren ondotik ere izena emateko aukera eskaintzekoa zuten.

Emakumeenganako indarkeriaren aurka elkarretaratzea

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a, eta aurten ere aldarria karrikara ateratzeko aukera izanen dute herritarrek. Azaroaren 23an, Udalak deituta, elkarretaratzea egingen dute herriko plazan, 12:00etan.

Paris 365 Fundazioarentzat janari bilketa

Aurten bosgarren urtez, Paris 365 Fundazioarentzat janari bilketa antolatu dute. Azaroaren 23an kooperatiban jatekoa bilduko dute: 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Epe luzera irauten duten jatekoak eramateko eskatu dute.

Domisainduko zubian landetxeak beteta egon dira

%95eko okupazioa izan dute eskualdean, estatu osoko handiena den Nafarroako banaz bertzekoaren gainetik

TTIPI-TTAPA

Azken urtetako joerari eutsita, Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoko landetxe, kanpin, hotel eta establezimenduak oro har beteta egon dira Domisainduko asteburuan, %95eko okupazioarekin. Datu hori lagungarri da, dudarik gabe, Nafarroa landa turismo-ko okupazio datuetan lider izateko.

Datuak datu, %85,29koa izan da Nafarroako landa turismo-ko okupazio tasa Domisainduko zubi honetan; Espainiar estatuko banaz bertzeko %51,31koa den bitartean.

Jatorria eta helburua

Bisitari gehienak Herrialde Katalanetatik (Bartzelona, eta Valentziatik) eta Madriletik (Espainia) etorri dira, baita hurbilagotik ere (Euskal Herriko bertze herrialdeatik edo Errioxa eta Aragoitik etorriak). Familian datozen bisitariak izan dira gehienak, baina badago bikotearekin edo lagunekin heldu denik ere, eta gehienek lasaitasuna bilatzen dute.

Alojamendua aurkitu ez baina gertutik egun-pasa etorri denik ere egon da eta zentzu honetan lagungarri izan da Belateko tunelak berriz ere zabalduta izana.

Baztan-Bidasoko erakargarri nagusietako bat paisaia



Arizkungo Landaberroa landetxea.

dugu eta honek edertasun handiagoa izaten du udazkenean, basoak eta zuhaitzak gorri eta urre kolorez janzten direnean. Baina paisaia esperimentzia ugarirekin osatzeko aukera du bisitariak. Baztan-Bidasoa Turismoak bisita gidatuen eskaintza zabala du: bisita gastronomikoak, gasna, taloak eta txistorra nola egiten diren bertatik bertara ikusteko, itzuliak herrietan barna, lezeak, errota, abentura parkeak... Ongi jan eta edatea ere garrantzitsua da, eta XXVI. Ehiza Jardunaldi Gastronomikoak martxan dira azaroa bukaera bitarte eskualdeko bederatzi jatetxetan. Aurten, zenbait ostaturak ere bat egin dute ekimenarekin eta ehiza pintxoak eskaintzen dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Koldo Herrera Ororbiako podioan

Azaroaren 4an, Sparta Sport Center taldearekin ari den Koldo Herrera Urroz herriko txirrindulariak, Diario de Navarrako mendi bizikleta openeko azken aitzineko lasterketan podiumera igotzea lortu zuen, kadete mailako hirugarren postua eskuratu baitzuen Ororbian. Zorionak.



IZARO ALTZURI

Dantza taldearen ikasturte berria

Urriko dantza jaialdiaren ondotik, deskantsu edo atsedendaldi tiki bat izan dute herriko dantzariak eta, berriz ere, ikasturte berria gustura eta gogoz hasi dute. Lehenik dantza taldeak eskaintako berendu goxo batez gozatzeko aukera izan zuten, argazkian ageri denez.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

LIZUN
GAZTANDEGIA
Sunbilla · Tel: 948 450 862



Azaroaren 23an, 12:00etan elkarrateratzea egingen dute biribilgunean.

Bertso literarioak azaroaren 18an zineman

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi egingen dira

MARGA ERDOZAIN

Azken orduko gorabeherak tarteko, azaroaren 11rako aurreikusia zen bertso literarioen saioa hilaren 18ra gibeleratu du Udalak. 18:30ean izanen da. Dani Martirenaren kontaketa eta Julio Soto eta Uxue Alberdi bertsoek girotuko dute zinema.

Azaroaren 30ean 'Volar' filma
Hilaren 25ean izanen den Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, bertze hainbat ekitaldi izanen dituzte herrian. Azaroaren 23an, or-

tziralean, 12:00etan, eskola ondoko biribilgunean elkarrateratzea egingen dute. Hilaren 30ean, hondarreko ortziraletan, berriz, *Volar* filma ikusteko aukera izanen da zineman, 19:00etan. Ondotik, protagonisten lekukotasunen txanda izanen da.

Antzerkia

Bien bitartean, azaroaren 26an, klima aldaketari buruz hausnarrarazteko, *Edo kasu egiten didate, edo banoa* antzezlan eskainiko dute. Trokolo antzerki taldearen eskutik, 15:00etan hasiko da emanaldia.

IKTen erabilerari buruzko solasaldia gurasoekin

Azaroaren 22an IKTen erabilerara zuzurra, osasuntsua eta arduratsua sustatzeko, seme-alabak nerabezaroan dituzten gurasoentzako hitzaldia izanen da Mendaurren institutuan. 17:00etatik 19:00etara bilduko dira eta bereziki sare sozialak izanen dituzte hizpide.

Herrigune Historikoko Plan Bereziak bilkura

Udalak urriaren 31n eginiko bilkuran Herrigune Historikoko Plan Bereziari behin-behineko onespena eman zion. Buletinean argitaratzen denetik herritarrek alegazioak aurkezteko hilabeteko epea izanen dutela jakinarazi nahi izan dute.

N-121-A errepidearen inguruko mozioa onartu du Udalak

MARGA ERDOZAIN

Urriaren 31ko bilkuran N-121-A errepidearen inguruko mozioa onartu zuen Udalak. Horrela bada, Gobernuari merkantzien garraioa bide alternatiboetatik bideratzeko eskaera egin diote. Idatzian azken lau urteetan ibilgailu astunen kopurua %50a handitu dela adierazi dute (A-15eko bide-sarien ginkostuagatik); areago, horietatik %70ak nazioarteko ibilbidea egiten dutela gaineratuz. Gisa berean, larrialdi zerbitzuen eraginkortasun eza eta arriskua azpi-



Urtebetean hamar hil dira.

marratu nahi izan dute, 2017ko apiriletik 2018ko apirilera 10 hildako izan direla adieraziz. Horrekin guztiarekin, Gobernuari neurriak hartzeko eskatu diete.



UTZITAKO ARGAZKIA

Futbol Taldea Euskaraldiarekin bat

Euskaraldia ekimena tantaka-tantaka Ahobizi eta Belarriprestak erakartzen ari da. Elkarrekin, erakundeak, norbanakoak... ariketa zabaltzen ari dira. Doneztebe Futbol Taldeak ere ekarpena egin du. Hamaika puntu, hamaika partida eta hamaika helburu... Baietz hamaika gol sartu!

Korrikalarien taldea ortzegunero bilduko da kiroldegian

Aurten ere emakume korrikalarien taldea osatu dute. Azaroaren 8an hasi zituzten saioak eta ortzegunero, 20:00etan kiroldegian bilduko dira. Kirola egitea «gustuko» duten emakumezkoen parte hartzekeo deia luzatu die Errekak Kirol Taldeak.

Eguberrietako saskia eskuratzeko txartelak salgai

Urtero bezala, aurten ere, Erreka Kirol Elkarrekin Eguberrietan saskia zozketatuko du. Zozketa-txartelak herriko dendetan edo elkarteetako kideren bati eskatuz eros daitezke. Zozketa abenduaren 20an egingen dute, 20:00etan, elkarrekin egingo dute.



Estalpean eginen dute merienda-afaria. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Talo jatea eginen dute azaroaren 30ean estalpean

Azaroaren 25era arte eman daiteke izena Herriko Ostatuan bost eurotan

FERMIN ETXEKOLONEA

Txixillu guraso elkartearen eskutik azaroaren 30ean, honddarreko ostiralean, merienda-afaria eginen dute herriko estalpean. 18:00etan dute hitzordua.

Nahi duenak Herriko Ostatuan edo Uxoa edo Eva Elizalderenekin harremanetan jarri

eman dezake izena eta bost euro (taloak eta edaria barne) ordaindu beharko ditu. Azaroaren 25a, igandea, arteko epea izanen da.

Guraso elkartetik jakinarazi dutenez, epez kanpo ezin izanen da izenik eman, eta, modu berean, apuntatu ondotik ez dute dirurik itzuliko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gimnasia txokoa paratu dute landan

Udalak helduek ariketak egin ahal izateko txokoa paratu du landan, hondakin-uren araztegiaren ondoan. Argazkian ikusten diren hiru jardueren bidez, eskuak eta hankak mugiarazteko eta osasuntsuak diren ariketak egiteko parada izanen dute herrian bertan.

Naroa Elizalde finalerdietan sartzeko lehiatuko da larunbatean

F. ETXEKOLONEA

Guztira 141 partida jokatu dituzte Master Cup txapelketaren lau eta erdiko edizioan, eta dagoeneko, Master Cup txapelketako lau eta erdiko finalerdietan jokatzeko lehiatuko diren sei jokalariak zehaztuak dira. Tartean izanen da Naroa Elizalde, Ohiana Orbeagozo, Amaia Aldai, Araitx Ezaguirre, Maddi Unanue eta Naroa Agirrerekin batera. Izan ere, Gordexolan jokatu zituzten 3. kanporaketetan 18-8 eta 9-18 irabaztea lortu zuen zubiarrak.



Gordexolan jokaturako kanporaketan.

Azaroaren 17an, arratsaldean, Lemoako pilotalekuan erabakiko dira finalerdietarako sailkatuak. Finalerdiak abenduaren 2an izanen dira, Amezketako pilotalekuan.

Laster jakinen dute idazkari lanpostua nork beteko duen

Guztira bederatzi lagunek eman zuten izena eta horietako bik euskara proba egin behar izan zuten azaroaren 9an, Euskarabidean. Horren ondotik, ordea, azaroaren 14an, asteazkenean, oposaketak (proba teoriko eta praktikoa) egitekoak zituzten, Iruñean, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan. Orain probak aztertu eta emaitzak zehaztekoak dituzte. Hori egin bezain laster jakinen da nor izanen den Zubieta eta Iturrengo Udalen Elkartzeko idazkaria hemendik aurrera.

Zubietatik Australiara, ingelesa hobetzeko lanera

Manex Ormazabal Australiara joan da. Ingelesa hobetu eta lan egiteko asmoz eginen du joan-etorria. Hilaren 8an hartu zuen hegazkina eta ekaina bitarte egoteko asmoa du.

Emakumeen indarkeriaren aurkako keinuak

Hilaren 25eko adierazpena onartu eta matxismoaren aurkako mezua duen olana zintzilikatuko dut Udalak.

BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak,
lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

PINARELLO

ORBEA CONDA SCOTT BH GIANT LIV MERIDA

'Bakarketetan' ikuskizuna azaroaren 25ean

Azaroko azken igandean 18:00etan dute hitzordua eta udaletxeko ganbaran bilduko dira


ARKAITZ MINDEGIA

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte eskualdean. Donezteben, erraterako, azaroaren 23an 12:00etan eskolako biribilgunean bilduko dira eta elkarretaratzea egingen dute; hilaren 30ean, berriz, *Volar* filma izanen da ikusgai, zineman eta ondotik solasaldian bilduko dira.

Bien bitartean, azaroaren 25ean, *Bakarketetan* (*Me lo hago sola*) ikuskizunaz, Adriana Olmedoren lanaz, gozatze-ko parada izanen dute herrian. 18:00etan, udaletxeko ganbaran eskainiko dute.

Laburpena

Adriana Olmedok sorturiko helduentzako (hamabi urtetik goitikoentzat) ipuin-kontaketa



Kartela.

ta da *Bakarketetan*, ordubete eta hamabortz minutuko iraupena duena. Zortzi solairutako eraikin batean kokatua da eta emakumezko bat, Manuela, da kontaketa ardatza. Manuelaren larruazalaren usaina, musuen zaporea, eskuen ukimena... Zentzumenak dira kontaketarako gako.

Inauteriak antolatzeko bilera egin dute

Urriaren 28an herriko gazteak bildu eta inauteriak «mamitzen hasteko» bilera egin zuten. Hainbat izan ziren landu zituzten gaiak. Bertzeak bertze, sukaldariak eta erosketak, musikariak eta kontuen eguna izan zituzten hizpide; eta bide batez, aurtengo inauterien balorazioa egiteko baliatu zuten bilkura. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ondorengo egunetan hartutako erabakien berri emateko eta herri-tarrei beharrezko informazioa helarazteko, etxex etxe oharra banatuko dute.



SAIOA ZELAIETA

Ororbian ere emaitza onak lortu ditu Seinek

Azaroaren 4an Ororbian jokatu zuten Diario de Navarra Openeko azkenaurreko lasterketan 23 urtez azpikoetan bigarren eta sailkapen nagusian zazpigarren izan zen iturendar gaztea.

Pulunpa eskolan Skolae programa txertatu da

Eskualdeko bertze eskoletan bezala, Pulunpa eskolan ere Skolae programa txertatu da. Oraindik formakuntzan badabilta ere, laster, programaren bidez, berdintasuna eta errespetua lantzen hasiko dira. Hala, ikasleei berdintasunean bizitzen irakatsi nahi diete.

Kirol eskaintza ganbaran astearte eta ortzegunetan

Jaione Arnal irakasle dutela, 20:00etan ganbaran biltzen dira. Asteartetan intentsitate handiko ariketak egiten dituzte eta ortzegunetan, berriz, indarra lantzen dute. Ordu-betez probatzeko aukera ere eskaintzen du, ortzegunetan, 20:30ean.

Asteleheneetik ortziralera:
07:15etik aitzinera

Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera

LABE ZAR

948 631 076 • BERA

BORDALARRA

Cure Haragia
Nuestro Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

744 484 361

ttipi-ttapa

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

josta mend

jostailuak

Merry Christmas

TOY PLANET

Munduko jostailu guztiak

Jostamendi Toy Planet
Letxunborro etorbidea, 86 Irun. 943457510
Artaleku kalea, 3 Irun. 943638223
Prim kalea, 59 Donostia. 943455300
Karmelo Etxegarai kalea, 2 Donostia. 943227910
Online denda: www.toyplanet.es

MALERREKA

Errespetuzko harremanen aldeko kanpaina egingen da

Mankomunitateko hamahiru udalerritan olanak jarriko dituzte eta zenbait ekitaldi antolatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten 13 udalerririk *Malerreka errespetuzko harremanen alde* -Eraso matxistarik ez leloa daukaten olanak estreinatuko dituzte azaroaren 25ean, Nazioarteko Emakumeenganako Indarkeria Aurkako egunaren harira.

Udaletxeetako balkoitik zintzilikatuko diren olana horiek bi helburu barne hartzen ditu bereziki. Alde batetik, biztanleria eraso matxisten aurkako borrokan inplikatzeko eta kontzientziatzeko eta, bertzetik, aniztasuna onartzen duen eta errespetuan oinarritzen den eskualde bateko aldarrikapena egitea.

Hain zuzen, irudi hori azaroaren 25ean ez ezik, martxoaren 8ko Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean eta herri bakoitzeko inauterietan eta bestetan jartzeko asmoa dute.

Bertzalde, Prebentzio Batzordeak eraso bat jasan edo ikusiz gero eman beharreko pausoak zehazten dituen kartel batzuk ere diseinatu ditu.

Kartelean bertan, kontakturako telefono batzuk ezarri dira, egoera bakoitzaren aitzinean nora jo daitekeen argitzeko lagungarria izanzen delakoan: 112 arreta protokoloa eta larrialdietarako; 948 581864 (Foruzaingoa, salaketa judizialerako) eta 638 529785 (Prebentzio Batzordea, salaketa sozialerako).

Ekitaldiak


Malerrekan antolatu diren ekitaldien harira, aipagarriena azaroaren 23an (ostirala) egingen den elkarretaratze alaitua



13 udalerritan jarriko den mezua.

izanen da. Ekitaldia Doneztebeko biribilgunean egingen dute eguerdian eta indarkeria matxistaren aurkako aldarria egingen da. Bertzalde, Iturenen 15 urtetik gorako pertsonentzako *Bakarketetan* ikuskizuna ikusteko aukera izanen da, azaroaren 25ean bertan 18:00etan Udaletxeko Ganbaran. Azkenik, azaroaren 30ean *Indarkeria sexistei aurre egiten* tailerra izanen da 17:00etatik aurrera, Malerrekako Mankomunitatean, 18 urtetik goitiko emakumeei zuzendua. Bizipenak elkarbanatu, saretu eta elkarrekin autodefentsa tresna sortaileak eraikiko dituzte tailer honetan. Izena emateko Mankomunitateko telefonora deitu behar da (948 451 746) edo ssdoneztebe@malerreka.infolocal.org helbide elektronikora idatzi azaroaren 29a baino lehen. Tailerra doakoa izanen da eta euskaraz emanen da.

Aipatzekoa da azaroaren 9an tailer beretsua egin zela, 14-18 bitarteko neskei zuzendua.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mendaur institutua saritua

Doneztebeko Mendaur institutua saritua suertatu da lehen Wikilehiaketan. Wikipediarako euskarazko artikulak idatzi behar zituzten eta Mendaurko taldea (Naroa Lopez, Unai Solé, Eneko Maylin, Aimar Iribarren eta Oier Rodriguez) saritu dute 'Lehen sektorea' artikulua erantzituz.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ARIZTEGI

Leurtzako denboraldia akitu da

Denboraldia akitu berri da Leurtzako urtegiaren eta bertan ari ziren langileek lanera joateari utzi diote. Udan iaz baino auto guttiago etorri da, egun seinatuaren eguraldiak lagundu ez duelako. Hala ere, denboraldi guztia kontutan hartuta, kotxe kopuru bertsua zenbatu da, beraz, balorazioa ona izan da.

Gaur egungo ostatuko biltegian denda irekitzeko prestatzen ari dira Urrozen

JAIONE ARIZTEGI

Herri txikietan dendak ixten ari diren garai honetan, berri on bat dugu herrian, gaur egun ostatuko biltegia denean denda bat irekitzeko prestatzen ari baita Udala. Pozgarria da berri hau jasotzea, herriko

azken denda aspaldi itxi baitzen. Oraindik obretan hasi berriak dira, baina ea lehen baino lehen zerbitzuaz gozatzeko aukera duten. Dударik gabe, denok erabiltzen badugu, herria biziberrituko du denda horrek.

ERAI KUN TZA

2018

gehigarria



Miguelena



K O M U N A K

Etxetresnak
Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak

SUKALDEAK



T. 948 450 925
M. 677 525 292 • 677 525 324
Amezitia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE



AUZO-LAGUNEN KOMUNITATEAK

Igogailua instalatzeko eta inguratzaile termikoa hobetzeko diru-laguntzak



Apartamentu edo pisuetan sarbide-irteeretan traba arkitektonikoak kendu nahi direnean (berdin du igogailua jada baduen edo ez) edota, etxe osoaren kanpoko leiho, ate eta paretak eraberritu nahi direnean, kasu horietan bereziki, beharrezkoa da ongi begiratzea nolako diru-laguntzak dauden administrazioaren aldetik. Diru-laguntza eskaerak urte osoan sartzen ahal dira Nafarroako Gobernuan eta tramiteak bideratzeko bi bulego daude gure inguruan: Donezteben (Nasuvinsa) eta Leitzako Udalean Etxeak Zaharbertzako Bulegoan. Bi bulego horietan informazio zehatza ematen diete auzo-lagunen komunitateko ordezkarietara tramiteak nola egin azalduz.

Etxeko sarbide-irteeretako traba arkitektonikoak kentzeko edota efizientzia energetikoa irabazteko obrak aurrekontu handia izaten dute. Nafarroako Gobernuak baditu diru-laguntzak horrelako hobekuntzetan laguntzeko, urte osoan eskatzen ahal direnak. Diru-laguntzak aurrekontua babesgarriaren % 20 - 45 artekoak izan daitezke, kasuaren arabera. Informazio gehiago: www.etxebizitza.nafarroa.eus

BALDINTZAK OROKORRAK

- **Obra hasi baino lehenago** aurkeztu behar da laguntza eskaera.
- Eraikinak 25 urte baino gehiago izan behar ditu.
- Aurrekontu babesgarria, etxebizita bakoitzeko eta zergak kontatu gabe, 6.000 eurotik gorakoa izan behar du inguratzaile termikoa hobetzeko kasuetan eta 2.000 eurotik gorakoa traba arkitektonikoak kendu nahi diren kasuetan. Galdetu xehetasunak Nasuvinsan edo Leitzako Udalean. Laguntzak %20 eta %45 artekoak izan daitezke, kasuaren arabera.
- **Aurrekontu babesgarrian sartzen diren atalak:** obraren aurrekontua, arkitektuaren faktura, EET txostenaren kostea (Eraikinen Ebaluazio Txostena) eta tasak.



instalazioak
IGOGAILUAK

Santiago, 71 | ELIZONDO
T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK



- 1 KANPOKO IGOGAILUAK**

Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.



- 2 BARRUKO IGOGAILUAK**

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako egokituak.



- 3 IRISGARRITASUNA**

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.




EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Laguntzak tramitatzeko bi bulego ditugu inguruan: bat **Donezteben** (Nasuvinsa) eta bertzea **Leitzako Udalean**



BAZTAN

Ferreteria

PINTURA · AROZTEGIKO GAUZAK
KRISTALAK · TRESNERIA · OPARIAK ...

T. 948 580 423

Santiago, 79 · Industrialdea
31700 ELIZONDO



Berpiztu zure lehen etxebizitzarekin izan zenueneko ilusioa

Etorri etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko bulegoetara (ORVE)

Eskatu %60rainoko laguntza etxebizitza edo etxea zaharberritzeko

>> www.etxebizitza.nafarroa.eus

Zaharberritzeak saria baitu, 'Biziberri Navarra Rehabilita' sarien banaketa-ekitaldira gonbidatzen zaitugu, azaroaren 22an, osteguna, 19:00etan. Civican.

FINALISTAK

PAMPLONA / IRUÑA LEZKAIRU
PAMPLONA / IRUÑA C/CARMEN
PUENTE LA REINA / GARES
MONTEAGUDO
MUSKITZ (IMOTZ)
GARDE
TAFALLA



ELIZAGA MUGIKA SL
conselmu
CONSTRUCCIONES

ongi pasa bestak!

Etxebizitzaren eraikuntzak
Teilatu berriztatzeak
Mota guztietako erreformak

T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com
www.construccioneselizagamugika.es

larreta lanak sl

IGELTSU PROIEKTUA
PLADUR LANAK

Bera - Nafarroa
larretaigeltsua@gmail.com
larretetlanak.com

Gorka Arretxeaa 627 225 514 Juanen Saralegi 637 921 299

Gestel

K SAT

TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com

- ▶ TDT instalazioak
- ▶ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- ▶ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- ▶ Satelite bidezko interneta
- ▶ Internet konexio simetrikotik ultralastera

EZKAIN eraikuntzak S.L.

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com

ETXEAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK

2017ko datuak: ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZE ESPEDIENTEAK				
Herria	Espedient. kop.	Etxebizitz. kop.	Aurrekontua	Diru-laguntza
ARANO	0	0	0	0
ARANTZA	5	5	184.969,60	43.699,88
ARESO	0	0	0	0
BAZTAN	38	71	1.235.066,08	372.397,43
BEINTZA-LAB.	1	1	79.462,76	20.616,44
BERA	8	9	94.261,39	39.423,51
BERTIZARANA	4	5	197.165,96	39.663,41
DONAMARIA	2	2	19.713,81	5.999,16
DONEZTEBE	10	17	117.977,58	32.866,82
ELGORRIAGA	0	0	0	0
ERATSUN	0	0	0	0
ETXALAR	3	4	175.258,25	32.988,86
EZKURRA	0	0	0	0
GOIZUETA	1	1	55.104,42	24.796,99
IGANTZI	4	4	66.648,64	25.824,15
ITUREN	1	1	79.462,76	20.616,44
LEITZA	20	21	456.861,64	129.711,90
LESAKA	7	28	336.164,95	147.097,47
OIZ	0	0	0	0
SALDIAS	1	1	165.268,00	9.316,80
SUNBILLA	5	5	216.806,92	47.192,92
URDAZUBI	0	0	0	0
URROZ	0	0	0	0
ZUBIETA	2	2	44.107,55	16.454,51
ZUGARRAMURDI	1	1	44.349,00	19.957,05
Denetara	113	178	3.513.892,34	1.012.331,23

2017an 1.012.331 euro hartu ziren etxeak zaharberritzeko, 2016an baino %61 gehiago. Aurten, urriaren 1a bitarteko datuen argitara, jarduera %15 jaitsi dela nabaritu dute Nasuinsak Donezteben duten bulegoan, 2017ko epe berarekin konparatuta.

Igogailuak instalatzeko eskaera handitu denez, aurrekontuak ere hazi dira

Eskaerak obra hasi baino bi hilabete lehenago egin behar dira

2016an Parlamentuak etxebizitzak zaharberritzen laguntzeko Foru Legea onartu eta 2017an ondorioa berehala nabaritu zen. Nasuinsak Donezteben duen bulegotik adierazi digutenez, bereziki igogailuak instalatzeko eskaera igo da. Eta holakoetan gastu handiagoa izaten denez, onartutako aurrekontuaren kopurua ere igo egin da. Dena den, laguntza eskatzeko asmoarekin dabilenak jakin behar du obra hasi baino bi hilabete lehenago egin behar duela eskaera.

ESKATZAILE IZATEKO BALDINTZAK?

- Etxebizitza ohiko bizitoki iraunkorra izatea.
- Eraikinak 25 urte baino gehiago izatea.
- Aurrekontua etxebizitzako 6.000 eurotik gorakoa izatea (3.000 euro, obra desgaitasuna duen pertsonentzako egokitzeko baldin bada).
- Obrak hasi gabe egotea. Behin-behineko kalifikazioa egiten denetik, obra sei hilabeteko epean hasi eta 36 hilabeteko gehienezko epean bukatzen da.
- Diru-laguntza, eskatzaileak duen ponderatutako familia diru-sarreraren, haren adinaren eta etxearen antzinatasunaren arabera emanen da.
- Maileguak eska daitezke (galdetu baldintzak).

Nasuinsak tramitatzen ditu Baztan, Bertizarana, Bortzirriak eta Malerrekan etxeak zaharberritzeko laguntzak

948456103 DONEZTEBE

Arano, Areso, Goizueta eta Leitza, aldiz, Leitzako Udalean dute hortaz arduratzen den bulegoa

948510009 LEITZA

DIRU-LAGUNTZAK ZERTARAKO?

Diru-laguntzak izaten ahal dira bai bizitokiaren barneko obrak egiteko baita etxearen elementu komunitarioak (teilatua, eskailera, fatxada...) zaharberitzeko ere:

- Eraikinaren egitura edo funtzionamendua egokitzeko (teilatua, fatxadak, igogailua jarri, instalazioen berrikuntzak, elektrizitatea, iturgintza,...).
- Eraginkortasun energetikoa hobetzeko (isolamenduak, berokuntza sistema jarri edo aldatu, galdara edo leihoak aldatu...).
- Irisgarritasuna hobetu trabak kentzeko (elbarriandako oztopoak, adinekoen oztopoak...).
- Bizigarritasun baldintzak hobetzeko etxe barneko obrak (bainera kendu eta dutxa jartzea, hodiak eta txorrotak aldatzea...).
- Etxeetan bizitzeko egokia den azalera handitzeko (120 m² erabilgarri arte) eta etxebizitzak egiteko, lehendik dauden etxebizitza handiak zatituz.
- Indarrean dagoen lege eta araudietara egokitzeko.

Etxebizitza eta eraikinetako akabera pribatiboak aurrekontu babesgarritik kanpo utziko dira, salbu eta haiak nahitaez konpondu eta berritu behar direnean obra babesgarriak egitearen ondorioz.

Nafarroan etxebizitza baten jabea edo erabiltzailea den edozeinek eskatzen ahal du hura zaharberitzeko obrak zaharberitze babestutzat jo daitezela, baldin eta etxebizitza horretan badu edo izanen badu bere bizileku ohikoa eta iraunkorra.

Era berean, bada diru-laguntzarik alokatzeko diren etxebizitzak zaharberitzeko ere.

Laguntza eskaerak egiteko Nasuvinsak Donezteben duen bulegora joan behar da (948 456 103) edo Leitzako Udaletxera (948 510 009).

BIZIGARRITASUN-ZEDULA GEHIAGO, URTETIK URTERA

Etxe eta pisuen salmenta kopurua igotzen ari da urtetik urtera. 2017an Nasuvinsak Donezteben duen bulegoaren bitartez 59 zedula eman ziren: 24 Baztanen, zortzi Beran, zazpi Lesakan, sei Donezteben, bina Arantzan, Eratsunen, Iturenen, Sunbillan eta Zugarramurdi, eta bana Bertizaranan, Igantzin, Elgorriagan eta Beintza-Labaienen. 2018an, urria bitarte 60 bizigarritasun-zedula eman dira dagoeneko.

Datuak: Nasuvinsa eta Leitzako Udala

Laguntza izateko, eskatzailearen familiaren diru-sarrera ponderatuak aurrekontu babesgarriaren hamarrena gainditu beharko du eta IPREM halako 3,5 baino gutiago izan, salbu eta laguntza eskaera jabeen komunitateak egiten badu.

Urtetik urtera bizigarritasun-zedulen eskaerak gora egin dute: 2015ean 26, 2016an 32, 2017an 59 eta 2018an 60 urria bitarte. Horrek adierazten du Notariako salerosketa kopurua handitu dela azken urteotan.



GAZMENDI
ERAIKUNTZAK

DONIBANE KARRIKA
GURE BORDA • SUNBILLA
T. 948 450 130 - 948 451 666
M. 619 469 784




CONSTRUCCIONES A. BENGOTXEA

- Etxebizitzak egin
- Zahar-berritze lanak
- Saneamentuak
- Obra publikoak
- Zeramika denda

URDAZUBI
Tel. 948 599 166 www.carrelagesbengotxea.com

SASOI
eraikuntzak s.l.

Leku-eder, 5
31791 SUNBILLA (NAFARROA)
T. 948 451 596 | F. 948 456 168
info@sasoi.es

mitxel **etxenike etxandi**
javier **oteiza larretxea**



EFIZIENTZIA HAUNDIKO ERAIKINETAN ADITUAK






jaimo urrutia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) telf. 948 58 18 02 fax. 948 58 14 12 e-mail. info@linoplaza.com web. www.linoplaza.com

helvetia
ASEGURUAK



- Tratu pertsonala
- Zure beharrianak asetzeko
- Kompromisoa eta segurtasuna
- Pertsona erabakigarriak
- 24 orduko atentzioa



T. 948 45 25 29 - 600 46 44 33
Santiago, 78 - ELIZONDO - irigaraiseguros@gmail.com

ASEGURUAK

Etxea babesteko bortz giltzak

Urrunetik hamalau bertaratu eta lau dira maiz etxe-aseguruek beraien gain hartzen dituzten kostuak. Horrelakoak saihesteko eta bide zuzena aukeratzeko honakoak dira adituek gomendatzen dizkiguten giltzak:

Egindako eskaintza itsu-itsuan aukeratu ordez, **aholkuak jasotzea** komeni da. Beharrak aztertu, eta babestu nahi dituzun gertakariak zehaztuta ditugularik, aseguru artekaritzara jotzea gomendatzen dute. Izan ere, horiek ez dituzte aseguruak dituzten interesak; eta beraz, eskaintza bakoitza objektiboki aztertzen laguntzen dute.



ANZABAL
inmobiliaria



- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserrí, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804 • anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Mamia eta azala babestu behar dira. Mamiak ondasun pertsonal eta materialei egiten die erreferentzia (altzariak, etxe-tresnak, bitxiak edo bertzelako objektu preziatuak) eta norberak hauta dezake horietatik zein babestu nahi dituen; azala, berriz, etxebizitzaren egitura-elementuei dagokie, eta aseguratu aitzinetik balioztatzea egitea komeni da. Ezbeharren bat gertatuz gero, **kalte-ordaina** diruz edo tresna ordezkatzuz jasoko genukeen argitu eta batera edo bertzera jasoko den aseguru-polizaren kontratuan zehaztu beharko da.

Hirugarrenen-aseguruak biltzea komeni da, izan ere, etxeko matxuretan ohikoa da horiengan kalteak eragitea. Klausula hori txertatu eta lasaitasunaz gozatu!



Mañonea Seguros S.L.

Erregistro zenbakia: C00721371193304

**ASEGURUEN
AGENTZIA ESCLUSIBOA**

www.manoneaseguros.seguros.generalis.es

ELIZONDO-BAZTAN-NAFARROA

Telefonoak: 948 58 11 32- 606 89 68 43 - 626 49 42 43 e-mail: manoneasegur@generalimediadores.es

Komunitate-aseguru eta etxe-aseguruko klausulak alderatuz, gainjartzen direnak kenteak aurrezteko bide eman diezaguke. Zein dira behar ditugun estaldurak eta zein ditugu soberan? Segur aski, hastapenean buruan genituen guztiak ez dira beharrezkoak. Areago, aldizkako estaldurak edo estaldura zehatzak ere hauta daitezke.



MAPFRE

Konfiantza osoko aseguru-etxea

IBILGAILUAK | ETXEAK | BIZITZA ETA OSASUNA | PENTSIOAK | INBERTSIO PRODUKTUAK

BERA

Bidasoa, 16 T. 948 63 10 14

DONEZTEBE

Nagusia, 2 T. 948 45 08 80

ELIZONDO

J. Urrutia, 8 T. 948 58 03 76

LEITZA

Elgoien, 6 T. 948 51 04 99

LESAKA

Pl. Zaharra, 28 T. 948 63 72 20

Hiru aholku: ongi irakurri estalduren txostena,
etxeke ondasunen balioa zehaztu
eta aseguruak barne hartzen duela,
jakintzat jo ordez,
egiaztatu



IKERKETAK

Geologia eta hidrojeologiaren ardatzetan

Azterketa geologikoen eta hidrojologikoen berebiziko garrantzia dute eraikuntza-lanetan. Maiz, lanak hasi aitzinetik egiten dira. Izan ere, bideragarritasun ekonomikorako eta teknikorako baliagarriak dira. Azterketa geoteknikoen bidez, lur-geruzak eta lur azpiko materialen ezaugarriak eta portaera ikertzen dira; azterketa hidrojeologikoen bidez, berriz, luraren eta lurpearen iragazketa-ezaugarriak, inguruko ur-ibilguak eta isurketa-uren proportzioa. Azterketa horiek eginda, eraikuntza-proiektuak luraren ezaugarri geologiko eta hidrojeologikoetara egokitzeko prozesuak garatzen dira.

Horrela bada, batak zein berteak eraikuntza-lanek sor ditzaketen ziurgabetasunak edo sor daitezkeen arazoei aitzin hartzeko bide ematen dute.



IKERKETA

Geologikoak
Geoteknikoak
Hidrogeologikoak
Ingurumenakoak

Zimentazioak • Lur azpiko urak
Ezponden egonkortasuna • Zabortegiak

Xalbador Kalea, 28 - 31700 ELIZONDO (BAZTAN)

620.796.005 - ph.gamoy@yahoo.com



IKERKETA GEOTEKNIKO ETA HIDROGEOLOGIKOAK
edozein eraikuntzarako zimendatzeak,
eraikuntza zibila, lurpeko urak, ingurugiroa
www.geea.es

696 435 907 • 606 507 335



• OBRETAKO LAGUNTZA TEKNIKOA

- Industria eta merkataritzako eraikuntza eta instalakuntza.
- Obra zibila
- Etxegintza

• TOPOGRAFIA ETA GEOMATIKA

• INSTALAZIO ETA ERAIKINEN MANTENTZEAREN KUDEAKETA

• TERMOGRAFIA

• KONSULTAK, TXOSTENAK, PERITAZIOAK



Garaialde etxea - ELBETE-BAZTAN

T. 948 580 988 - 619 462 665 - amartin@atnafarroa.org

CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA

ARKITEKTU TEKNIKOA

- Etxebizitza berriak
- Eraikinak zaharbertitzea.
- Zurezko solairu eta teilatuetan espezializaturia
- Diru laguntza eskaerak bideratzen aholkularitza
- Energia aurrezteko fatxadak
- Igogailuak jartzea
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak

Landa Ind. Landa eraikina 1esk · LEITZA
948 610 684 · 629 611 912
sagastibeltza@coatnavarra.org

- LOKALEN EGOKITZEAK
- ERAIKUNTZA BERRIAK
- ZAHARBERTITZEAK
- BARNE DISEINUAK
- AHOLKULARITZA
- PASSIVE HOUSE
- TEILATUAK BERTITZEKO
- SEGURITASUN ESTUDIOAK
- KALIFIKAZIO ENERGETIKOAK, ...

DOARQ
arkitektura bulegoa
maite & idoaia danboriena olaetxea
T 9 4 8 1 4 0 8 0 6

Oiartzabal arkitektoak

Ipar karrika, 15
31780 BERA
T. 948 630 304 · 627 955 349

arteka

ARKITEKTURA ZERBITZUAK

www.artekabaztan.com

Balda Medikua Plaza, 1-1A | 31700 ELIZONDO
948 580 610

ARKITEKTOAK

Etxebizitza pasiboak

Eroso eta energiari kontsumitu gabe bizi nahi al duzu? Etxebizitza pasiboak dira bidea.

Energia-kontsumo eraginkorrari esker, etxean erosotasun klimatikoa bermatzen duten etxebizitzak dira *Passivhouseak*. Temperatura mantentzen duten etxebizitzak direnez gero, berogailu eta aireztatze sisteman %75-90a aurreztea ahalbidetzen dute. Horretarako, bertzeak bertze, isolatzea egokia eta beroa berreskuratzeko aireztapen-instalazioak ongi eginak badira.

Eraikitzerako orduan, guti goiti-beheiti kostua %10 gehiago bada ere, aurrezten den guztia aintzat hartuz, epe laburrean ekonomikoa eta epe ertainean errentagarria dela erran daiteke. Gainera, egun, eraikuntza alorrean klima aldaketa murrizteko dugun aukera bakarra dira.



LABORRA ARKITEKTOAK
-Gabriel & Ines-

Santiago 66, 1º - Elizondo - 948.580.122

Zuen etxebizitza-eraikinak **50 urte** baino gehiago ditu?

Eraikinen Ebaluazio Txostena egiteko momentua da.

IEE

Derrigorrezkoa: 108/2014 Dekretu Foralaren arabera

www.laborra.com

Eraikitzerako orduan, guti goiti-beheiti kostua %10 bada ere, epe laburrean ekonomikoa eta epe ertainean errentagarria dela erran daiteke.



Baztan-Bidasoko lehen Passivhaus eraikin ziurtatua

Certified Passive House
Passive House Institute

Apezteguia Berria

ferretería – burdindegia



Margoak eta bernizak
Erreminta elektrikoa
Esku erreminta
Konpresoreak
Lanerako arropa
Baratzea lantzeko tresnak
eta dendan aukera gehiago

www.apezteguiaberria.com

Leitzako Errepidea 33, Doneztebe - T. 948 450 994 - F. 948 450 882 - info@apezteguiaberria.com



arkitektura eta eraginkortasun energetikoa
arquitectura y eficiencia energética



ZAHAR-BERRITZE LANAK



BARNE-DISEINUA



NEKARITZARAKO ERAIKUNTZA INDUSTRIALAK



ZURTAGIRI-ENERGETIKOAK

- Laura Apezteguia - Inato Irazoki etorbidea 2, Doneztebe - T. 626 261 990 - laura@apezteguiaelizalde.com -
www.apezteguiaelizalde.com

 **Venta**
du
Carrelage

Zeramikaren benta

asteartetik ostirala arte:

09:00-12:30 / 14:30-19:00

larunbata:

09:00-12:30 / 13:30-18:00

Lori venta | Zugarramurdi

Tel.: (0034) **948 599 024**

Mug.: (0033) **615 115 223**

www.ventaducarrelage.com

MATERIALAK

Iraunkorrak eta berrerabiliak

Iraunkortasuna izanen da eraikuntza-egituren oinarria. Halere, materialen erabilera tradizionalari diseinatzaileen sormena gailenduko zaio. Zimentua edo harzurria, erraterako, kanpoko aldean erabilia izatetik, altzarietan erabiltzera igaroko da. Bata zein bertzea berrerabilitako materialarekin konbinatuko direnez, egur nordikoa edo kortxoa nonahi ikusiko dugu. Azken batean eraginkortasun-energetikoari begira, diseinu jasagarriak egitea izanen da helburua.



ALMACO BAZTAN

GRUP **GAMMA**

www.almacobaztan.com



hotza heldu da!



berria!
... etorri ikustera!



Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857



MENDI BigMat TXURI



Leitzako Bidea, 39 • 31740 DONEZTEBE • T. 948 45 03 05 F. 948 450 068 • www.menditxuri.com





IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK

ESTRUKTURAK
TEILATUAK
FATXADAK
ZAHAR BERRITZE LANAK

Tel.: 661 735 052 • ARANTZA • SUNBILLA



Berriozar 19.
2. solairua - 41. bulegoa
31013 Antsoain (Nafarroa)
info@apezetxeanaiak.com
T. 948315200
www.apezetxeanaiak.com



ZABALA eta GOIKOETXEA
ERAIKUNTZAK

Gure Ametsa GOIZUETA
T/F: 948 51 42 28
M. 679 47 98 93 · 679 47 98 78



Construcciones
URBALLO, s.l.
hargin lanak orokorrean

Luis Gaztelu, 6
31730 IRURITA
T. 610 367 000
610 367 009
c.urballo@hotmail.com

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatueta esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak:
Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuiluak...
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!



JAVIER IBARRA

ERAIKUNTZAK
Gremioen koordinazioa
Mota guztietako igeltseritza lanak

T. 699 122 815 · 31791 - SUNBILLA (Nafarroa)

- Etxe bizitza berriak
- Zahar berritzeak
- Erreformak
- Teilatuak
- Komun eta sukaldeak
- Lur zorruak
- Harri lanak orokorrean
- Hormigo lanak



LOHITZYNE
eraikuntzak

ETXEA, TEILATUAK eta
ERAIKUNTZAK OROKORREAN



Tfnoa: 948 615 110 | Mug: 699 461 386
Eguzkialde etxea 31749 EZKURRA

ETXEGILEAK

Harria eraikuntzaren eta dekorazioaren oinarria

Gaur egun eraikuntzan erabili ohi diren material eta teknika berritzaileetan aukera zabalagoa izanagatik, tradiziozko lehengaiak irmo eutsi diote eta ez dute ordezkorik. Harriak, erraterako, bere espazioa eta indarra mantendu du. Areago, gaur egun, etxebizitzaren aurrealdean ez ezik, etxe barruan –dekorazio elementu gisa– ere erabiltzen da, guneko eroso eta atseginak eraikitzeko helburuz.

Atarian eta barruan

Etxe atariko paretetan, harri lehorreko eraikuntza tradizionala, lotura materialik gabeko, da azken aldiaren erabiliena. Lanketa denbora eta kostu aldetik eraginkorragoa ez ezik, ingurumenarekin eragin txikiagoa duelako. Dena dela, segurtasuna bermatzeko, zenbaitetan lurrez edo harri xehatuz tartekak betetzeko paretak sendotu daitezke.

Tradiziozko eraikuntza-materiala izan dena, dekorazioaren oinarria da egun. Hori horrela, logela edo komunetan harri estalitako paretak edota egongelatan, harri naturalak erabiltzeko tximiniekin indar handia hartu dute.



ANTZUZELAI
S.L. 

BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com



HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T.948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
TALAIA DE GASTRERIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA ERE HORMIGOI INPRIMATUA →

IGELTSU PROIEKTATUA
LOIZATE
BUZTINA

J. M. Mitxelena 689 908 665

Zalain ind. 42B-3 · BERA



MENDEBERRIA
eskabazioak S.L.



GARRAIOKO OPERADOREAK
KAMIOIAK TRAKZIOAREKIN ETA BAINERA

trans-amalur S.L.
Garraioak

LEKU EDER 13 · 31791 SUNBILLA

675 266 027 (ANDONI) 657 580 551 (JUAN LUIS)
BULEGOA 948 450 108 · 672 098 384

ASKAPE
HARROBIA Construcciones Sobrino S.L.

HARROBIA, GARRAIOKAK,
ESKOLLERAK, ESKABAZIOAK
ETA ERAIKIN BOTATZE LANAK



Oronoz Frantzia errep. N-121-B. 43km Baztan - T. 948 592 111 / 660 501 584 | canterasaskape@gmail.com



TALOTXA
IGANTZI ERAIKUNTZAK S.L.

Piedadeko auzoa, 8 · 31790 IGANTZI
Tel. 608.202.126 / 618.901.810

LABIAGA
eraikuntzak
GREMIOEN KOORDINAZIOA

IMANOL 608 117 634
XATUR 608 117 635

BERA | ELIZONDO


ETXEGILEAK

Sabai aizunak

Sabai aizunak edo sabai faltsuak toki eskas duten eraikinetan espazioa behar bezala kudeatzeko aukera ona dira. Instalazio teknikoak txertatzeko, dekorazio aukerak zabaltzeko eta tratamendu akustiko zein termikorako eskaini ditzaken abantailak tarteko, bulegoetan, lokaletan eta biltegietan ez ezik, etxebizitzetan ere gero eta gehiago erabiltzen dira.

Modularrak edo jarraituak

Bi motatakoak izan ohi dira: sabai modularrak edo jarraituak. Itxuraz antzekoak izanagatik ere, materialak eta sustengua, sabai motaren arabera, aldakorrak dira; eta horrek, isolamendu termiko eta akustikoan eragin zuzena du. Hortaz, sabai aizunak aukeratzeko eraikinak dituen beharrak, espazioa eta euskarri sistema aztertzea komeni da; hiru aldagai horien arabera, sabaiek dimentsio jakina eta ezaugarri bat edo berte beharko dituzte eta.



ISOLATU ZURE ETXEA ETA AURREZTU

Isolamendu termikoa eta akustikoa

%50a aurreztu

Egun batean

Obrarik gabe



BEGIRATU ZEIN
ERRAZA DEN
APLIKATZEA

AislaNat, Nafarroan ekoiztutako zelulosazko isolamendu bakarra.

Isolatu zure etxea zelulosarekin, egun batean, obrarik gabe, gutxi gastatuta eta produktu ekologiko batekin.

A AISLANat
AISLANTE DE CELULOSA

BIOKLIMA
NATURE

948 33 00 15 - 627 41 22 69
www.aislantesaislanat.es

Gremio kudeatzaileek aseguruia bermatzen duen profesionalak hautatzeko, aurrekontu bat baino gehiago aurkezteko, dokumentazioa kudeatzeko eta gremioen arteko koordinazioa bideratzeko ardura hartu ohi dute.

MAKINAK ETA ZERBITZUEN ALOKAILUA
 J.V. Jubera, S.L. eraikuntzak



DONEZTEBE

Leitza bidea, 72 · DONEZTEBE · T. 948 451 793
T. 659 702 694 · jvjubera@gmail.com

616 513 497



Pitti ESKABAZIOAK

MINI ESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
 enpresa eta partikularrentzat

T/F 948 451 389
 Ezpelura, 1
DONEZTEBE
 pittieskabazioak@hotmail.com

MIKEL UBIRIA
 eskabazioak
 garraioak



Biurrana 8 · 31770 Lesaka
 948.637.302 9.716.322 608.779.641
 info@excavacionesubiria.com



KAXKANTE ESKABAZIOAK
Inoiz baino hobe, leku estuetan ere

Miguel Angel Oyarzabal
 Egurretxe, Donamariko bidea
 31740 Doneztebe
608 978 210
 kaxkante.eskabazioak@gmail.com



TRANSTXAKAIN
 TRANSTXAKAIN. s.l.
 JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

Aurreztu!



ERAIKUNTZA-HONDAKINEN KUDEATZAILEA (Nafarroako Gobernuaren baimena)

KONTENEDOREEN ALOKAIKUA 20m³ arte

PUTZU SEPTIKOEN GARBITZE ETA LIBRATZE LANAK

- MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK**
 - Kamioia 15mko garabiarekin
 - Kamioia 32mko garabiarekin
 - Kaja baskulatzailarekin
- Zisternarekin:**
 - Putzu septikoak
 - Tuberietako ataskoak kentzea
 - Ura lekuz aldatzea

Otsango Ind. 14 · **LESAKA** · info@transtxakain.com
 T. 669 840 198 | 948 638 052 · F. 948 627 578


LEITZELARREA S.L.
Aroztegi eta Galdereria

Landa Beikoa Industrialdea, 20
T. 948 510 598 M. 669 368 991
LEITZA

AROTEGIAK

Barandak,
seguru eta lasai
bizitzeko

Espazioak mugatzeko erabiltzen diren barandak eta eskudelak apaingarriak ere badira. Aukeratutako diseinuaren arabera, ukitu klasikoak edo modernoak eman diezaioke ere eremuari.



BIDASOA

Aroztegi metalikoa | Carpintería metálica

T. 0034 948 630 034 | 606 280 895
info@bidasoas.com
Bidasoa Karrika 76 - 31780 BERA - Nafarroa

Gisa aunitzetako barandak daude: egitura soila dutenak edo eskudelak dituztenak; metalezkoak edo egurrezkoak... Haurrak bizi diren etxebizitzetan, bereziki, materialaren iraunkortasunari eta burdin barren arteko tarteari erreparatzea komeni izaten da.

Egurretik metalera

Antzina egurrezkoak ziren nagusi; gaur egun, ordea, balkoietan metalezko barandak dira ohikoak. Halakoetan, herdoildu gabe, irauten dutela ziurtatzeko, materiala babestea –margotuz, erraterako– komeni izaten da. Metalezko barandei, norberak nahi duen kolorea ez ezik, gustuko forma eman dakieke.

J.P. AGERREBERE

| Karrozeria |
| Aroztegi Metalikoa |
| Erremolkeak |

Zaldubi ind. IRURITA | T. 948 580 538 | 630 184 847

OLAZAR
aroztegia S.L.

- aroztegi metalikoa
- itxiera metalikoak
- aluminio aroztegia
- estruktura metalikoak
- zerrailgintza
- galdaragintza
- ate baskulatzaileak
- ate automatikoak

Aparan Ind, 1
Tfnoa - Faxes: 948 456 183
Mugikorra: 649 139 365
DONEZTEBE

Arotxa

Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | HORMANN banatzaile ofiziala

AROTEGIA:

- Burdina
- Aluminioa
- Inox

BALKOIAK
TOLDOAK
BURDINESIAK
FORJA
AUTOMATIZAZIOAK
...



Gonzalez anaiak

aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa

F. Joakin Iriarte, 6 · ELIZONDO
T. 948 580 337

Metalezko barandak margotuz
gehiago irautea eta ez
herdoiltzea lor dezakegu

Argitasuna eta pribatutasuna uztartuz

Altzairu eta kristalezko barandak, ezaugarriengatik eta itxura estetikoarengatik, puri-purian dauden barandak dira. Argia pasatzen uzten duten baranda moderno horiek dira seguruenak eta, kristalaren gardentasunaren arabera, etxebizitzan pribatutasuna mantentzeko bide eman dezakete. Azkenaldian, bada horma bidez itxitako balkoien aldeko apustua egiten duenik. Halakoetan aunitzek goiko aldean barandilla jarri ohi diete, argia pasatzeko; edo loreontzi-euskarri funtziorako.





ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es





KORTA ANAIAK

AROSZTEGI METALIKOIA

Elutsa, 1 Alkaiaga Industrialdea 31770 LESAKA
T./F. 948 631 651
info@kortanaiak.com





AROSZTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK

Barandak, balkoiak, ateak,
hesiak, forja artistikoa, ...

T./F. 948 638 150
M. 646 774 117

Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com
www.talleresjoisa.com





ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA



ABANTAILAK

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Egiturak	Eskailerak	Ateak	Lurrak
			
Armairuak	Sukaldeak	Egurrezko leihoak	Leiho mistoak
			

Leitza errep. · 31745 ITUREN
M. 676 393 996 · T. 948 388 455 · F. 948 456 164
carpinteriaecheverria@yahoo.es

LEIHOAK

Hotzetik babesteko



Enegiaren %10-20 inguru leihoetatik galdu daitekeela aintzat hartuz, azpimarragarria da leihoek eraginkortasun energetikoan duten zererrana. Materialaren eta muntaiaren arabera, eraginkortasun hori aldakorra da.

Materiala

Gaur egun, material ohikoek sistema metalikoak (aluminioa eta altzairua), sistema plastikoak (PVCa) eta egurra (egur laminatua edo egurra eta aluminioa nahasten dituen sistema mistoa) dira; eta batekin zein bertzearekin isolamendu termikoa lor daiteke. Leihoen materialak ez ezik, kristalek ere izan dute garapenik. Gaur egun, beroa eta hotza mantentzeko, eguzkia kontrolatzeko edota bi efektuak konbinatzeko, kapazko beirak arront eraginkorrak dira. Pertsianei dagokienez, haizearen iragazkortasunean garrantzia handia dute.

Kokapena eta etiketak

Exhebizitzaren eta eraikinaren aurrealdearen kokapenak ere leiho batek ematen duen energian eragiten dute. Hori horrela, leihoen etiketa energetikoak zehazterako orduan, zailtasunak aunitz dira. Dena dela, 2013an leihoen eraginkortasun energetikoaren etiketak martxan jarri zituzten. Etiketa horiek sailkapen bikoitza dute: letra bidez berogailuen kontsumoarekin lotutakoa (A eraginkorra eta G eraginkortasun txikiena duena); eta izarren bidez kristalaren eguzki faktorearekin eta klimatizazioaren kontsumoa ardatz duena (**eraginkorra eta *eraginkortasun txikiena).

Instalazioa

Azkenik, eraginkortasun energetikoa bermatzeko, leihoen kalitateak bertzeko garrantzia du instalazioak. Hori horrela, langile kualifikatuak kontratatzea ere ezinbertzekoa izanen da.

Energiaren %10-20 inguru leihoetatik galdu daitekeela aintzat hartuz, leihoak behar bezala aukeratu eta instalatzea komeni da.



APITTU
ALUMINIO LANAK
PVC

Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak,
Ateak, Portxeko itxidurak eta barandiak

T./F. 948 638 297 | M. 626 312 326
Otsango auzoa - 12.pabilioia | 31770 Lesaka
apittulesaka@gmail.com



IREKI
LEIHOAK

Aluminio R.P.T | PVC
Pertsianak | Toldoak
Itxiturak | Barandak
Kontraleihoak

PVC leihoen banatzaile ofiziala:   

Somfy banatzaile ofiziala: 

T. 948 630962 M. 626 313162 H. 31780 BERA
irekileihoak@irekileihoak.com www.irekileihoak.com





**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com

**6 kamara
82 mm-ko profila
Merkatuko
isolamendurik
hoberena.**

A+++



PVC-zko sistema bakarra*

deceuninck

**Passive house
ziurtagiriarekin
BETIKOn daukagu.**



*** 70 mm**

**BETIKOn LEIHOAK NEURTU, FABRIKATU
eta INSTALATZEN DITUGU**



OKILA

zurgindegia

- tarimak, leihoak, atek,eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein
Mikel Arburua




607 88 39 68 · lander@okila.eu
Piedadeko auzoa,32 · IGANTZI

Patxi Jaurena

ZURGIN LANAK OROKORREAN
MENUISIER - CHARPENTIER

628 550 490 - URDAZUBI(Na)
ursunea@gmail.com



MIKEL MUTUBERRIA

zurgindegia

Zurgin lanak orokorrean

Aparan Industrialdea - 31740 DONEZTEBE
Tel. 669 939 057
mutuberriazurgindegia@hotmail.es

MADERAS SANTESTEBAN

Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
Bigak · Montajea obran
Teilaturako egiturak
Izei, haritza eta douglasezkoak edo laminatua
Osagarriak · Autoklabe tratamendua



www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com

URTXULUTEGI Zurgindegia


ateak | leihoak | eskailerak | sukaldeak | armairuak
Zurgin lanak orokorrean
PVC eta ALUMINIOA
www.carpinteriaurtxulutegi.es

Ordoki ind. | ARIZKUN | 948 453 475
carpinteriaurtxulutegi@hotmail.es



639 855 120 Doneztebe juanotenzurgina@gmail.com

Teilatuak, eskailerak, lurrak, atek, leihoak,
kontraleihoak, persianak, armairuak, sarrailak...



Aldaketa klimatikoarentzat egokia izateaz gainera, osasuntsua, sendoa, iraunkorra, isolatzaile aparta eta energia aurrezlea da egurra

Egur espeziea aukeratzekoan pieza kokatuko den tokia aintzat hartzea komeni izaten da. Barneko lurzoruetan haritza erabiltzen den heinean, kanpoaldean lpe espeziea da erabiliena.

ZURGINAK

Egurrezko lurzoruak

Gure eskualdean, antzinako etxeetan zein berriki eraikitakoetan, lurretatik hasi eta teilatuetaraino ikusten da egurra: egituretan, zoruetan, estalduretan, etxe aurreetan, ate edo leihoetan... Areago, gaur egun, eraikuntza jasagarriaren aldeko apustua tarteko, osasun eta ongizateari dakarzkion onurak gero eta gehiago nabarmentzen dira.

Kokapena, ezaugarriak eta iraunkortasuna

Egur mota bat edo berteza aukeratzeko pieza hori kanporako edo barrurako izanen den eta zein pieza egiteko erabiliko den hartu behar da kontuan; horren arabera ezaugarri eta tratamendu bat edo bertez beharko dute eta.

Lurzoruetan, erraterako, haritza da nagusi; baina, neurri ttikiagoan, pagoa eta intxaurren ere erabiltzen dira. Kanpoaldeko lurzoruetan, berriz, lpe espeziea da gehien erabiltzen dena, termikoki landutako egurrekin batera. Batzuen edo berteen erabilera, bere ezaugarriek baldintzatuko dute, baita joera estetikoek, iraunkortasunak eta egonkortasunak ere.



ITURRIONDO
ZURGINDEGIA

parketak · atek · leihoak...
teilatuak · estrukturak · tarimak



Tel.: 607 890 923
607 890 966
Tel/Faxa. 948 631 430
Zalain ind, 7 · BERA

SERRERIA ALEMAN S.L

Teilaturako estrukturak (Douglas Pinua, Haritza...)
Tarima · Haritza, Izeia laminatua
KVH · Laminatuak · Egur trinkoa · Tratamenduak



Frantziako errep. 2-A ERRATZU
Tel. 948 453173 - Fax: 948 453082
serreriaaleman@gmail.com



TEILATUAK, ESTRUKTURAK
ZAHARBERRITZEAK ETA
ZURGIN LANAK OROKORREAN



Alkerdi - 4. ind. - 103 partzela - 31711 Urdazubi - T. 660 501 584 | joxemibengotxea@yahoo.es

carpinteria

EZPELA
zurgindegia

Urruña, 2
31780 BERA
Tel.: 678 350 412 (Eloy)
617 081 335 (Matias)
eloyordoqui@hotmail.com

Luis Ibarra

Zurgin lanak orokorrean

636 701 204

luisibarra86@hotmail.es t2. 690 388 263
Salbafore karrika, 28 - 31790 ARANTZA (Na) f

Armairuak
Leihoak
Atek
Teilatu berriak
Parke flotantea
Tarima
Teilatu zaharberritzeak



BEROPEL
egurrezko pellets
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

EN plus A1
ES 025

ITURGINTZA

Lurra edo airea, berokuntzarako bidea

Energia iturri berriztagarri eta garbiak dira energiaren etorkizuna. Gaur egun, indar eolikoa, eguzki energia, energia fotovoltaikoa, biomasa... aunitz dira energia eskuratzeko erabiltzen diren iturri berriztagarriak, berotze globalaren aurka lagungarri gerta daitezkenak.

Dena dela, erregai fosilak oraindik izan badira, eta horiekiko mendekotasuna ez da desagertu. Gizartearen jasangarritasuna lortzeko, ezinbertzeko dugu energia iturri fosilak sortzetik iturri berriztagarriak sortzera iragatea. Iragate horretan, bertzeak bertze, lurra eta airea izan daitezke aukeretako batzuk.



Anterola
Técnico instalador 629 449 602

ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK
AIRE GIROTUA
KOMUNEKO & SUKALDEKO OSAGARRIAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Zerbitzu & Gremioen koordinazioa

tinka energiak

Pellet eta egurrezko estufa eta galdarak | Lurreko suak
Eguzki plakak | Haize errotak | Tximini garbiketak
Iturgintza lanak | Gasezko galdarak eta zerbitzu teknikoa
Komuneko altzairuen salmenta eta instalazioa

Abartan 16B ELIZONDO
948 452 772 | 607 631 881 | 637 895 032

www.tinkaenergiak.com
tinka@tinkaenergiak.com

Ba al zenekien...
aerotermiak,
bataz bertze,
geotermiak baino
%70 gehiago
kontsumitzen
duela? Halere,
sistema
aukeratzerako
orduan
kontsumoa ez
ezik, inbertsio-
kostua,
mantentze-lana,
amortizazioa eta
erosotasuna ere
kontuan izan
behar dira.

BEROTZA
PELLET

PELLET SISTEMEN SALMENTA,
INSTALAZIOA ETA MANTENTZEA

948 450 063-620 886 443
info@berotza.es-www.berotza.es
31745 ITUREN (Na)

BEROGAILUA GALDARA
GALDARA MISTOA OKINDEGIKO LABEA



Aerothermia


Bero iturri moduan kanpoko airea erabiltzen duen sistema da. Airearen energia xurgatzen duten berogailu-bonbei esker, udan etxeko hozte-sistema gisa eta neguan berogailu bezala ez ezik, urte osoan ura berotzeko ere erabil daiteke.

Instalazio sinple eta konbinagarria

Aerothermiaren instalazioa hagitx sinplea izaten da eta ohiko erradiadoreekin edo zoru erradiatzailearekin konbinatzeaz gainera, ia ez du mantentze lanik. Hortaz, hasierako inbertsioa errentagarri gertatzen da.

Gutxi kontsumitu, aunitz ekoizteko

Aerothermiak kontsumitzen duen energia baino gehiago ekoizten du. Zehazki, elektrizitatetik kontsumitzen duen kw bakoitzeko 4,5 kw-ko indarra eskuratzea lortzen du. Horrela bada, berogailuetatik lortzen dugun temperatura horren %75 inguru amalurrak eskaintzen dizkigun baliabideak ustiatuz lor daiteke.



Geothermia

Lurraren berotasunari probetxu ateratzeko sistemari deritzo. Horren bidez, lurpeko temperatura lortzen da eta kanpoko temperatura aldatuagatik, errendimenduak ez du gorabeherarik izaten. %30 eta %70 artean gutxitu daiteke berogailuaren kontsumoa; eta %95ean hozkailuarena.

Edozein baldintza geologikotan eraginkorra

Edozein baldintza geologikotan erabil daitekeen sistema da. Areago, baliabide geotermikoaren

arabera sailkatu ohi da. Temperatura baxuko geotermiak, erraterako, errefrigeraziorako arront aproposak dira. Horien bidez, hozkailuaren kontsumoa %95 eta berogailuarena %30 eta %70 artean gutxitu daiteke.

Aerothermia edo geothermia bidezko sistemak aukeratzeko orduan, kostua ez ezik, komenigarria da bertze hainbat alderdi aintzat hartzea: inbertsio-kostua, errendimendua, mantentze-lanak, amortizazioa, erosotasuna, iraupena, estetika...



ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAZIO ZERBITZU INTEGRALA

- Instalazioa -
- Martxan jartzea -
- Mantentze-lan ofizialak -



www.orleghy.com

T. 948 56 26 04
Gipuzkoa, 17 - behea **ALTSASU**

JAVI PETRIRENA



- ELEKTRIZITATEA
- ITURGINTZA
- BEROKUNTZA
- BIOMASA: EGURRA / PELLET
- KLIMATIZAZIOA
- GASA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- INSTALAZIOEN FINANTZIAZIOA

T: 679 354 947

jabi_p@hotmail.com



Fontaneria
Carlos
Carlos Pacheco

**C/Legua nº 19
31780 BERA (Navarra)
Telefono: 637 15 11 70**



matxako
KALEFAKZIOA • GASA • ITURGINTZA
609 808 756 • BERA

**PELLETEZKO ESTUFAK
eta GALDARAK**




**ULI-ZAR
ELKARTEA, S.L.**

**ITURGINTZA | BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA
MOBLEAK | MANPARAK
KOMUNERAKO OSAGARRIAK**



Bide-ondo etxea • ARESO • Tel.: 647 525 516 • 948 610 678



gaztelu scl

ITURGINTZA

Landa Behikoa Industrialdea, 21 31880 LEITZA
T. 948 510 086 | 948 510 156 | F. 948 610 856
info@fontaneriagaztelu.com
www.fontaneriagaztelu.com




**Gasa
Ura
Kalefakzioa**

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA
Osiña karrika 14 1.A
31790 Arantzua
686 23 52 30
patximutu@hotmail.com

**ERAKUSKETA:
Bidasoa, 45 - BERA**

froling

Alemanian gehien
saltzen den egurrezko
galdara




**BEROKUNTZA • GASA • EGUZKI-PLAKAK
ELEKTRIZITATEA • ZORU BERO EMAILEA
BIOMASA • AEROTERMIA**



**T. 606 337 427 | OIZ
info@ezpelura.com
www.ezpelura.com**

- **ITURGINTZA:**
 - Obra berri, erreforma eta mantenimendua
 - Diseinua zure neurria
 - 300mtako erakusketa
 - **KLIMATIZAZIOA:**
 - Biomasan adituak
 - Aeroterma
 - Gas, gasoil, pellet eta egur galdarak
 - Ekoizpen sistema konbinatuak
 - **TXIMINIEN GARBIKETA**
 - **ETXEBIBIZITZEN ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK**
 - **KOMUNEN ERABERRITZEAN GREMIO GUZTIEN ANTOLAKUNTZA**
- **KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUAK
**FINANTZATZEKO AUKERA

BAINUGELAK

Norbere burua mimatzeko...

Giblean gelditu dira bainugeletako ekipamenduak elementu funtzionalak ziren garaiak. Geroz eta garrantzia handiagoa ematen zaio diseinuari eta bainugeletan ere azken joerek zererran handia dute. Diseinu minimalistak dira nagusi. Etxebizitzetako bertze espazioetan bezala, bainugeletan zaharberitze-lanak egiteko, planifikazioa beharrezkoa da: hoditeriaren kokapena, argitasuna, aireztapena, tokia, eta nola ez, erabiltzaile bakoitzaren beharrak aztertu behar dira. Elementu guztien arteko oreka aurkitu eta ekin lanari!



Berrikuntzak materialetan eta teknologian

Diseinu bereziak lortzeko, material eta kolore aukera zabala dago. Orain artean nagusitu den zeramikarekiko kontrastean, azken urteetan, kortexoa geroz eta gehiago erabiltzen da; hezetasuna ongi irauten baitu; eta tradizioz erabili izan den zuriaren gaintetik, grisa edo beltzak dira nagusi. Azken urteotan, materialek eta berrikuntza teknologikoek ere garrantzia handia izan dute sektorean. Erabiltzaileei, bertzeak bertze, aukera estetiko eta erosoak eskaini nahi zaizkie, bainugelak norbere burua mimatu eta goxatzeko tokia izan daitezen. Horretarako, lagungarri dira temperatura neurgailuak, ur-txorrotak aukeratzeko laguntza, argi-jokoak... Gaur egungo bainugela gehienek txertatuak izaten dituzte energia eta ur-kontsumoa murrizteko gailuak ere; keinu ttiki batek, alde handia dakar.



INDARRI

Hotz komertziala eta industrialia
Aire girotua

T. 639 103 305 • Ziobi, 15 LESAKA
indharri@gmail.com

Z
Zozaya

FONTANERÍA · CALEFACCIÓN · GAS

Aire girotua
Zoru bero-emaile
Suaren aurkako babesa
Eguzki energia
Komuneko mobleak
Manparak | Txorrotak
Aparatu sanitarioak

Bainuontziak kendu eta dutxa-plaka irristagaitzak jartzen espezialistak gara

Zure beharretara egokitutako zerbitzuak eta produktuak

- Nahi den neurriko dutxa nahi den tokira egokitzeko aukerarekin
- Material eta akabera ugaritan, erosotasun eta segurtasun haundiagorako
- Zure beharretara egokitzen diren dutxako manparak
- Dutxarako osagarrietan aukera zabala

Alkaiaga Industrialdea - Elutxa, 3
 31789 Lesaka · Nafarroa
 T. 948 631 502 | 646 986 450
 oficina@fontaneriazozaya.com

ZERALEKU

ORAIN

URKO
ZERALEKU HOGAR

- ZERAMIKA
- PARKET LAMINATUA
- KOMUNeko ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK

- SUKALDEAK
- LOGELAK
- SOFAK
- BARNE DEKORAZIOA

Etxearen 3 dimentsioko aurre diseinua egingo dizugu!!

BEARZUN DETALL S.L. | Albiasu errep. ind. 31870 Lekunberri
948 504 486 | zeraleku@zeraleku.com | www.zeraleku.com

BEARZUN DETALL S.L. | Aralar kalea, 58 31870 Lekunberri
948 504 344 | cocinas@urkozzeraleku.com | www.urkozzeraleku.com



DAN
INSTALACIONES
« TXINTXETA »

LESACA

ELEKTRIZATEA
ALARMAK
SEGURTASUN KAMARAK
INTERFONOAK
SUTE DETEKZIOAK

matxura
zerbitzua
24h

T. 666 545 069
daniinstalaciones@gmail.com



Angel
TRANTXE
elektrizitatea

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- KONPONKETAK - ZAHARBERRITZEAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTATZE DEKORATIBOIA ETA INDUSTRIALA
- BERTZE ENPRESENDAKO LANAK

Giltxaurdi 16 · 31700 **ELIZONDO**
Tel.: **948 452 246 · 679 454 113**
angelmtranche@gmail.com




- INGENIARITZA ELEKTRIKOAK
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - **BERA**



Tel. 943 730 699 | www.aterki.com

Araso poligonoa · Erregeoina behea, 2 J
20305 **IRUN**

Telleriarte 16. 4-5 pab. (Zubitxo)
20230 **LEGAZPI**

info@aterki.com



LEHEN

Arazoak dituzu?
UR FILTRAZIOEKIN?
OBRARIK GABEKO
INPERMEABILIZAZIOAK

LIZUNAREKIN eta HEZETASUNAREKIN
KONDENTSAZIOAGATIK?
ISOLAMENDUA

ORAIN

ELEKTRIZATEA

Alperrikako gastuak, gustu garratza

Argindar fakturak ezustean harrapatu zaitu?

Berriz ere gerta ez dadin, honakoak dira adituek aintzat hartzeko aipatzen dituzten hamar gakoak: beharrezko potentzia kontratatu; ordutegiaren arabera tarifak aukeratu; instalazio elektrikoa berrikusi; LED bonbillak erabili; dekorazioa temperaturara egokitu; etxe-tresnak behar bezala aukeratu; hozkailuko atea agudo itxi; behar ez ditugun etxe-tresnak itzali; aire egokituaren edo berogailuaren tenperatura moderatu; eta plantxa martxan jartzean lisatu beharreko guztia egin.

Keinu tikiak aurrezki handiak

Titikeria diruditen arren, sakelean nabari da: ordutegien arabera kontratatuz, tarifar %47ko beherapena lor daiteke eta eraginkortasun energetikoaren etiketa (A+++)
duten etxe-tresnekin %55 guttiago kontsumituko dugu. Telebistak eta bertzelako tresnak ez bezala, berogailuen kasuan, itzali ordez, tenperatura jaistea aholkatzen dute. Arrazoi beragatik, lisagailua martxan jartzean, bero dagoela baliatzea gomendatzen dute.



Berogailua
20°tik
goiti jartzen
den gradu
bakoitzeko
energiaren
kontsumoa %5-7
inguru goititzen da



ELEKTRIZITATEA

Estatuaren neurriak

Gure esku dauden neurri horiez gainera, estatuak ere argindarra merkatzeko urratsak eman ditu. Bertzeak bertze, sei hilabetez argindar sorkuntzaren zergarik ez du kobratuko eta hidrokarburoen gaineko zerga berezia ere kenduko du. Horrekin batera, txartel sozialak sortuko ditu, aurrezteko bide emanen dutenak. Epe luzera begira eguzkiaren gaineko zerga kendu nahi du. Azken hori, autokontsumoan eragin handiena duen zerga izaki, neurri esanguratsua izan daiteke.

Eguzkiaren gaineko zerga 2015eko urrian jarri zen lehenbizikoz, hamar kilowattetik goitiko instalazio elektrikoak argindar sarearekin lotuta mantentzeko. Ohiko etxebizitzetan energia beharra hiruzpalau kw-koa izaki, enpresa handiei eragiten dien araua da 2021ean indarrean jartzea aurreikusi dutena. Horrekin batera, kontsumoaren %32a energia berriztagarria izatea lortu nahi dute.

Gisa berean, Gobernua pobrezia energetikoaren aurkako plan bat osatzen ari da. Argindar faktura arintzeko **bonu sozialak** jarri ditu, guraso bakarreko familiei hedatuko zaiena. Etxea berotzeko, sukalderako... laguntzak izanen dira eta hotz handia dagoen eskualdeetan emanen dira.

Horrekin guztiarekin batera, **argindarra mozteko debekua** bertze sektore batzuetara zabaldu dute. Horrela bada, %33ko desgaitasuna duten edo bigarren zein hirugarren mailako menpekotasunak dituztenak bizi diren etxebizitzetan ezin izanen zaie kendu.



Eguzkiaren gaineko zerga kendu eta kontsumoaren %32a energia-iturri berriztagarrietatik ateratzea dituzte 2021erako erronkak

Cristaleria BIDASOA
Tel. 943 61 30 63

Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN
info@cristaleriabidasoa.com

elicetxe
suministros electricos

material elektrikoak

Tel: 948 581 261 · Faxa: 948 452 397
Santiago, 83 (Industrialdea) · ELIZONDO
elicetxe@elicetxe.es

ELEK BERRI

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK (ETXE, INDUSTRIA, LOKALAK...)
ENPRESEN MANTENIMENDUA
LED ARGIZTAPEN ESTUDIOAK
TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK
PORTERO AUTOMATIKOAK
DOMOTIKA

INSTALATZAILE BAIMENDUAK

Santiago 118, Elizondo (Na) · elekberri@gmail.com · 646854825 // 616898065



Utzi gure esku zure sukalde berria!

Jauriena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauenabera@gmail.com

Etxetresnak · Antenak
Sukaldeko altzariak
Instalazio elektrikoak
Mantenimendu industrialia

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

JOSE AGERRE
pinturak



PINTURA LANAK OROKORREAN

Kanpo eta barneko pintura
Barnizatze eta lakatzeak
Parket Flotatzailea jartzen dugu

610 221 528
BERRIZAUN

Inzakardi
Pinturak



- PINTURA LANAK OROKORREAN -

Eduardo Oyarzabal
m. 630 511 488

Inzakardi, 10
DONEZTEBE/SANTESTEBAN

Melo Pinturak
T. 609 873 178
LEITZA



melopinturas@hotmail.com
www.pinturasmelo.com


Otxoteko
PINTURAK
ELEKTRIZITATEA



Bittiria, 18 - 31770 LESAKA
tel. 948 637 902
Juan Luis 678 993 818 - Jon 687 147 466
e-posta. otxotekopinturak@yahoo.es

DEKORAZIOA

Kolorea dotorezia eta freskuraren eragilea



Grisa, berdea, beltza eta laranja dira etxea apaintzeko adituek gomendatzen dituzten koloreak; batzuen dotorezia eta besteen freskura, norberaren gustura. Norberaren izaera ardatz aukeratzan dute aunitzek.

Grisa:

Tonu ilunak zein argiak, egokiak dira oso gure etxea janzteko. Kolore gehienekin ongi doanez, milaka aukera eskaintzen ditu.



Berdea:

Kolore bizia proposatzen dute, Greenery izenekoa; ukitu horixka du eta udaberriko lehenbiziko hostoak gogorarazten ditu. Freskura eta lasaitasuna darie tonu honekin margotutako hormei eta osagarriei. Tonu ilunagoa nahiago dutenentzat esmeralda kolorea gomendatzen dute.




Beltza:

Kolore ilunek ere badute beraien tokia, baina kontuz ibili behar da non eta nola erabili erabakitzerakoan: ongi argizatuta dauden logetan bakarrik erabili beharko genituzke. Kolore txuriarekin konbinatuta emaitza dotorea lortzen da, orekan dago gakoa.



Laranja:

Laranja ilunak bere tokia irabazi du gure etxebizitzetan. Energia handiko kolorea da, beroa eta dibertigarria. Horma bat kolore honekin margotzeak apustu ausarta dirudi, baina zure etxebizitza moda-modan egotea nahi baduzu hau da zure kolorea.



Koloreen orekak garrantzia handia du. Adituek kolore ilunak ongi argizatutako geletan bakarrik erabiltzea gomendatzen dute.

DEKORAZIOA

Espazio irekiak, natura usaintzeko

Artilea, algodoia, larrua, belusa..., materialak nahasiz, ehunduren artea izanen da nagusi; areago, tankerako konbinaketak eginen dira lurlean; parketa eta baldosa konbinatuz, erraterako. Espazio irekiak izanen direnez, pareten funtzio banatzailea lurra har dezake. Berariaz bereizi nahi diren txokoetan, elementu gardenak erabiliko dira: kristalezko ateak, erraterako.



ARGAZKIA: kronotex

Ingurumenarekiko errespetua

Espazioak ez ezik, armairuak ere irekiak izanen dira; eta forma emateko, birziklatutako materiala erabiliko da maiz. Natura eta ingurumenarekiko errespetua, berrerabilitako materialean ez ezik, landareetan ikusiko da: landareak zaintzen trebeak ez direnentzat ere bada aukerarik, biniloetan ere berdea izanen baita jaun eta jabe.



ARGAZKIA: pinterest

Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa

"TELLETXEA"
Lorazaintza

T. 619 418 683 | LESAKA | johntellexea@hotmail.com
www.tellexalopezaintza.com

Pinturas
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)
pinturasalzuyet@yahoo.es

- Fatxaden zaharberritzea
- Barne-dekorazioa
- Isolamenduak pladurrean
- Pintura industrialia
- Egurra eta altzarien lakatze eta bernizatzea kabinan

PATXI ZAMORANO

Leitzako bidea 31740 DONEZTEBE
948 450 734 | 606 377 424
info@patxizamorano.com

BARNIZADURAK

- Naturalak
- Tindatuak
- Zahar itxurakoak
- Suaren kontrakoak

LAKATUAK

- Horitzearen kontrakoak
- Patinatuak
- Testuratuak
- Mate-distira

ATEETAN, ARMAIRUETAN, ZOKALOETAN...

KANPOALDEKO UR-BERNIZAK

mota guztietako egurretan eta kalitate haundieneko materialekin leihotan, leiho-ateetan, balkoietan, teilatu-hegaletan...

BARNE ETA KANPO-DEKORAZIOA:

Etxebizitzak, lokalak, bulegoak, auzo-komunitateak, fatxadak...


AKABERA RUSTIKOAK, LAUSODURAK, ESTALDURAK, PATINAK, EFEKTU BEREZIAK...

ZURLAN bat
ZURGINDEGIA S.L.L.

Goiko errota - Leitza | T./F. 948 51 04 02
M. 669 70 79 16

info@zurlan.net
www.zurlan.net

SUKALDEAK Toki eta armairu irekiak



Familia mahai-inguruan biltzeko eta eguneko gertakariei errepassoa egiteko txokoa da aunitzentzat sukaldeak. Egongelarekiko mugak urratzeko, 2019an sukalde irekiek indar handia hartuko dute. Egongelak eta sukaldeak bat eginez argitasuna, batasuna eta espazioari etekina ateratzeko aukera ederra sortzen da. Halakoetan usaina zabal ez dadin, ke-kanpaiak aukeratzeko arreta berezia izan behar da. Baina ez kezkatu, handia izateak ez du eragozpenik, dena bistaratzea moda-modan dago eta.

sukalDeco
estudio cocina y baño

IRURITA
Tel.: 948 580 666
www.sukaldeco.com



2019an sukalde irekiek indar handia hartuko dute. Egongelak eta sukaldeak bat eginez argitasuna, batasuna eta espazioari etekina ateratzeko aukera ederra sortzen da.

Altzari rustikoak
Altzari modernoak
Gazte tokia
Outlet txokoa
Koltxoiak
Sukaldeak

**MUEBLES
TELLETXEA**
ALTZARIAK

www.mueblestelletxea.com

Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE
Tel. 948 450 258-948 451 811



Dekorazio proiektu integralak



Armairuen ordez apalak izanen dira tendentzia.



Material autogarbigarriak

Gisa bertsuan, armairuen ordez, apalak izanen dira tendentzia, orain artean ezkutuak izan dugun ontziteria ederra zokoetatik ateratzeko tenorea ailegatu da.

Teknologia sukalderraino helduko da. Bertzeak bertze, material autogarbigarriak eta bakterioen aurkakoak; behatz arrastoak markatzen ez diren laminatuak; musika sistemak... ikusiko ditugu.

muebles
ORDOKI
altzariak

Plaza Zaharra, 27 | LESAKA
T. 948 637 780
Erakusketa: Bittiria, 28 | LESAKA
T. 948 638 076
info@mueblesordoki.com



www.mueblesordoki.com

Carpintería

Lizasoain, S.L.

ERREFORMAK OROKORREAN
LEIHOAK · ATEAK · ESKAILERAK
ARMAIRUAK · SUKALDEAK · PERSIANAK

948452077 · Zaldubia ind. · 31730 IRURITA
carpinteria.lizasoain@gmail.com



Zure beharretara egokitzen gara

Sukaldeak | Armairuak | Bainugelak



Egongelak



Logelak



Gazteentzako logelak



Sofak



Txokoak



Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan CIEsek Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere



Ttipi-Ttapa rekin zure iragarkiak eragin haundiagoa du

29.000 irakurle **TTIPI-TTAPA**



8.000 irakurle **DIARIO NOTICIAS**



10.000 irakurle **DIARIO NAVARRA**



2.000 irakurle **ARGIA**



4.000 irakurle **BERRIA**



6.000 irakurle **GARA**



SEXUAREN ARABERA

Gizonak	%56,70
Emakumeak	%43,30

ADINAREN ARABERA

14-24 urte	%16,70
25-34 urte	%05,00
35-44 urte	%16,90
45-54 urte	%25,00
55-64 urte	%20,60
+64 urte	%15,70

IKASKETA MAILAREN ARABERA

Oinarrizko ikasketak	%12,90
Oinarrizko batxillergoa	%11,50
Goi mailako batxillergoa	%38,10
Unibertsitatea	%37,50

Zabarkeria eta zakarkeria salatu dute Bortzirietan

«Zabor ugari pilatzen da edukiontzietatik kanpo eta, bertzetik, zabor puntuetan kalteak eragin dituzte» dio Mankomunitateak

TTIPI-TTAPA

Azken aldi honetan bi arazo nagusi izan dira Bortzirietako zabor puntuetan, eta horien ondorioz, edukiontzien erabilera galarazi eta gure herrietako inguruak zikindu dira. Zabarkeria eta zakarkeria salatu ditu Hiri-Hondakinen Manlomunitateak.

Mankomunitatetik jakinarazi dutenez, «zabor ugari pilatzen da edukiontzietatik kanpo, honek itxura txarra dakar, bilketa arazoak, langileei lanak pilatzen zaizkie, zerbitzuak atzeratuz eta lana

behar bezala egitea oztopatuz. Haizearen bitartez puntuko zaborra sakabanatzen da, eta gauean, animaliak (katuak, txakurrak) zabor poltsak puskatu eta dena zikintzen dute».

Bertzetik, zabor puntuetan kalteak eragin dituzte azken aldian: edukiontzien tapak puskatu, edukiontzi batzuk erre kara bota eta bertzeak erre... Arantzan bi puntutako errefusa edukiontzietan ezohiko kalteak eragin dituzte, edukiontzi hauen bortsuak puskatu dituzte, eta tapa horiez aparte bertze zortzi zerradura



Zaborra edukiontzietatik kanpo eta eragindako kalteetako batzuk. UTZITAKOAK

puskatu dituzte. Kalte horien kostua Mankomunitateak ordaindu behar izan du.

Mankomunitatetik jakinarazi dutenez, «hau saihesteko neurriak aztertzen ari gara, eta arazoekin segitzen badugu, puntu horiek kentzeko erabakia hartuko dugu».

Beran ere edukiontzi batzuk erre zituzten irailan eta honek kalte eta gastu handiak sor-

tu zituen. «Noizbehinka errekan agertzen dira edukiontziak, asteburuan jendearen harrokeria dela eta. Honek erreka kutsatu, erreka inguruak zikindu, edukiontzien erabilera galarazi eta langileentzako trabak bakarrik jartzen ditu. Hau saihesteko ere konponbide baten bila gabiltza», adierazi dute Hiri-Hondakinen Mankomunitatetik.

HONDAKINEN PREBENTZIOA EROSKETETAN

Azaroaren 19tik abenduaren 19ra

Erosketak hondakinik gabe eraman eta parte hartu zozketetan

ATXIKITURIKO ESTABLEZIMENDUETAN



Oficina de Prevención de Residuos y de Impulso a la Economía Circular
Hondakinak Prebentzeko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoa





Teruel, Albarracín eta Cuencako bidaiaren ondotik, heldu den urtekoei begira daude. UTZITAKOAK

134 lagun Teruelen, Albarracinen eta Cuencan ibili dira

Bertzeak bertze, Teruelgo maitaleen museoa, Albarracingo katedrala eta harresiak eta Cuencako katedrala ikusi dituzte

FERNANDO ETXEBERRIA

El País egunkariak, bazkideei eginiko ikerketa batean bildutako datuak aintzat harturik, estatu mailako herri politena Albarracín dela jakinarazi zuen. Elkarteko 134 bazkidek urriaren 22tik 25era, astelehenetik ortzegunera bitarte, eginiko bidaiaren ondotik, bisitatzea merezi duela berretsi zuten.

Lau egunez, inguruko parajez gozatzeko aukera izan zuten. Goizetan eta iluntzetan hotza izanagatik, egunean zehar eguraldi ederrak girotu zuten egonaldia. Albarracín-ra joan aitzinetik, Teruelen egin zuten geldialdia; ondotik, berriz, Cuencan izan ziren.

Ondare kulturala ezagutzuz

Bidaiariak Teruelen maitaleen mausoleoa, mudejar dorreak... bisitatu zituzten; Albarracinen,

berriz, karrika estu eta bitxi-
nietan barna ibili ziren, Batzuk
eskaileretatik eta bertzeak
aldapa goitituta, katedraleraino
ailegatu ziren. Inguruaz
eta inguruko harresiez gozatzeko
aukera izan zuten.

Hortik plazara joan ziren, eta bertan taldeko argazkia atera zuten. Bazkaldoan, Bronchal aldera joan ziren eta urdaiazpiko lehortegia ikusi eta gaiari dagozkion zenbait alderdi ezagutzeko aukera izan zuten. Zuzendariaren arabera, bistakoa izan zen bisitarien interesa, eta horren adierazle izan zen gaiaz zituzten jakin-

2019RAKO AURREIKUSITAKO ATERALDIEN BERRI EMAN ZITZAIEN

tzak eta azalpenak jaso bitartean egin zituzten galderak.

Hirugarren egunean, Cuencarantz jo zuten. Bi ordu eta erdiko bidaiaren ondotik, katedrala, monumentuak eta inguruaz gozatu ahal izan zuten; ibilbide horretan guztian bisita gidatua jaso zuten; hala, datu kultural eta historiko interesgarrien berri jaso zuten. Arratsaldean, eguna borobiltzeko, Hiri Sorgindura joan ziren.

Hondarreko eguna Tarazonan pasa zuten. Bertako katedrallean ez ezik, herriko karriketaren barrena ibili ziren. Bertzeak bertze, udaletxea eta judutarren karrika ikusi zuten. XVIII. mendeko zezen-plaza egin zitzaizen deigarrien, etxebizitzak barrenean dituen eraikina delako. Eguerdian, Castejonon gelditu ziren. Bazkari ederraz gozatu ahal izan zuten, eta nahi izan zuenak, mahaiaren bueltan, bidaiaren ikusitakoaz solastatzeko aukera ederra izan zuten.

Heldu den urterako bidaiak

Bueltan zetozela, autobusean, heldu den urterako aurreikusitako ateraldien berri eman zieten elkarteko kideei. Batek buelta egin orduko bertzeari begira daude bazkideak.

Elkarteko ordezkariak 19. buletina abenduan banatuko dute

F. ETXEBERRIA

Zuzendaritza batzordeak elkartearen egungo egoera eta aitzinera begirako eginbeharrak solastatzeko bilkura egin zuten joan den urriaren 30ean, asteartean. Hainbat kontu lotzeko aprobetxatu zuten bilkura.

Kiroldegiekin hitzarmenak

Eskualdeko kiroldegiekin egin dituzten hitzarmenak izan zituzten hizpide. Hitzarmen horiei esker, elkarteko bazkideek, bai izena emateko baita jardueretan parte hartzeko ere, %50eko deskontua izanen dutela oroitarazi zuten.

Aitzinera begira egiteko ugari

Bertzalde, ekainean elkarteko presidentea aukeratzeko egitekoak dituzten hauteskondeez mintzatu ziren. Deialdiaren berri hurrengo buletinean emanen bada ere, nahi dutenek izena emateko maiatzaren 30era arteko epea izanen dutela jakinarazi nahi izan dute.

Ekaineko aukeraketari ez ezik, heldu den urte osoari begiradaxo bat bota zieten. Zehazki, 2019ko bidaien inguruko proiektua lotua utzi zuten. Guztira hogei bidaiak eta hamabi mendi-irteera aurreikusitakoak dituzte. Ateraldi horiez gain, ikastaroak ere izanen dituzte. Erakundeek eman dituzten diru-laguntzei esker, bai bidaietako, baita ikastaroetako kostuak murriztea lortu dute; eta ondorioz, parte hartzeko guttiago ordaindu beharko dute.

Buletina prest

Azkenik, urte hondarrean banatu ohi duten buletina prest utzi zuten. 19.a izanen da eta elkarteko ordezkariak abenduan banatuko zaiela adierazi dute.

Euskal prentsaren mugarri izendatu dute Ttipi-Ttapa

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren epaimahaiarentzat «bertze aldizkarien bide-erakusle espanturik gabea» da

TTIPI-TTAPA

Euskal kazetaritzako hamar mugarrietako bat da TTIPI-TTAPA, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren epaimahaiarentzat. Sari hauen 30 urteurrena dela eta ekitaldi berezia antolatu zuten urriaren 26an Andoainen, *30 urte, 10 mugarri* izenburupean. TTIPI-TTAPAREKIN batera, *Anaitasuna*, *Zeruko Argiatik Argiara*, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, EITB, *Elhuyar* aldizkaria, *Euskaldunon Egunkaria*—eta haren jarraitzaile *Berria*—, Euskal Irratiak,

eibar.org eta *Goiena* dira euskal kazetaritzaren mugarriak.

Alea aldizkariako zuzendari Aritz Martinez de Lunak eman zion saria Aitor Arotzenari, TTIPI-TTAPAKO zuzendariari. Epaimahaiak nabarmendu du jadanik sendoturik ematen duen tokiko hedabideen errealitatearen aitzindaria izan zela TTIPI-TTAPA: «1982an sortu zen Beran, gaur egun indartsuago ageri diren bertze aldizkari batzuk baino hainbat urte lehenago. Sarri zabaldu zen Bortzirietako gainerako lau herritara eta zainak hedatu



Mugarri izendatutakoak eta sari-emaileak Andoainen. GOIENA.EUS

zituen Nafarroako mendialdeko bertze ibarretan barna: Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitzaldea... are eta, mugak hautsirik, Sara eta Senpere herri lapurtarretaraino».

Epaimahaiaren erranetan, «bere bizi luzean goiti-beheitiak izan baditu ere, hama-boskari gisa finkaturik dago gaur egun. Bere gogo berritzailea hasieratik jarri du age-

rian. 1994an kolorea sartu zuen bere aleetan eta 1996an bere edukiak Interneten bidez hedatzen ere euskarazko lehen tokiko aldizkaria izan zen. Herria astekariaren eredutik abiatuta, bere nortasuna garatu du Ttipi-Ttapak, eta Euskal Herriko zoko guztietan sortu diren bertze aldizkarien bide-erakusle espanturik gabea izan da urte hauetan».

DONEZTEBEN neurria egindako etxebizitzak



PROMOCIONES
MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber)
650 328 879 (Sergio)

Etorri eta erakutsiko dizuegu!



110.000€tik aurrera
Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren araberako finantziazioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



**2. faseko
AZKEN PISUAK
eta LOKALAK salgai**



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



Mendialdeko parte-hartzeari buruzko topaketa egingen dute

Azaroaren 16an dute hitzordua, udaletxeko Batzar Aretoan, ostiralean 09:00etan

JM BARRIOLA

Gobernuak eta Cederna Garalurrek, elkarlanean, antolatuta, parte-hartzeari buruzko topaketa izanen dute azaroaren 16an. Mendialdeko toki entitateetako eta beste erakunde sozial, enpresarial eta aholku-emaile batzuetako politikariak eta teknikariak, unibertsitateak, tokiko garapen-agentziak, lanbide elkaragoak, hedabideak, gai horrekin lotura duten adituak, sindikatuetak... interesa duen beste edonork har dezake parte. Helburuak «herriarren parte-hartzeak duen garrantziaz hausnartzea, esperientziak aurkeztea eta proposamen batzuk bereiztea» izanen dira.

EGITARAUA

09:00etan Mikel Zabaletak, Cederna Garalur elkarte

ko Maite Iturrek eta Ana Ollok egingen dute topaketaren irekiera. Segidan, Javier Asinen eskutik, *Herriarren parte-hartzea kudeaketa publiko eta pribatuan* izanen dute hizpide. 10:00etan Leitza Kontsumituz prozesua mahairatuko dute eta Markel Azkagorta izanen da hizlari. Segidan Mendialdeko udal eta kontzejuek bultzaturiko beste esperientzia batzuk partekatuko dituzte. Atsedendiaren ondotik, 11:05ean, Mendialdeko bestelako entitateek sustatutako esperientziak aurkeztuko dituzte, tartean Baztango Zaporeak elkartekoa. 11:45ean *Parte-hartze publiko eta soziala bulkatzeko aurrerapenak eta erronka berriak* izeneko hitzaldia izanen dute. Entzuleei hitza emanez bukatuko dute topaketa.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ekuatoriarrak elkartzeko gunean lanean

Urriaren 22an hasi zituzten saioak eta buru-belarri ari dira lanean: norberaren burua emakume bezala identifikatu eta jabetzeko, lan-eskubideak lantzeko... Sorburu elkarte



UTZITAKO ARGAZKIAK

130 ziza sailkatu dituzte Mikologialdian

XI. Mikologialdia euritsua bezain emankorra izan zen. 130 ziza mota sailkatu zituzten. Karrapean jarri zituzten ikusgai eta ikusle andana bildu zen urriko azken asteburuan. Ikusteko ez ezik, ikasi eta dastatzeko aukera ere izan zuten bertaratu zirenek.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Zabaleta izanen da zerrenda-buru

EH Bilduk alderdian egindako alkategairako hauteskunde-prozesuan hala erabakita, Mikel Zabaleta alkatea izanen da heldu den urtean, maiatzean, izanen diren hauteskundeetan EH Bilduko zerrenda-buru. Nahikoa babes lortu du gaur egun ere alkate denak.

Emakumeenganako indarkeria salatzeneko ekitaldiak prest

Aranon eta Areson ipuin-kontaketa izanen dute hilaren 18an eta 30ean, hurrenez hurren

TTIPI-TTAPA

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izanen da azaroko azken igandean, hilaren 25ean. Hori horrela, *Ez dira zenbaki hutsak, gure bizitzak dira* lelopean hainbat ekitaldi antolatu ditu Berdintasun Batzordeak.

Goizuetan hitzaldia

Azaroren 16an, ostiralean, *Irailaren zortzian ez dira aterako. Hondarribiko alardeak eta indarkeriaren normalizazioa* izenburua duen hitzaldia izanen dute. Ilargi Bengoetxea Gartzia izanen da hizlaria eta udaletxeko ganbaran bilduko dira, 18:30ean. Horrekin batera, astean zehar herriko kaleetan emakumeenganako indarkeriaren kontrako mezuak dituzten kartelak jarriko dituzte.

Leitzan elkarretaratzea plazan

Leitzan azaroaren 23an, elkarretaratzea eta adierazpen instituzionalaren irakurketa egingen dute. Plaza izanen dute bilgune, 12:00etan.

Areson eta Aranon ipuin-kontaketa

Azaroren 18an, datorren igandean, Ameli ipuin-kontalaria izanen dute Aranon, Maisuenean. 12:00etan dute hitzordua eta *Munduko emakumeak* helduentzako ipuin-kontaketa musikatua eskainiko du. Azaroaren 30ean, ostiralean, berriz, Aranora joanen da Ameli. Kasu horretan, haurrentzako ipuin kontaketa musikatua izanen dute. Udaletxean, Erabilera Anitzeko Aretoan bilduko dira 18:00etan hasiko da.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Kinto bazkaria egin dute Areson

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, 1955 eta 1958 bitartean jaiotakoek kinto bazkaria egin zuten urriaren 20an. Argazkian ageri den lagun taldea Pake Toki elkartearen bilduren eta bazkalondoan, mahai-inguruan, kontu-kontari aritzeko aukera izan zuten.

Astibiko erortzak eragindako kalteak moldatzeko konpromisoa lortu dute

TTIPI-TTAPA

Astibiko erortza modatzeko Nekazaritza, Arrantza eta Elidakura Ministerioaren konpromisoa lortu du alkateak. Horri esker, 2015an kalteak izan ziren eta geroztik itxita dagoen Plazaolako bide zatian moldaketak egingen dituzte.

Aurrera eramatea teknikoki zaila izanagatik ere, heldu den urtean 200.000 euroko aurrekontuarekin ekitea erabaki dute. Era berean, Ederbidea proiektuaren barrenean, Gobernua Plazaolako geltokia berrituko du. Lanek 117.900 euroko aurrekontua dute.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Euskararen ofizialtasuna aldarrikatuz

Urriaren 26an euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora hedatzeko eta zonifikazioaren mugak gainditzeko egin ziren askotariko aldarrikapenekin bat egin zuten leitzar batzuek. Argazkian ageri den kuadrillak *#Behingoz* traola bere egin zuen eta plazara atera ziren.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Arimen gaua ospatu dute Aranon

Gurasoek antolatuta, Arimen gaua ospatu zuten Aranon. 22 orduko guraso andana bildu ziren Maisuenean, elkarrekin afaltzeko. *Ahotsa.eus* atariko bideo batzuk ikusi ondotik, bi film jarri zituzten. Batzuek bertan lo egin zuten eta, biharamunean, bildu ondotik joan ziren etxera.



Betizuak 2015eko feria egunean. Aurten protagonismo berezia izanen dute. ARTXIBOKOA

Betizuak inoiz baino protagonismo handiagoa izanen du

Azaroaren 24ko azienda feria eguneko bazkarian betizu haragiarekin egindako gisatua emanen dute

TTIPI-TTAPA

Umore Onak, Guraso Elkarreak, Gazte Asanbladak, Ezker Abertzaleak, Goizuetako Talogileak eta Kultur Taldeak Udalaren laguntzaz antolatuta, feriarean

hamabosgarren edizioa izanen da azaroaren 24an.

Azken urteetan bezala, aurten ere, betizuek indar berezia izanen dute. Nafarroako betizuen erdiak eta Euskal He-

rriko betizuen ehuneko handi bat herrian daudela aintzat hartuz, ez da harrizkoa azizien bueltan betizuek hartzen duten garrantzia. Aurten, ordea, azienda erakusketan ez ezik, mahaian ere bere tokia hartuko du. Hortaz, «inoiz baino protagonismo handiagoa» izanen duela gaineratu dute. 450-500 lagun bildu ohi diren herri-bazkarian ohiko menuan bigarren plater gisa betizu gisatua izanen dute.

Era berean, herriko aziendak aterarazteko kanpaina egin dute. Abeltzainei eta aziendak dituzten herritarrei beren

aziendak plazara ateratzeko deia egin diete, bai gutun bidez, baita ahoz aho ere. Aurten ere, izena ematen duten baserrietatik azienda jaitsi eta igotzeko garraio-kostua Udalak bere gain hartuko du.

Egitaraua

10:00etan abiatuko dute eguna artisauen erakusketarekin. Batzuen lan errak ikusi bitartean, gaztainak erosi eta sagardoa dastatzeko aukera izanen da eta herriko talogileak lanean ariko dira goiz osoan. Trikitilariak ere girotuko dute herria. 12:30ean Goizueta eta Emarri taldeen arteko giza-probak izanen dira ikusgai. 14:00 aldera bazkarian bilduko dira. Esan bezala, betizu haragi gisatua izanen da, baina aurretik babarrunak eta ondotik postrea ere izanen dute dastatzeko. Bazkari-txartelak Amaia kafetegian daude salgai (zortzi urte artekoek doan; 9-16 urte bitartekoek hamar eurotan; ikasle eta langabetuek 18 eurotan; eta langileek 21etan). Eguna borobiltzeko, 18:30ean dantzaldia izanen dute, Bixenteren eskutik. Gauean parranda segitu nahi duenak gaztetxean izanen du aukera.



FELIX LOIARTE

Umore Onako atalen eguna

Umore Ona elkartearen atalek bere eguna ospatu zuten urriaren 28an. Irumaita txarangak eta elkarteko atalek irteera egin zuten Madalenatik, pilota partidak, Umore Ona Abesbatzaren, dantza taldearen eta txarangaren emanaldiak eta bazkaria eta dantzaldia izan zuten elkartearen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jubilatuen mus eta truk txapelketak

Jubilatuen eguneko mus txapelketan Manolo Legarreta eta Joxe Goizueta suertatu ziren txapelak, finalean Jose Ramon Sainz de Murieta eta Eduardo Tatori irabazita. Trukean, berriz, Felisa Salaberria eta Paquita Goizueta txapelak eta Mari Carmen Tomasena eta Milagros Apezetxea bigarren.



José Bové sindikalista eta europarlamentaria izanen da hizlari. ARTXIBOKOIA

Nekazaritzaren etorkizunaz ariko da José Bové Elizondon

Sindikalista ezagunak parte hartuko du 'Landa Begiradak' goiburupean Baztango Udalak antolatutako jardunaldietan

TTIPI-TTAPA

José Bové Frantziako nekazaritza sindikalista eta europarlamentaria da. Europako parlamentuan nekazaritza eta landa-garapeneko lehendakari ordea eta Confédération paysanne nekazal sindikatu frantsesaren fundatzailea eta bozeramaile ohia ere bai. Nekazaritza-politika alternatiboaren bila, tokian tokiko nekazari ttikien defentsan atera da beti, nazioarteko mer-

kataritzako itun ekonomikoak salatuz. Elikadura burujabetzaren aldeko ekintzailea izanik, nazioarteko ekimenetan parte hartu izan du. Transgenikoen kontra ere gogor mintzatu izan da. José Bové landa eremuen eta nekazaritzaren etorkizunaz ariko da, geroari buruz Baztanerako kontuan hartzeko gaiak. Mintzaldia Udalak antolatu du eta **azaroaren 24an**, Arizkunenea kultur etxean izanen da,

11:30ean. Euskarara aldi bereko itzulpen zerbitzua eskainiko da. Bovéren mintzaldia *Landa Begiradak* goiburupean Udalak antolatu dituen jardunaldien barnean egingen da.

Landa Begiradak

Bovéren mintzaldia baino lehen, **azaroaren 18an**, igandean 19:00etan *Petit Paysan* pelikula eskainiko dute Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean.

Azaroaren 21ean, asteazkenean 19:30ean Arizkunenea Kultur Etxean, *Landa eremuen garapenean ekonomia eta hizkuntza eskutik* goiburupean, Mexikoko nahuatl hizkuntza eta Tosepan kooperatiba taldearen kasuaz solastatuko da Lizbeth Sanchez Ortizek, Garabide Elkartek antolatutako mintzaldian.

Azaroaren 26an, azkenik, Adinekoen zaintzarako udal planaren aurkezpena egingen du Iñaki Buitron Arcinnova aholkularitzako teknikariak Arizkunenean (18:00).

Landa begiradak landa eremuari buruzko gogoeta kritikoa pizteko elkargunea izan nahi du oraingo garai eta jendartearen orokorrak diren hizpideak landa-eremuen berezitasunetik aztertuko dituena, agenda politiko eta publikoa lehiatzeko sortzen den gogoeta gunea, landa-eremuko egiazko arazoak eta erronkak zein diren identifikatuz eta horiei buruz hausnarketa eta esku hartzeak bulkatuz.

Bertso-afaria Amaiurko Gaztelun azaroaren 24an

Amaiurko Gaztelu elkartearen bertso-afaria izanen dute azaroaren 24an, larunbatean 21:00etan, Unai Agirre eta Aitor Sarriegi bertsolariekin. Txartelak 25 eurotan salgai daude Amaiurko Gaztelu ostatuan eta Elizondoko Intzan, azaroaren 20a bitarte.

Santa Zezilia ospatuko du Udal Musika Eskolak

Santa Zezilia eguna ospatzeko, Baztango udal musika eskolako ikasleek musika ekitaldia eskainiko dute azaroaren 20an. Datorren asteartean 17:00etan Zahar Etxetik Elizondoko plaza abiatuko dira kalejarian. Eurria egingez gero Musika Eskolan egingen lukete saioa.

VIII. Mariano Izeta bertso sariketa azaroaren 23an

Nafarroako Bertsozale Elkartek eta Baztango Udalak antolatuta, VIII. Marino Izeta bertso sariketa egingen dute azaroaren 23an Arizkunenean (19:30). Azaroaren 30ean, berriz, leku berean hitzaldi-bertso tailerra eskainiko du Arkaitz Goikoetxeak (20:00).

25 AZAROA NOVIEMBRE

BAZTANek EZETZ ERRATEN DU

BAZTANek ERRATEN DU

Baztango Udala | Nafarroako Gobernua | Gobierno de Navarra | NAFARROAKO UDALAK ETXEN FERIAZARTEAN | FEDERACION NARRA DE MUSEOS Y CONCERTE

San Andres eguna ospatuko dute hilaren 24an Zigan

Zigaurren dago izen bereko ermita eta eskulan tailerra, mus txapelketa eta aforia izanen dituzte egun horretan

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 24an ospatuko dute San Andres eguna Zigan, Zigaurre auzoan dagoen ermitaren omenez. Azken urteetan bezala, arratsaldean haurrentzat eskulan tailerra eta txokolata beroa izanen dira. Mus partidak elkartean 18:00etatik goiti hasiko dira. Ondotik aforia izanen dute frontoian, eta gero Salaberrirekin dantzaldia. Frontoia berotzeko berogailua jarriko dute. Afarira joan nahi duenak aitzinetik txartela erosi beharko du. Txartelak salgai



Esku-lan tailerra izanen da aurten ere.

egonen dira azaroaren 18an, igandean, meza ondotik elkartean. Eta bertzenaz Iratxe edo Juleni galdegin behar zaie.

Bideoak sortu eta sare sozialetara igotzen ikasteko sormen laborategia

TTIPI-TTAPA

16 eta 22 urte bitarteko gazteei zuzenduta sormen laborategia antolatu du Euskara Zerbitzuak, bideoak sortu eta sare sozialetara igotzen ikasteko. Katubiko Oier Fuentesek eskainiko du Arizkunenean. Izen-ematea azaroaren 29a baino lehen egin behar da, euskara@baztan.eus

helbide elektronikora idatziz edo 948 580006 telefonora deituz. 10 euro gostako da izena ematea eta plaza mugatuak izanen dira. Baztanen errol-datutako gazteek lehentasuna izanen dute.

Abenduaren 27an eta 28an eta urtarrilaren 3an eta 4an eskainiko dute (10:00-12:00).



TESTUA ETA ARGAZKIA: FERNANDO ANBUSTEGI

Jendetza bildu du XIX. Kirikoketa bestak

Jendetza bildu zen azaroaren 3an Arizkun, Jo ala Jo kultur taldeak antolaturiko Kirikoketa bestaz gozatuz. Aurten 20 urte bete dituen kultur taldeak XIX. Kirikoketa besta burutu zuen. Erroturiko besta da, urtez urte gero eta parte-hartzaile gehiago eta gero eta ikusle gehiago biltzen dituen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Saharaztanen bizikleta Amaiurrera

Elizondoko ferietan egindako Saharaztan elkarte tonbolan, Berako Katea Bikek eskainitako bizikletaren irabazlea Amaiurko Eneko Iribarren suertatu zen. Saharaztan elkarteak eskerrak eman dizkie zozketan parte hartuz laguntza eman duten guztiei.

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
empresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com


Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



Hondakin solidoen sortzaile handiekin abiatu da plana

Udalak ez du osotasunean onartu, UPNk eta Geroa Baik bosgarren edukiontzia alderdi jarrera erakutsi baitute

TTIPI-TTAPA

Udal-batzarra egin zuten urriaren 25ean hondakin bilketa sistema berriaz aritzeko. Sistema berria lantzen luze aritu dira udaleko eta Malerreka eta Bortiziretako Mankomunitateko hondakin teknikariak. Batez ere, hondakin organikoaren bilketa areagotzeko eta araudiari egokitutako bilketa portzentajeetara ailegatzeko.

Hilabeteetako lanen ondotik, sistemaren proposamena eskuan, azken hilabeteetan herriz herri aurkeztu zaie herritarrei. Laburki erranda, hiru fase zituen. Hasteko, sortzaile handien hondakin organikoaren etxeko etxeko bilketa osoa egitea proposatu zuen, hau da, adinekoen egoitzak, jatetxeak, janari-dendak... Bigarren fasean, herritar ororen eragina izanzen lukeen konpostajea areagotzea, app baten bidez hondakin organiko bilketa sistematizatuz eta, honela, datu fidagarriak lortu, eta hondakinak ongi bereizten dituzten herritarrei pizgarri fiskalak aplikatu. Eta hirugarren fasean, batez ere kontenedore berdearengan eragitea zegoen, horien kopurua eta tapak mugatzea, orain arte bezala, bertara edozer gauzabotatzeasaihestu asmoz.

Urriaren 25eko bilkuran, lehenbiziko puntua soilik bozkatu zuten, UPNk plana ez zuela babesten eta 5. edukiontzia lehenesten zuela argitaratu baitzuen bezperan. Joseba Otondo alkateak kritikatu egin zuen UPNren jarrera. Alkateak zioenez, «hilabete aunitzetan zehar landu da gaia,

batzorde aunitzetan saiatu dira planari ekarpenak egiten eta, azken minutuan, osoko bilkurara eraman denean, agertu dute desadostasuna». Joko politiko «ankerra» egitea leporatu zion alderdi erregionalistari.

Bosgarren edukiontzia

UPNk halakorik ez zegoela ihardetsi zion, eta ez dutela proposamenik egin, «plan hori ez dugulako hobetu nahi, baizik eta 5. edukiontzia lehenetsiko duen plan alternatibo bat egin». Geroa Bai ere 5. edukiontzia alderdi agertu zen, Lesakan ongi funtzionatzen zuela eta merkeagoa zela argudiatuz. Otondok, kontrara, erran zuen ezin dela baieztatatu hobeki funtzionatzen ote duen, ez dagoelako daturik eta ez dela merkeagoa.

Beren asmoa «beti adostasuna bilatzea» izan dela eta ez zutela nahi inork hondakin gaia arma politiko gisa erabiltzea aipatu zuen alkateak, ez direla «inoiz» 5. edukiontzia-aren kontra egon, baizik eta «zinez eraginkorra izan den plan bat landu» nahi izan dutela. Jarrerak ikusita, eta inork hondakinak joko politikorako ez erabiltzeko, planeko 2. eta 3. puntuak alde batera uztea eta soilik lehenbizikoarekin aitzinerat segitzea proposatu zuen gobernu taldeak, hau da, hondakin organikoaren sortzaile handienekin plana abiatzea. EHBildu eta Baztango Ezkerreko hautetsien alderdi 6 bozkarekin onartu zen, UPNren kontrako 4ekin eta Geroa Bai eta Baztan Auzolaneko taldeko 3 abstentziorekin.



JUAN MARI ONDIKOL

Javier Igoa garaile margo lehiaketan

Javier Igoa margolari lesakarrak irabazi zuen azaroaren 4an Elizondoko Kasinoak Joxe Mari Apezetxearen zenaren omenez antolatutako margo lehiaketa. Bigarren saria Artziniegako Fernando Uretak eskuratu zuen eta Baztango lanik onena Blanca Jimenez lekaroztarrarena izan zen.



JUAN MARI ONDIKOL

16 onddoko anduia Arraiozen

Onddoaldia sumatzen hasia da eskualdean. Arraiozko Joseba Mortalena Sarrateak 16 onddoko anduia topatu du Arraiozen. 2 kilo eta 100 gramoko pisua zuen. Otordu eder baterako ez ezik, berriz ere mendira ateratzeko eta onddo bila segitzeko animoa eman dio honek noski!

**MARMOLES
SOULE**

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com



Uhateak jartzen ikasi zuten Jaime Urrutiako merkatariek. UTZITAKO ARGAZKIA

Uholde planeko uhateak prest dituzte Elizondon

Jaime Urrutia karrikako auzotarrek nola erabiltzen den ikasteko jardunaldi teoriko-praktikoa izan zuten azaroaren 7an

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko abenduaren 21ean onartutako Baztango Uholdetarako larrialdi planaren baitan uhateak jartzeko (H2O Proiektuaren barnean) Prestakuntza tailerra egin zuten azaroaren 7an, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Uholdeen aurkako uhateak paratzea onartu eta horretara konprometitu diren Elizondoko Jaime Urrutiako auzokide eta merkatariek parte hartu zuten ekitaldian, betiere Lamia aplikazio informatikoaren bidez larrialdi maila aktibatu dela jakinarazten denean.

Prestakuntza praktikoa egin zuten, uholdeak gertatzen direlarik autobabeserako uhateak nola paratu ikasteko eta, era berean, gehiago ikasi zuten uholdeen kudeaketa hobetzeko, eta jendearen eta komunitateen autobabesa sustatzeko moduz, uholde arriskuei eta mehatxuei aurre egite aldera.

Teoria eta praktika

Ekitaldia hasteko, ongiatorri solasak eskaini zituzten Jose-

ba Otondo Baztango alkateak, Amets Inda Sunbillako alkateak eta Eva Garcia Balaguer, Nafarroako Gobernuako Ingurumeneko zuzendari nagusiak. Luis Sanz Azkarate, GAN erakundeko uraren alorreko arduradunak H2Ogurea proiektua aurkeztu zien laburki parte-hartzaileei.

Ondotik prestakuntza tailerra egin zuten, uholdeak direnean uhateak paratzeko, CAG Canalizaciones-eko Jesus Irigoienek gidatua. Azalpen orokorra eman zuten, uholdeen aurkako uhateen funtzionamendua eta paratzeko modua erakutsiz eta gero saio praktikoa egin zuten, auzokide eta merkatarik bakoitzak uholdeen aurkako bere uhateak paratu zuten leku berean eta argibideak eman eta zalantzak argitu zituzten Jaime Urrutia karrikan.

LARRIALDI MAILA AKTIBATU DENEAN PARATU BEHARKO DUTE UHATEA



UTZITAKO ARGAZKIA

Begoña Durrutyren margolana zozketan

Begoña Durruty margolariak eskuzabalki emandako margolan baten zozketa egin du Xauli elkarteak urriaren 27an Elizondoko ferietan. Saritua izandako zenbakia 0747 izan da. Sariduna Xauli elkartearekin harremanetan jarri daiteke margolana jaso ahal izateko.



UTZITAKO ARGAZKIA

49 tona ardi-ile bildu dituzte aurten

Ardi-ileak duen kudeaketa zaila tarteko, Baztango Udalak eskualdeko artzainei ardi-ilearen bilketa zerbitzua eskaini die. Bildutako ardi-ilea Artaxonako Ecofert enpresara eraman dute, eta horrela, konposta bidez tratatu eta birziklatu ahal izatea lortu nahi dute. Baztanen 134 artzainek eman dute izena, joan den urtean baino %44 gehiagok (iaz 93 izan ziren). Horrela, hamar bidaitan ia-ia 49.000 kilo ardi-ile bildu eta garraiatu dira tratamendu plantara. Udalak zerbitzuaren kostua bere gain hartu du. 6.000 euroko kostua eragin dio horrek. Horrela, «artzainek kudeaketa konplexua duen hondakin horren aitzinean laguntzea eta hondakina behar bezala kudeatua izan dela bermatzea» izan du helburu.

Azken hilabetean 268.893 uso pasatu dira herritik

'Palombe.com' usazaleen atariaren arabera sasoi ona izaten ari da aurtengoa

TTIPI-TTAPA

Sasoi ona izaten ari da usazaleentzat. *Palombe.com* usazaleen atariaren arabera, urriaren 16tik azaroaren 6rako tartean, 268.893 uso pasatu ziren Saratik. 1999az geroztik, herritik pasatzen diren uso kopuruak neurtzen ditu aipatu atariak, urriaren 15etik azaroaren 11 bitarteko datuak, Arnegi, Banka eta Urruñako datuekin batera. Herriz herri dituzten kolaboratzaileen laguntzarekin bildutako kopuruak izaten dira eta horren arabera, bereziki azaro hasiera ona izan da Saran.

Urriko egunik onena hilaren 23a izan zen. Egun horretan, 8.983 uso pasatu ziren. Hala ere, azaro hasierako egunak hobeak izan ziren. Azaroaren 3an, erraterako, 141.095 uso pasatu ziren eta biharamunean 113.244 uso.

1999az geroztiko datuak sarean

Gibelera begira, beti ere, urriaren 15etik azaroaren 11ra bitarteko datuak kontuan hartuz, 2017an 320.768 uso zenbatu-



Usoategiak. ARTXIBOKO ARGAZKIA

zituzten. 2016a urte hobeak izan zen, 543.037 uso kontatu baitzituzten. 2015a urte eskasagoa izan zen, 152.325 uso pasatu baitziren.

Duela hamar urteko datuak biziki onak izan zirela erakusten dute zenbakiek; 2008an, Saratik 743.331 uso pasatu zirela zenbatu baitzituzten. Kontaketa hau egiten hasi ziren urtean, berriz, 1999an, 427.432 uso pasatu zirela dio webguneak.

Bazkide txartelak atera ditu Sarako Izarra errugbi taldeak

TTIPI-TTAPA

Sarako Izarra sustengatzeko aukera eskainiz, errugbi elkarreko bazkide egiteko deia egin du Sarako Izarrak. Horretarako bazkide txartelak atera ditu eta hamar eurotan salgai paratu ditu. Harategian, Trinkean, Baketu jatetxean, Herriko Etxeko Edantegian eta errugbiko zelaian erosten ahalko dira. Bazkide egiten direnek txartela jasoko dute eta horrekin batera, partidetako emaitzak zuzenean eta klubeko berriak etengabe hartuko dituzte. Zozketetan parte hartzeko aukera ere eskainiko du bazkide txartelak eta aitzinerago abantaila gehiago izanen dituztela iragarri dute errugbi elkartetik.

Neguko ordutegiarekin hasi dira lezeetan

Azaroaren 5az geroztik, neguko ordutegiarekin ari dira lezeetan. Horren arabera, 2019ko urtarrilaren 6a bitarte asteleheneetik ortziralerara 14:00etatik 17:00etara irekiko dituzte lezeak eta larunbat eta igandetan 13:00etatik 17:00etara bitarte.

Ikastolak antolatutako kantaldia

Olhain Ikastolako burasoen antolatuta, kantaldia egingen da larunbat honetan, azaroak 17. 17:00etan hasiko da saioa eta ikasleak eta burasoen ariko dira kantari. Kantekin gozatzeko aukera izatez gainera, zerbait jateko eta edateko eskainiko dute.

Eguberrietako merkatua azaroaren 24an

Bertze urte batez, San Josepe eskolako burasoen Eguberrietako merkatua antolatu dute. Azaroaren 24an izanen da, eta 09:00etatik iluntzera bitarte, burasoen egindako hainbat sorkuntza salgai paratuko dituzte. Jatekoa eta edatekoa ere eskainiko dute.

Mus eta poker txapelketa abenduaren 1ean

Aurten ere, eskola publikoko burasoen mus eta poker txapelketak antolatu dituzte heldu den abenduaren 1erako. Partidak 20:00etan hasiko direla iragarri dute eta partidez gain, zerbait jan edo edan nahi duenak ere horretarako aukera izanen du.

BERA (administrarritza)
31780 Bera

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Iruñ

DANTXARINEA
31712 Urdax

LUZAIDE
31660 Luzaide

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 31^a ezik

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3.km URDAZUBI

ttipi-ttapa

T. 948 635 458
erran.eus | info@ttipi.eus



SPUCeko helduen zangobaloi taldea, haurrak eta 11 urtez behehikoak. PIERRE BASTRES

SPUCeko zangobaloi taldeak garaipena erdietsi du Ziburun

Gutti ezaguna bada ere, bixkor da zangobaloi taldea, eta adin guzietan ekipak baditu bere hamargarren urtean

PIERRE BASTRES

Sasoiko laugarren partiduarren kariatarat, Ziburun zen aurkaria azaroaren 4an Senpereko zelaian. Bertakoak garbiki nagusitu zitzaizkien (6-0) itsas bazterreko auzoei, eta honenbertzez hirugarren tokirat upatu dira. Ezpeleta eta Lahontan dute aitzinean, gibeletik dutenen artean borts talde eskualdun badauzkate: Donapaleu, Hendaia, Donibane Garazi eta Ziburun.

SPUCeko sail guzietarik gazteena izan da luzaz zangobaloiak (*footballeko*), bere hamargarren urte bete baitu aurten. Henri Perez izan da lehenbiziko SPUC-Footballeko lehendakaria eta argitu duen bezala «Jean-Michel Larque (Frantziako selekzio kapitain ohia, Senperen bizi dena) izan da egitasmoaren sortzailea. Gazteentzat sortu du elkarte bat,

SPUCez kanpo hastapenean. Ene semea, ikastolan zenean sartu zen ekipan. Urte baten ondotik arduradunak utzi zuen postua eta lehendakari hasi nintzen, borts urtez. Gero SPUCeko adar bat bilakatu gara. 20 hurrekin hasi eta orain adin guzietako 144 lizentziadun baditugu, sei urtetarik goiti: 11 urtez behehikoak, 13 urtez behetikoak, 15 eta 17 urtez behehikoak eta helduak. Ohargarria da 15 eta 17 urtekoek batasuna egiten dutela Ezpeletarekin».

Jerôme Corbineau oraingo lehendakariak, aldiz, taldeko

7 URTEZ AZPIKOEK NAZIOARTEKO LEHEN SARIA IRABAZI DUTE

goiti-behehikoak azpimarratu nahi lituzke: «egia da geroz eta arrakasta handiagoa biltzen dugula baina mugak eta trabak ere badauzkagu. Kirol mailan, hirugarren gara aurten, edeki da zeren eta gan den urteko sasoi aski nahasia izan zen. Aharra baten ondotik 3 jokolarari oneri lizentzia kendua zioten eta ahal bezala bururatu genuen sasoina. Bertalde, zelai bakar bat dugu ekipa guzientzat, entrenamendu zein txapelgoarentzat baliatzen duguna. Herriko azpiegiturak baliatzeko indar-jokoan sartzerat behartuak izan gara Herriko Etxearekin, guk eta haurren burasoek errazago izaita nahiago genuke. Hezitzaile eta trebetzaile «falta handia» dutela ere adierazi du, «hainbertzeraino non helduen ekipako trebetzaile baten pagatzerat behartuak baigara. Horrelakorik ez nuen sekula ikusi hamar urteotan, ondikoz bertzela ezin genuen egin». Halere, gauza eder zombait ere gertatu zaizkie: «maiatzaren 30ean gure 7 urtez azpikoek irabazi dute nazioarteko lehen saria, kirola eta ekologia elgarrekin uztartzen duen egitasmo batean. Arduradun guziak eta burasoak izigarri harro gara honetaz!».



Errigorako saskiak.

Errigorako produktuen hiru saski zozketatuko ditu Ttipi-Ttapak

TTIPI-TTAPA

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka lelopean, aitzinera segitzen du Errigorako udazkeneko kanpainak. Hain zuzen, asteazken honetan, azaroak 14, bukatuko da Nafarroa hegoaldeko produktuez osatutako saskiak eskatzeko epea eta beti bezala, bildutako diruaren %25a Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara bideratuko da. Borts urte bete ditu Errigorak eta urteotan 800.000 euroko ekarpena egin zaie Erriberako AEKri, Vianako Erentzun, Lodosako Ibaialde eta Tuterako Argia ikastolei eta Sortzeni.

Aurten, 23 etxek eskaini dituzte Errigorako saskiak osatzeko produktuak eta denetarik dute: kontserbak, pasta, ardoa, zukuak, ozipina, olio, arroza, gailetak...

Zozketa heldu den astean

TTIPI-TTAPAK, bere aldetik, Errigorako hiru saski zozketatuko ditu Mecna duten harpidedunen artean. Harpidedun horiek zuzenean sartuko dira zozketan, hau da, ez dute deus berezirik egin beharko parte hartzeko. Zozketa heldu den astean eginen du TTIPI-TTAPAK eta sarituek Lesakako egoitzara etorri beharko dute saria jasotzera.

Bisoi amerikarra errotik kentzeko kanpaina hasi da

Ur gaineko plataformak jarri dira gure inguruko ibai eta erreketan, Europan desagertzeko zorian dagoen bisoi europarraren harrapakaria desagertarazteko



Gure inguruko ibaietan paratu den plataforma bat. UTZITAKO ARGAZKIA

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Zuzendari Nagusiak 2018-2019 kanpainari hasiera eman dio Nafarroako isurialde atlantikoko ibaietan bisoi amerikarra errotik kentzeko. Aurreko kanpainetan bezala, Bidasoa, Baztan, Ezkurra eta Ezpelura, Araxes, Leitzarain, Urumea, Aritzakun, Urrizate, Orabidea-Ugarana eta Luzaide ibilguetan ur plataformak jarri dira irail erdialdean eta urri hasieran, eta funtzionamenduan egonen dira martxoaren bukaerara arte. Nafarroako Ingurumen Kudeaketaren (GAN-NIK) sozietate publikoak koordinatu eta LIFE IREKIBAI eta H2Ogurea europar proiektuek LIFE IREKIBAI y H2Ogurea finantzatzen dituzte ekintza horiek.

Une honetan, Frantzia larru-etxaldeetatik ustekabeen ihes egindako bisoi amerikarraren basa-populazioak dira gune honetan europar bisoia mantentzeko mehatxurik handiena. Europan gehien mehatxatuta dagoen haragijalea da europar bisoia, «egoera kritikoan» katalogatua

2017ko irailean, 150 plataforma inguru paratu ziren ibai horietan. Martxora arte egon ziren funtzionamenduan, eta teknikariek hamar egunean behin berrikusi zituzten. Azterketa horietan oinatzak detektatu zituzten 22 plataformetan, eta tranpak jarri ondoren, lau bisoi amerikar harrapatu zituzten, hiru Aritzakun-Urrizaten eta bertzea Ugarana-Orabidean.

DENA
ERRAZAGOA
DA HURBIL
BAZAUDE

RURAL KUTXA



Txapelketan hasi diren hamabi erremontelarietatik bederatzi aurkezpenean. Juanenea, Urriza eta Ion falta ziren. M.ANDRES

Berrikuntzekin eta Koteto gabe hasi da binakako txapelketa

Sei bikote hasi dira lehian (Malerrekako bertz erremontelari), abenduaren 29an jokatu den finalerako txartelaren bila

TTIPI-TTAPA

Sei bikote hasi dira binakako 48. erremonte txapelketa ofi-

zialean, joan den urtean Xanti Uterga eta Joxe Jabier Etxeberria III.a doneztebarrek

jantzi zuten txapelaren bila: Urriza eta Larrañaga, Ansa II.a eta Barrenetxea IV.a, Xanti Uterga doneztebarra eta Azpiroz, Josetxo Ezkurra II.a eta Joxe Jabier Etxeberria III.a doneztebarrek, Matxin III.a eta Ion eta Aritz Juanenea eta Endika Urrutia saldiastarrak. Hain zuzen, Juaneneak aitzinetik egindako kanporaketan lortu zuen txapelketan sartzea. Gorka Urtaşun iruritarrek eta Aritz Zubiri goizuetarrek ez zuten lortu, baina ordezkioak

dira, Segurola eta Agirrezabala bezalaxe.

Koteto Ezkurra gabe

Aspaldiko partez, erremontea utzi duen Koteto Ezkurra ez da ariko, eta izanen dira berrikuntza gehiago ere. Erraterako, puntuazio sisteman, ligaxkako partidetak irabazleek lau puntu eskuratuko dituzte eta galtzaileek, lortu duten tanto kopuruaren arabera bi puntu (36 eta 39 tanto artean egiten badituzte), puntu bat (32 eta 35 tanto artean eginez gero) edo 0 puntu (32 tanto baino guttiago eginez gero). Aurtengo berrikuntza hau izanen da: 26 tantotara ailegatzeko ez den bikoteari puntu bat kenduko zaio.

Azaroaren 8an, Uterga eta Azpirozek Juanena eta Endika saldiastarren kontrako partidarekin hasi eta abenduaren 8an akituko den ligaxkan denek denek kontra jokatuko dute eta lau lehenbizikoez lortuko dute finalerdietarako txartela. Finalerdiak abenduaren 15ean eta 22an jokatuko dituzte ligaxkan lehenbiziko gelditu direnek laugarrenen kontra eta bigarrenen hirugarrenen kontra. Finala abenduaren 29an jokatuko dute.



MAIALEN ANDRES

Uterga eta Labaka txapeldun Azpeitian

Azaroaren 2an jokatu zen Azpeitiko erremonte txapelketako finala Izarraitz pilotalekuan. Xanti Uterga doneztebarrek eta Labakak (Loiola) 40-36 irabazi zieten azken partida horretan Matxin III.a eta Agirrezabalari (Matxinbenta). Uterga izan zen finaleko pilotari onena eta 21 tanto egin zituen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Errekako judo entrenamendu berezia

Erreka judo klubean Parisen bizi den Elvis Flores peruarraren bisita izan zuten azaroaren 1ean. Juijitsuko lehiakidea, Frantziako ligan lehiatzen ariren da. Gure inguruan zebilela aprobetxatuz, lurreko teknika berriak lantzen irakatsi zien Errekako judoek eta arras gustura entrenatu zuten.



38. Lizuniagako Igoerako gizasemeen eta emakumeen podioak, Gure Txokoa elkarteko atarian. UTZITAKO ARGAZKIAK

Martinez eta Oiartzabal garaile Lizuniagako Igoeran

Azkaindarra lehen aldiz suertatu da garaile 38. edizioan eta Lezoko emakumeak borzgarren garaipena segidan lortu du

TTIPI-TTAPA BERA

Gure Txokoa elkarteak 38. aldiz antolatutako Lizuniagako Igoera burutu zen urriaren 27an. Eguna haurren krosarekin hasi zuten eta bertan ia 100 kirolari izan ziren. Gero, proba nagusia 80 korrikalari atera ziren. Eguraldi iragarpena kontuan hartuta.

Hasieran taldetxo bat lasterketaren buruan jarri zen, bertan faborito guztiak ziren. Lasterketa erdi aldera eraso bortitza egin eta gero Xabi Martinez azkaindarrak bakarrik alde egin zuen eta garaile sartu zen, 17 minutu eta 35 segundoko denborarekin, duela hamar urte Abdelfettah

Loujarik egindako errekorretik (16'01") urrun. Aurten Sarako Kontrabandisten lasterketa irabazitako Guillaume Levoy sartu zen bigarren, 30 segundora eta hirugarren Eneko Garin izan zen (25 urtetan errekorra izan zuen Peio Garinen iloba).

Emakumeetan, Lezoko Lurdes Oiartzabal Etxeberriak irabazi zuen borzgarren urtez segidan (21'41"), bigarrena Ane Elzaurdia beratarra (22'38") eta hirugarren Carmen Perez (23' 32") izan ziren.

Gazteetan Aimar Leatxe eta Ainhoa Etxegarai eta beternoetan Victor Pradejon nagusitu ziren eta lehendabiziko beratarak Gwendal Larque eta Ane Elzaurdia izan ziren.

LIZUNIAGAKO IGOERA

SAILKAPENAK SENIOR-BETERANO

GIZONEZKOAK	
1. Xabi MARTINEZ	17:35
2. Guillaume LEVOY	18:06
3. Eneko GARIN	18:15
4. Victor MADEJON	18:22
5. Unai SANTAMARIA	18:27
6. Gwendal LARQUE	18:38
7. Beñat SARALEGI	19:06
8. Juan Carlos KORTA	19:09
9. Iñigo LASAGA	19:15
10. Javier DELGADO	19:23

EMAKUMEAK

1. Lurdes OIARTZABAL	21:41
2. Ane ELZAURDIA	22:38
3. Carmen PEREZ	23:32
4. Amandine LEVOY	25:19
5. Estibaliz GEZALA	26:14
6. Irene MATXIARENA	26:23
7. Teresa IGOA	27:08
8. Joelle BOISRAMÉ	27:18
9. Cristina ARBUES	32:11
10. Txaro ZUBIETA	33:02

SAILKAPENAK GAZTEAK (14-18)

MUTILAK	
1. Aimar LEATXE	22:35
2. Markel OIARTZABAL	27:06

NESKAK

1. Ainhoa ETXEGARAI	24:15
2. Oihana ARRUTI	26:26

BERAKO BATIXTA TELLETXEAK 38 EDIZIOETAN PARTE HARTU DU

Euskadiko 4x4 sokatira txapelketan ere ariko dira Beti Gazteko neska-mutilak


TTIPI-TTAPA LESAKA

Nafarroako sokatira txapelketan hasiak dira Beti Gazteko neska-mutilak. Azaroaren 3an Arbizon jokaturako lehen jardunaldian erakutsi zuten nagusitasuna kontuan hartuz, igande honetan Aldatzen jokatzekoa zen bigarren jardunaldian jantziak behar lukete 640 kiloko eta 375 kiloko txapelak.

Ondotik, gizasemeen 600 kiloko eta txapelketa mistoa (550 kilotan) jokatzekoak dituzte azaroaren 17an Elizondon eta 24an Lesakan.

Horretaz gain, Euskadiko 4x4 sokatira txapelketan ere hastekoak dira Beti Gaztekoak azaroaren 18an. Igandean Artziniegan (Araba), txapelketa mistoa jokatuko dute, 280 kilotan, saio bakarrean.

Segidan, emakumeen 260 kiloko eta gizasemeen 300 kiloko jokatuko dituzte hiru jardunalditan: azaroaren 25ean, berriz ere Artziniegan, abenduaren 2an Ibarra (Gipuzkoa) eta abenduaren 16an, sei onenak lehiatuko dira finalean, oraindik zehaztu gabeko lekuan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Lesakarrak ongi Frankfurteko maratoin

Beti Gazte elkarteko ordezkari, Frankfurteko (Alemania) Maratoiaren 37. edizioan parte hartu zuten bi lesakarrak. 20.000 korrikalariaren artean 317. izan zen Bixente Igarzabal (2 ordu, 44 minutu eta 15 segundo) eta 2.275. postuan sartu zen Jose Luis Irurtzun (3 ordu, 21 minutu eta 40 segundo).

AGENDA

AZAROAK 15 - 29

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

ELIZONDO

Mexikoko nahualt hizkuntza eta TOSEPAN kooperatiba taldea

Arizkunenean, azaroaren 21ean, 19:30ean.

Landa eremu eta nekazaritzaren etorkizuna

Arizkunenean, azaroaren 24an, 11:30ean.

Adinekoen zaintzarako udal plana

Arizkunenean, azaroaren 26an, 18:00etan.

IKASTAROAK

ELIZONDO

Menpekotasun egoeran dauden pertsonak laguntzeko ikastaroa

Lanbide Eskolan, azaroaren 30era arte, 15:00etatik 20:20era.

Haur, nerabe eta gazteekin esku-hartzea

Arizkunenean, azaroaren 21ean, 17:00etatik 19:00etara.

Estresa eta antsietateari aitzin egiteko tailerra

Osasun etxean, azaroaren 21ean eta 28an, 10:00etan.

'Bertsolaritza puntuagarria'

Arizkunenean, azaroaren 30ean, 20:00etan.

Sormen taierrak

Arizkunenean, abenduaren 27an eta 28an eta urtarrilaren 3an eta 4an. Izen-ematea: azaroaren 29a bitarte (10 euro).

ETXALAR

Muxikoak

Larraburuan, asteazkenero, 19:00etan.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

GOIZUETA Udazkeneko feriak

Azienda ikusi eta eskualdeko artisauen produktuak erosteko aukera. Azaroaren 24an.

IGANTZI

Biziprest tailerra

Elizatean, azaroaren 16an, 18:00etan.

ITUREN

Zunba ikastaroa

Ganbaran, astearte eta ortzegunetan, 20:30etik 21:30era.

DONEZTEBE

Indarkeria sexistari aurre egiteko tailerra

Mankomunitatean, azaroaren 30ean.

Sare sozialen prebentzioa, erabilera segurua eta osasungarria

Institutuan, azaroaren 22an, 17:00etan.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Santa Zezilia

Zahar-etxetik Ziga plazara, azaroaren 20an, 17:00etan.

Elizondoko abesbatza

Azaroaren 24an.

LESAKA

Santa Zezilia

Harriondoan, azaroaren 23an eta 24an.

ETXALAR

Carlos Nuñezek kontzertua

Elizan, azaroaren 25ean.

ARANTZA

Txamukos mariatxiak

Afaria eta ondotik kontzertua. Burlada jatetxean, azaroaren 16an, 21:00etan.

SARA

Ikastolako kantaldia

Lur Berri gelan, azaroaren 17an, 17:00etan.

OSPAKIZUNAK

ZIGA

San Andres

Bazkaria, jolasak, txokolatea... Azaroaren 24an.

LESAKA

Haurren eguna

Irain guraso elkarteak eta Otxogorrienea guraso elkarteak antolatua.

Azaroaren 24an.

AMAIUR

Bertso afaria

Izen-ematea: Amaiurko Gaztelu ostatuan eta Elizondoko Intzan, azaroaren 20a arte, 25 eurotan. **Gaztelu Elkarte**an, azaroaren 24an, 21:30ean.

ZUBIETA

Talo jatea

Estalpean, azaroaren 30ean.

KULTURA

ELIZONDO

VIII. Mariano Izeta bertso sariketa

Arizkunenean, azaroaren 23an, 19:30ean.

LESAKA

Bortzirietako bertso eskola

Andra Mari Egoitzan, azaroaren 24an, 17:00etan.

DONEZTEBE

Udazken literarioa

Zineman, azaroaren 18an, 18:30ean.

AZOKAK

DONEZTEBE

Udazkeneko feriak

Azaroaren 16an.

LESAKA

Udazkeneko feriak

Azaroaren 21ean eta 22an.

GOIZUETA

Udazkeneko feriak

Bezperan euskal kantu emanaldia izanen da, ganbaran. Azaroaren 24an.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

DONEZTEBE Bertso literarioak

Julio Soto eta Uxue Alberdi Dani Martirena idazlearekin.
Azaroaren 18an, 18:30ean.

SARA Eguberritako merkatua

Azaroaren 24an, 09:00etatik aitzinera.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO Fernando Manterolaren argazki erakusketa

Arizkunenean, azaroaren 28ra arte.

FILMAK

IRURITA 'Petit paysan'

Gizarte Bilgunean, azaroaren 18an, 19:00etan.

'Zoaz pake santuan' antzerkia

Gizarte Bilgunean, azaroaren 25ean, 19:00etan.

ITUREN 'Bakarketetan' ikuskizuna

Ganbaran, azaroaren 25ean, 18:00etan.

DONEZTEBE 'O me entienden ya o me voy' antzezlan

Zineman, azaroaren 26an, 15:00etan.

'Volar'

Zineman, azaroaren 30ean, 19:00etan.

LESAKA 'Pixi post'

Harriondoan, azaroaren 25ean, 18:00etan.

BERA 'Irripar Txou' antzerkia

Xuga ostatuan, azaroaren 25ean, 22:30etan.

'Gudua' antzerkia

Errekalde ostatuan, azaroaren 30ean, 22:30ean.

ZOKETAK

LESAKA Tonbola

Harriondoan, azaroaren 21ean.

Nire aukera

«Jende aunitzek borondatez egiten du lan eta hori eskertzekoa da»

VIRGINIA OTEIZA BAZTANGO GAZTEA

Egunerokoan «irakasle jardunean» dabilen «neska konprometitua eta ikasteko prest dagoena» da Virginia Oteiza. «Hezkuntza munduko formakuntzak egitea, Hasier Larretxearen *Batzuen ametsak bertzeen zelai zuluak dira* bezalako liburu ederrak irakurtzea, Auzkuko parajeetan barrena kirola egitea edo bidaiatzea» du gustuko, bakoitza bere denboran eta



UTZITAKO ARGAZKIA

tokian. Baztandarra dela argi badu ere, «bi herritakoa» dela erranen luke. Izan ere, Arraiozen bizi da, baina «ama zigarra izaki, ttikitatik berarekin joan izan naiz». Batean eta bertzean ditu «familia eta lagunak». Biak hala biak herri ttikiak dira, eta baztandar gaztearen arabera, «bakoitzak bere xarma du». Lehen baino besta guttiago egiten badu ere, herriko ospakizunen bueltan «herritarrekin

elkartzeko» aukera duenez, horietan ez du hutsik egiten, eta laster Zigan, San Andres Egunaren bueltan, izanen du aukera: «azaroaren 24an izanen da». Urteko egun berezietako bat da, «udazkeneko egutegian mantentzen dugun ospakizunetako bat, feriak edota bi urtez behin ospatzen den Basaburuko Eguna bezala». Garai batean Zigaurre auzoan egiten bazen ere, «egun herrian egiten da» eta ekitaldiak ere indartuz joan dira: «arratsaldean haurrentako tailerrak eta txokolate beroa eta helduendako mus txapelketa izaten ditugu, eta gauean musikaz alaitutako afarian biltzen gara». Gazteen artean antolatzen duten bestan «60 lagun inguru» biltzen dira. Oteizaren arabera, «konpainia onean plan guztiak politak» direnez hori ez da gutiago izanen. Ez da antolatzen duten ekitaldi bakarra «inauteriak eta herriko bestak» ere euren lanari esker ospatzen dituzte eta: «horretarako komisiok antolatu eta lanak banatzen ditugu». Dena dela, batzordeek egindako lanaz gain, «herritar aunitzek borondatez lan egiten du eta hori eskertzekoa da». Herri ttikia, baina bihotz handia dute, laguntzeko prest izaten dira beti: «beharrezkoa ere badela jakinki, saiatzeko gara».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA


ETXEBIZITZAK

SALGAI

ETXALAR. Borda bat salgai, bere lurrarekin. ☎ 661 12 15 40.

BERA. 80 m²ko pisua salgai. Lehenengo solairuan, erdigunean kokatua, Alzate karrikatik hurbil. Guztiz berria dago, sukalde estreinatua gabe. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gastu gutti ditu, atezainarekin. ☎ 608 77 79 26.

ERRENTAN EMATEKO



ALMUÑECAR. Granadako kosta tropikalean, partikular batek lagun bat edo birentzako aparthotela errentan emateko du, neguan. Lehen lerroan, bista zoragarriak dituen terrazarekin, aire girotuarekin eta hagitz ongi hornitua. Abenduaren 15etik martxoaren 31ra errentan emateko. ☎ 658 94 37 02.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Jubilazioagatik janari-denda bat traspasatzen da. ☎ 948 63 04 52 (Deitu 18:00etatik 20:00etara).

LANA

ESKAINTZAK

MALERREKA edo BORTZIRIAK. Fruta-denda batean lan egiteko jendea behar da. kifrut@gmail.com.

BERA. Churrut Hotelean (Lenkonea jatetxea) egun osoan aritzeko zerbitzaria behar dute. Deitu edo bidali curriculuma. ☎ 948 62 55 40 edo info@hotelchurrut.com.

DANTXARINEA. Maspormenos-en lan egiteko jendea behar dute. Kirol artikulu eta arropa teknikoak saltzen dituzte: goi-mendikoak, lasterketekoak, kanpoko jardueretarako... Interesatuak bidali curriculuma: info@maspormenos.net helbidera.



744 484 361

ttipi-ttapa

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegaberen erantzukizunik

LESAKA. Atxaspi Hotelean, gosariak prestatu, garbiketa eta harrerarako langile bat behar dute. ☎ 673 33 99 20.

ESKARIAK

Emakumezko bat lan bila adineko pertsonak zaintzeko –interna moduan edo egunez– edota garbiketa lanetan aritzeko. Esperientzia adineko pertsonen zainketan, erreferentziakin, garbiketa lanetan edo etxeko lanetan orokorrean. ☎ 693 69 49 49.

Emakumezko bat lan bila. Adineko pertsonak zaintzen interna edo egunezko langile bezala, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest. ☎ 666 81 21 13.

Emakumezko bat lan bila. Adineko pertsonak zaintzen interna edo egunezko langile bezala, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest,

baita sukaldaritzan arloan aritzeko ere. Erabateko prestasuna. ☎ 666 81 10 56.

40 urteko emakumezkoa lan bila. Pertsona adinduak interna moduan edo orduka zaintzeko prest. Esperientziaduna adinekoak zaintzen interna bezala. ☎ 685 66 91 48.

Neska bat lan bila: haurrak zaintzeko, adinduak zaintzeko konpainia egiten eta establezimenduak edota etxeak garbitzeko prest. Esperientziaduna haurren zaintzan, adinekoak zaintzen konpainia moduan baita garbiketa lanetan ere. ☎ 644 85 81 34.

Adineko pertsonak zaintzen zazpi urteko esperientzia duen emakumea lan bila. Adinekoak zaintzen, haurrak zaintzen edota ostalaritzan aritzeko prest. Erabateko prestasuna. ☎ 667 31 87 19.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,29
- 1.koa 4,07
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,31
- 1.koa 4,17
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun inguruak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idixkoak 250,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,70/9,40
- 8-10 kilokoak: 7,20/7,90

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 35 €

Zerri gizona 1,056 €

Zerramak 0,460€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (urriaren 26tik azaroaren 2ra bitarteko prezioak)

Gizonezko arduratsua lan bila. Eraikuntzan eta salmentan lan egindakoa. Eraikuntzan, garbiketan, lorezaintzan edota beste arloetan aritzeko prest. Ikasteko prest. Erabateko prestutasuna. ☎ 644 46 26 50.

BERA. Emakumezko bat lan bila: etxeko lana egiteko, haurrak edo adinekoak zaintzeko... prest. ☎ 602 82 23 74.

Gizonezko bat lan bila eraikuntzan, abeltzaintzan edota komertzioetan lan egiteko prest. Ingeniaritza arloan ezagutzak, talde lanean aritzeko gaitasuna eta oso arduratsua. Erabateko prestutasuna. ☎ 644 84 92 06.

Gizonezko bat eskualdean lan bila. Adineko pertsonak astegunetan zaintzeko, garbiketa lanetan aritzeko eta ostalaritzan aritzeko prest. Arduratsua eta pertsonen arteko komunikaziorako abileziakin. Erabateko prestutasuna. ☎ 631 54 44 81.

Emakumea lan bila: adinekoak zaintzen interna edo externa bezala aritzeko prest, baita haurrak zaintzen, garbiketan, sukaldaritzan edota lorezaintzan aritzeko ere. ☎ 644 37 30 08.

ETXALAR. Neska bat lan bila. Haurrak zaintzen esperientziarekin, dendaria, fabriketan eta ikasteko prest. ☎ 687 22 23 20.

BERA. Emakumea lanean aritzeko prest: garbiketan, etxeko lanetan, dendari, adinekoak edota haurrak zaintzen... Erabateko prestutasuna. ☎ 667 95 84 88.

Emakumea lan bila, adinekoak edota haurrak zaintzeko. Interna moduan nahiago baina orduka lan egiteko prest. Erabateko prestutasuna, arduratsua eta esperientzia zaintza lanean. ☎ 644 82 99 46.

BAZTAN. Mutila lan bila. Abeltzaintzan, pintura lanetan edota eraikuntzako peoi bezala lan bila. Zerbitzu aniztatan esperientzia, baita saltzailer bezala ere. Pintura, pladur eta igeltserotza ikastaroekin. Erabateko prestutasuna eta kotxearekin. ☎ 634 29 47 41.

ZERBITZUAK

PSIKOANALISTAK

ROSA BELZUNEGI

PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu ordua

☎ 650 268 301

Jaime Urrutia, 42-2.D **ELIZONDO**

Garraio zerbitzua egiteko norbait behar da

Astelehenetan Bortzirietatik Leitzara joaten zara? Garraio zerbitzua egiteko norbait behar da, gidatzeko baimena eta autoa duena.

Deitu 948 63 54 58 telefonora.

ZURGINDEGIAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

ANIMALIAK

OPARITZEKO

LEITZA. Salmoari arrazako bortz txakurkume oparitzeko. ☎ 644 96 63 88.

SALGAI

Astokumea salgai. Tamaina ertainekoa eta beltza. ☎ 616 67 92 70.

BERA. Sei ardi salgai, bildotsekin edo gabe aukeran. ☎ 948 63 04 19.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

BERA. Kotxeko giltzak galdu dira, Ford etxeko mandoa. Herriko Etxeko Plazan, Agerran edo bidean segur aski. Norbaitek aurkitu baditu harremanetan jartzea eskertuko genuke. ☎ 636 42 60 94.

SALEROSKETAK

Soro hesia edo dena delakoa sagar baxatiarekin egin nahi duenak badut planta gaztea ugari. ☎ 948 61 50 05.

MOTORRAK

SALGAI



Audi A3 S line 140 CV salgai. Egoera onean. ☎ 679 61 88 68.

TAILERRAK

GANIX
Tallerra

948 63 06 69
Zalain Pol., 11 · BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak webgunean ere argitaratzen dira hilabete batez. Ikusi iragarkiak Interneten: <https://erran.eus/merkatu-ttikia>

KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

RENAULT
SANTESTEBAN TAILERRAK

DUSTER COMFORT dci 110 CV 4X4
2018 urtekoa

CAPTUR S-EDITION TCE 120 CV EDC
2018 urtekoa Automatikoa

MEGANE ZEN TCE 130 CV
2018 urtekoa

www.talleressantesteban.com
Leitzako errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

• TTIPI-TTAPA | KULTURKARI •
KARTELAK
A3 | A2 | FORMATU BEREZIAK

• **ESKAINNTZA** •
WHATSAPP ez bidaltzeko
IRUDI DIGITALA OPARI
info + 948 63 54 58
www.kulturkari.com

EMAN KOLOREA MUNDU GRIXARI!

ttipi-ttapa

ZERBITZUAK

SORTZEAK

- **Amaia Iribarren**, Sarakoa, urriaren 12an.
- **Aiur Iratzoki Esteban**, Berakoa, azaroaren 1ean.
- **Maren Arozena Tapia**, Lesakakoa, urriaren 26an.
- **Ixone Muñoz Arretxea**, Sunbillakoa, azaroaren 1ean.

HERIOTZAK

- **Juan Mari Etxebeste Bergara**, Arantzakoa, urriaren 25ean, 67 urte zituela.
- **Pakita Garin Caballero**, Leitzakoa, urriaren 25ean, 93 urte zituela.
- **Rafael Mindegia Garmendia**, Iturengoa, urriaren 26an, 91 urte zituela.
- **Fco. Javier Arrieta Mariezkurrena**, Elizondokoa, urriaren 28an, 58 urte zituela.
- **Miriam Ruiz de Larrinaga Idoate**, Elizondokoa, urriaren 17an, 40 urte zituela.
- **Josu Goia Etxeberria**, Berakoa, azaroaren 3an, 71 urte zituela.

ESKERTZA

Martin ARIZALETA AZCARRAGA

1934/06/09 - 2018/10/16

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guziei mila esker.



EMAZTEA, SEME-ALABAK ETA GAINERAKO FAMILIA

URTEURRENA

Joxe MARITORENA Morkotz

III. urteurrena

Irribarre batek malkoak estal ditzala.



ZURE FAMILIA

**BEILATOKIAK**
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortzirietan eta Malerrekan
Hurbiltasuna eta begirunea
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO
T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

- ▶ **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 € Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.
- ▶ **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

IRACHE
tanatorioak
24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA
.....
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

**BAZTAN
BIDASOA**
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere
24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

KONTATU KONTUAK



Malerreka Kantuz Oizen. Aurtengo Malerreka Kantuz ere bere hondarrera ailegaten ari da, abenduaren 1ean Ezkurran eginen baita aurtengo bederatzigarren eta azken Malerreka Kantuz saioa, 12:00etan. Azken aitzinekoa, berriz, Oizen egin zuten, joan den azaroaren 3an. Argazkian ageri den bezala, kuadrilla ederra elkartu zen eta eguraldi ederra lagun, kantuz alaitu zituzten Oizko karririkak.



Birziklapen tailerra Arantzán. Aski arratsalde atsegina pasatu zuten argazkian ageri diren Arantzako neska-mutikoeek Kultur Egunen barne egin zen birziklapen tailerrean. Aitzinetik Guraso Elkarteak eskainita txokolate beroa hartu zuten eta ondotik, Birbira Taldekoen gomendioei tiraka, denetarik eskulanak eta jostailuak egin zituzten: panpinak, trenak, kamioiak, autobusak, itsasontziak, autoak, buruhaundiak, lorontziak, txotxongiloak...

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berrikerik eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzazuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontaguztu eta bidalguztu argazkia!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppe 744 484361 zenbakira, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ttipi-Ttaparen egoitzan

Etor zaitetz TTIPI-TTAPAREN bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

URTEBETETZEAK



Etalarko **Joanes Pinillos Auzmendik** 4 urte beteko ditu azaroaren 22an. Urte askoz, txapeldun! Zorionak eta muxu handi bat ebekoen partetik.



Aurtizko **Leiane Aitzuri Mindegiak** azaroaren 22an 7 urte beteko ditu. Muxu handi bat familia guziaren partetik eta bereziki bere ahizpa Naikari eta Xabat lehengusuaren partetik. Berendu goxoa prestatu!



Arraiozko **Rosario Karrikaburuk** 96 urte bete zituen urriaren 1ean. Segi aunitz urtez orain arte bezala. Zorionak zure kuadrillaren partetik.



Izargi Mariezkururenak 2 urte beteko ditu azaroaren 19an. Zorionak eta muxu handi bat June, Lide eta Haizederren partetik, bizkotxo goxoa prestatu!



Nahia Gomez Ribeiro beratarrek azaroaren 18an 6 urte beteko ditu. Zorionak amatxi, ataxi eta familiaren partetik.



Beñat Ugartek azaroaren 28an 3 urte beteko ditu. Zorionak maitia!!! Muxu handi-handi bat ebekoen partetik.



Donamariako **Oinatz Ariztegik** azaroaren 25ean 2 urte egingo ditu. Aunitz urte familia guziaren partetik, motorista!



Igantziako **Haizea Arangurenak** 2 urte beteko ditu azaroaren 17an. Zorionak eta muxu handi-handi bat zure anaia Jon, bi amatxi eta gurasoen partetik. Ongi pasatu!



Amabxi Pakitak Leianerekin batera azaroaren 22an urteak beteko ditu. Zorionak familia guziaren partetik eta bereziki Leiane, Naikari eta Xabaten partetik. Afari goxoa prestatu.

PLAZAN BAZAN



Egilea: Garbine Ubeda (Aiarri)



Maripurtzil seko ikaratuta dago etxeko ganbaran, ez baitu irteera aurkitzen. Lagun iezaiozu lehenbailehen! Mamurik nahiz zomorrerik ukitu gabe egin behar du bidea. Laukitik laukira egin behar du aurrera, eskuargiak seinalatzen duen tokitik hasita eta gora, behera, ezkerrera edo eskuinera, baina inoiz ez diagonalean.

INTERNETEN ERE BAI !


<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

SUDOKUA

Bete itzazu lauki zuriak, KUIA hitza osatzen duten hizkiekin (K, U, I, eta A). Gogoan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zer arraio gertatu ote zaie munstroei? Ihesi doaz denak, korrika eta lasterka, orain alde batera, orain bestera... Baina zerk beldurtu ote ditu?!

LABIRINTOA



1
Zer ote doakie atzetik jarraika, zure ustez? Marraztuko zenuke? Oso handia ez bada (euliaren antzekoa adibidez), egin ezazu bertan, zurigunean. Oooso handia baldin bada, berriz, har ezazu bere neurriko tokia (orri handi bat, etxeko horma, kaleko pareta...) eta egin ezazu.

2
Marraztu aurretik edo ondotik, aurki itzazu bi irudion artean dauden 9 aldeak.



Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

721

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Ttirtalo Argitaletxea - 2 liburu
Asun Ulazia Salaberria | ETXALAR
Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
Mertxe Txueka Intxusta | IRUÑEA
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Kristina Altzuarte Arregi | IRURITA
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Eduarne Biguria Huarte | ELIZONDO
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Ana Goñi Ondarretxe | ARESO
Arkupe - Lote bat
Jose M^a Inda Etxandi | DONAMARIA
Baga-Biga - CD bat
Josu Iriondo Martiarena | BERA
Baga-Biga - CD bat
Imatxo Grajirena Mutuberria | ZUBIETA

2 tiket

BAZTAN
AVENTURA PARK

ELIZONDO

BKZ AVENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

LESAKA
www.lesakakoudalkiroldegia.com

2 sarrera

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

2 sarrera helduentzat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

Kamiseta bat

MARTIKO
www.martiko.com

Lote bat

MUSIKA

Betty Rockanroll
TXAPEL PUNK

Txapel punk
Betty Rockanroll

baga-biga
MUSIKA IDEIAK
www.baga-biga.eus

LA GUNTZAI LEAK

okille tailerra
www.okilletailerraesp.blogspot.com.es

MARTIKO
www.martiko.com